

anaitasuna

1978.EKO MARTXOAREN 1/15EKOA - 358/9 - ZENBAKIA 50 PTA.

4

ERRI EGUNARI
BURUZKO DOSSIERA



ZURIKERIAK

euskal erdal gidaliburua

EUSKAL ERDAL GIDALIBURUA

Gaztelania - Frantses - Euskara

Mila esaldi baino gehiagoz osaturiko liburuxka

Euskara ikasten ari direnentzat oso egokia

Euskara bizia, kaleko euskara, edozein gauza esateko edo eskatzeko apropos

Plazara dezagun gure hizkuntza!!!

euskal/erdal
gidaliburua



español
français
euskara

GUIA DE CONVERSACION
GUIDE DE CONVERSATION
ELKARRIZKETARAKO GIDALIBURUA

Banatzailea: Iker Zabalbide 68
Tfno 4335807

AURKIBIDEA

3. Editorialea. Oharra
- 4-5. Ohar laburrak
- 6-7. Amara Berriko txiki-zloak
- 8-10. Euskal/Erdal prentsa
12. Doña Prudentzia
13. Konstituzioaren lezioa
- 14-15. KASen alde bi hitz
- 16-18. Hauteskundeak eta militantearen jarrera.
- 20-21. Ipar Euskal Herrian: Euskal migrapena
- 22-24. "Autonomia eskatu du gure kanpainak"
- 26-27. UCDk aldizkari berria
28. Mila kondu: Bergarako alkateak
- 29-49. Dosierra: Aberri Eguna
- 50-51. Bipartikrazia ezen ez demokrazia
52. Jendarme berriak
53. Prentsarako oharra
- 54-55. Elkar Ikuska
- 56-57. Pedagogia
59. Irakurlearen saila
- 60-61. Emakumeak
- 62-63. Gramatika
64. Arteak
66. Sukalderako saltsak
68. Posta
69. Gurutzegramak
70. Astabelarriak

Leg. Gor.: BI, 1763-1967

OHARKIZUNA:

Anaitasuna ez da arduratuko artikuluen edukiek duketen erantzunkizunaz. Beronek ez du esan nahi ez alde ez aurka dagoenik. Bestaldetik, beregain hartuko du editorialearen eta bere izenez izenpeztako artikuluen erantzunkizuna, beraz baita (hala dugu ulertzen) bere ideologi hildoa.



ESANGO BAGENU

Estatu honetan antza, badago edozein gauzetarako, zein garrantzizko ala axola guttiko izan, bi neurri berezi. Batak neurtzen ditu kapitalak eta botereetsuak. Boltsetako baloreak, banku dibidenduak, enpresa handien ekintzak, gizalegeak eskatzen duen arauera konpontzen dira. Modu berean neurtzen dira talde batzuren kultura eta izan nahia, modu onez beti, beraien zerbitzuean dauden indarrei laudio eta leialtasuna frogatzen dizkiete. Bestearekin aldiz, talde horietan parterik hartzen ez dutenen neurriak, guztiz ezberdinak izaten dira. Menpekoen etorkizun eta osasuna, langileriaren, herri zapalduen nortasuna, kultura, hizkuntzak ez dira modu horien bidez neurtzen.

Orain Gasteizen gertatu denetaz jabetuz, Martin Villarekin batera, "2 a 0" esango bagenu egiazko agitadore eta terroristak izango ginatke. Denak ez gara berdinak noski. "Els Joglars" taldeari gertatu zitzaiona, ezin litzaioke egin Cabanillas ministrari ahalguztidunari. Ez dugu beraz, akusatuen aulkian ikusteko plazerrik izango. Marokori Sahara saldu ziotenak, ez dituzte ere juzkatuko. Espainiako Batasun sakratua aipatzen dutenek, badakite komenientziaz edo diru interesak tartekatuz, zer eta zer ez den sakratua. Bitartean Amnistia izan dugu. Pertsonak, amnistia daitezke, zapalkuntzak sortu zituen ondorioak ez dira inondik ere amnistiagai. Herriari kendu zaiona, berreskuratu egin behar zaio. Horretarako jarrera ona eta engainu edo faltsukeria guttiago ikusi behar da, herriak ez baitira azalezko neurriez eta deklarapen demagogikoez betetzen. Gorrotoan, zapalkuntzan, nortasun ezean bizi garenok badakigu barkatzen. Gutaz egindako krimenak kondena hutsak eskatzen baditu ere, kondena hoberena eguneroko praktikan aritzen da. Eta hor dugu kakoa, Estatu honetan UCDk eta beste norbaitzuk Frankismoaren antzera ahal den guttiena eman nahi diote Euskal Herriari, lortuko dugun guztia bortxaz eskuratuko dugula ongi eta garbi adierazi diote Euskal Herriari. Zertaz kezatu beraz? Taktika politiko pobre horretan arduratzen direnek, horren ondoriak ere ontzat eman behar dituzte. Non egon da amnistia? Nor izan da amnistiagai? Euskal Herria ez behintzat. Hementxe dugu mila frogak.

Ez dute ezer kunplitzen, eta ez dute ezer egin nahi. Hori da txarre-na. Francoren Diktadura basatiak lortu ez zuena Demokrazia liberalak beste modu finagotan apoiatuta berbera egin nahi du. Desmobilizatu, deuseztatu, likidatu. Hortaz ere, gero eta gehiago konturatzen ari da. Horregatikan kondena guztiak bereziki, ahuntzaren gauerdiko estulen parekoak direla uste dugu.

Bitartean, zera esan nahi dizuegu: Aberri Egunak gogor.

OHAR LABURRAK

EUSKARA IKASTEKO BESTE METODO BERRI BAT (NORBAITEK ATERATA)

Euskaldunok nahiz eta gaizkiago ibili, euskara ordea gero eta hobe aurkitzen da, dirudienez. Hala baietzeta du behintzat euskara ikasteko dagoen metodoen kopuruak. "Euskalduntzen" guztiak, gramatikak, metodoak ugaritzen ari zaizkigu alde guztietatik. Batzu onak, besteak ez hainbeste, denak oso borondate onaz osatuak. Oraingotan, 12 kaxete eta liburu bat osaturiko **METODO AUDIO ORAL DE EUSKARA BASICO** delako berri hau, egiatan borondaterik handiaz ere egin bada, besteak ere, ona dela esan daiteke. Hala ere honekin ere ez jendeak euskara ikasten ezbadu, "imposible" hori garaitzea ezin dela batzuk esan dezatela beldur gara. Euskarak beste hizkuntzek duten normaltasun eta beharkezun publikoa eskatzen du. Normaltasun honen "imposible" guztiak gaudituko dituelakoan gaude eta honi egia deritzogu. Bestaldetik hizkuntza batean pentsarazteko, irakasleak nahiz eta nahiezkoak dira. Horrela izan da eta da herri guztietan.



Metodo honen eragileek diotenez, euskara ikasten asko saiatu da baina zoritxarrez horietatik guttik lortu du goimuga. Bidean zehar jende asko gertatu baita. Alferrak, nagiak eta vasconavarroen multzoa osotzen dutenek ba dute beraz non haginka. Lasai eta konturaturik gabe ikas dezakete. Denek ezin izango dute erosi. Betiko gakoa. Gauzak pagatu behar dira, kostuak gorantz baitoaz. Pribilegioa da oraindik ere, alferra izatea. Irakasleek eta bestek irakaspide egoki bat dute eskola onak nola eman daitezkeen jakiteko. Zorionak Norbaiti eta ea bigarren partean saiatu dituen bideak, bigarren mailakoari zor zaion arintasunez eta herritartasunez doan.



SOLDADUTZA

Estatu espainoleko militarrek modan paratu zaizkigu berriz. Edo, hobeki esan dezagun, ez dira zoritxarrez aintzinatik modatik irten. Oraingo honetan, JJSSkoek, PSOeko gazteek dokumentu bat bidali diote Gutiérrez Mellado jeneralari, Kodigo Militararen zenbait erreforma eta koartelutako bizi kondizioen hobetzea eskatuz.

Nahiz eta dokumentu honen eskabideak guztiz moderatuak izan, eta hauxe da, normalki ezkertiarriaren bekatuan erortzen ez den PSOeko jaun diputatu batek deklaratu duena, doku-

mentua asko gaizki hartua izan da militar giroetan. Ezin gara honetaz harritu, ondo baitakigu horrenbeste urteetan iraun duen despotismoa ezabatzea ez dela lan erraza izan.

Bai, arazo ilun gehiegi aurkitzen dugu gaur egun ere Harmada barnean. Espainiako kasuan behintzat, Harmada Estatu baten barnean dagoen beste Estatu aski autonomo bat dela dirudi. Soldaduek, pertsona legez dituzten giza eskubide minimoak ez dira errespetatzen eta urtebete edo urtebete terdiko esklabutzaldia betetzera derrigortuta dago gazte jendea.


Bestalde, guk geuk ez dugu oso ongi konprenitzen zein puntutaraino posible den Carlos III.aren garaian mamituriko kodigo famatua erreformatzea. Halakoak, tumoreak bezala, zail dira sendabide biguenez konpontzeko eta sustraitik atera beharra egoten ohi da gehienetan.

Els Joglars-en arazoak berriro oroiterazi digunez, Estatu honen demokraziarako bidearen muga galoiek markatzen dute. Eta txarrrena, halako martxan noiz arte markatuko duten ez dakigula.



BERDEAK ERE GURE ALDE

Lekeition aspalditik lapurketa asko eta ugari egiten da gaeuz. Arrazoiak horretarako erraz bila daitezke. Lekeitiarrak edo eta Lekeition bizi eta horakoak ez diren askok paro eta hestutasunean bizi behar dute, ez Lekeition bakarrik, Estatu honetako leku guztietan baizik. Aurtengo lapurketa estatistikari begiratzuz gero, lapurketen kopurua gehitu dela konturatzen gara. Baina gatozen harira. Lehengo egun batez Lekeition baten batek beheko atarian zarata handiak entzutean eta lapurrak zirela konturaturik, bertoko goardia zibilei dei egin omen zien. Haien erantzuna pitxi eta harrigarria posible ote den gertatzen zaigu: "Kasu guztietarako herriari deitzen diozue, dei iezazozue honetan beraz herriari". Ba dakigu beraz, Euskal Herriko ordenu zaintzaileen alde denok gaude ados.



UNDERGROUND ALDIZKARI BERRIA

Ageri berria dugu geure esku artean POTT euskal aldizkaria. Baina honetan ez da bezalaxe. POTT berak dioenez banda bat osotzen du, berriak, albisteak eta bestelako pasadizoak ikuspegi herrikoi eta adarjotzaille batetik eginak daude. Ez diote inori zerbitzatu nahi beraien buruak, gureak ere, argitzekotan dute helburua. POTT dugu geure lehen "underground" aldizkaria, gu, besteok "Anaitasuna, Zehatz, Zeruko Argia, Jakin" berberori ez garella kontsideratzen bada. Undergroundtasun honetan underground saria, dudarik gabe POTTek irabazi du. Kakusainaz, herri honetako eta besteetako usteltasunez edo eta maitasunez, amodioz, poesiaz eta humanook batera edo barkarka botatzen dugun kiratsaz jabetu nahi izanez gero, POTT erosi beharko genuke. Ez dakigu nola baina. Hala ere ez da zaila izango aleren bat eskurtzea, zurratuak bai-kaude hemen ere.

CONSEJO GENERAL VASCON GERTATUA

Bide onetik jakindut eta horregatik ez dut inolako omenik jarriko.

Lehengo batean kontseilariak beren batzarrean, bertako aktak bi hizkuntzetan azaltzeko, euskal itzultzaile bat izendatzearen komenientzia tratatu zuten. Batzuk behatzez izendatu nahi zuten, baina Karlos Santamariak, bertako gehienek euskaraz ez zekitelako ikusirik, egokiena Euskaltzaindiagana jotzea zela zioen, beronek garantiazko itzultzaile bat izenda ziezaien. Euskaltzaindiaren izena entzutean, Don Juan Ajuriagerrak zera esan zuen: Sí, para que nos manden a Kintana!

Eta, izan ere, ez zegoen Euskaltzaindira joan beharrik, akten euskal itzultzailerik hoberena, mundu guztiak dakienez eta zailantzarik gabe, Ajuriagerra bera baitzen, edo eta Rubial bera, euskaraz idazteko kontuan, gutienez, don Juan bezain trebea dena.

Kintanak, dena den, ongi merezia du hura, endredamakila izan eta saltsa guztietan sudurra sartzeagatik. Bera izan zen, memoriak lagun, Rubiali euskaraz ez jakitea aurpegira bota zion lehenbizikoa, bide batez Ajuriagerra eta PNVri harma ederra eskainiz. Hurrengoan ikas dezan.

Ene grazia Carrillo da ta Santiago dut izena
Mosku aldetik pasa ta gero honuntz etorri naizena.
Oso gizon zuzena
Espainiko zezena
Zoriatzen ikasia
hemen ezin da
Paris aldean
urte dexente pasia.
Elizarekin konponduko (dut
lehendabiziko iratua
apaiz asko nola dagoen
komisiotan sartua.
Eserieku altua
kortetan dut hartua
gustora nagó begira
nabarmen zeko zafar
(nobeak
faster etorriko dira.

(Doinua: "Iparragire
abila dela")

"Korteeetako parodiatik"
hartua.

AMARA BERRIKO TXIKIZIOAK

Amara Berriko kale nagusiak, hau da, Isabel II, Carlos I, Balleneros, Eustasio Amilibia, e.a. ipurdiz gora ikusiko dituzu, dena irekita eta txikituta. Donostiar eta gipuzkoar askok, berriz, kale hauetatik derrigorrean ibili behar dute, Carlos I-n baitago Gipuzkoako Trafiko Buruzagitza, Balleneros-en Tiffany's dantzaleku famatua eta Isabel II eta Eustasio Amilibian kristoren restaurant, kafetegi eta merkatuak aurkitzen dira.

Donostiako erresidentzia zelako Amara Berria hauzategi madarikatua gertatu da. Udaleko teknikari eta etxegileen artean burutu dituzten txantxuilo eta lapurketa legezko (?) itxuragabeak egin baitira.

1.946.etik hasita eratu diren lotsagarrizko zenbait lur espekulapenak (udaletxeak berak metroko 50.000 pezetatan makina bat sail salduak ditu) eta udaletxeko alkate eta teknikari zerrendak aipatzeak ez du mereziko. Amararen haziera anarkoa izan bada, Coninsa urbanizagileak jarri du azkenik txapela.

1.976 - 2 - 6an, halako batean, Amara Berria urbanizatzeko subasta publiko bat muntatzen da. Eta Madrileko Coninsak salneurriak lurrera botaka (71.000.000, merkego aginduz) hirigintza 30 hila-betetan burutzera konprometatzen da.

Bigarren urtea da kale hauk irekita daudela. Lehengo astean, ordea, Eustasio Amilibia (Felipe IV eta Avda. Madrileko tartea) ireki behar zutela eta ekin zioten Coninsa entresako langile urriek. Hauzo elkarteko talde bat, Eustasio Amilibia kalean tinkatu eta makineria eta langileak atzera egitera behartzen dituzte. Udaletxean hauzo elkarteko batzordeari hautsita aurkitzen diren kaleak estali arte besterik irekitzen ez zutela utziko aginduarren Coninsakoek beren maliobretan diraute. Alde bate-tik "obra bukatua" omen delako helpidearekin bota ditu langile erdiak eta administrari eta guzti 30 geratzen dira. Nola demontre, gero, jarriko dituzte kolektoreak, estali eta beteko, hautsita aurkitzen diren kale guziak?

Baina, bizitza bezala materialeak, e.a. goraka bizkorrean doanez, Coninsak "obra bukatua" de-

6. hor.



klaratu du dagoeneko eta udaletxeari beste 80.000.000 eskatzen dizkio sinaturiko baldintzape-nen gaintik Amarako hirigintza burutu ahal izateko.

CONINSAKO LANGILEAK ETA HAUZO ELKARTEA

Coninsako langile batzu berehala hasi ziren Hauzo Elkartearekin harremanetan, obretan erabiltzen diren materialeak merkatzearen oso kalitate txarrekoak baitira. Hauzo Elkartek ardura handiz ikasi izan du arazoa, zergatik hainbeste kostatzen ari den zorioneko eta behinholako urbanizaketa, azkenik txapuza batean lagatzea, adar jotze handitxoa baita. Udaletxeko aparailariak, berriz, ez omen zekien deusik ere. Bestalde, Hauzo Elkartea saiatu da langileei ere laguntzen, zer nolako legeetan enpara daiteke hauzategia tripaz gora jarri eta "obra bukatua" deklaratu, langileak kale gorrira botatzea?

Oraindik orain langile despedituen aldetiko eta Hauzo Elkartearen aldeko batzorde bateratu bat egona da udaletxean. Eta informaketa dokumentatu batez salatu da egoera osoa. Nola liteke, ordea, zartatuta eta printzaturik dauden kolektoreak lurrez estali eta bere hortan uztea! Non dabilta udaletxeko aparailari eta ingeniariak? Edo 400.000.000tako obrak ez du horrelakorik merezi? Eta axal axalean geratu diren tuberiak! Hirigintza Coninsari ordaindu bezain laster hor izanen ditugu berriro geure kaleak batxez eta zuloz horniturik, tuberiak hautsita... eta gaitzak zabaltzeko arrisku bizian.

Gauza hauk betiere hala izan badira, ba da ordua burokratismoak alde batera utzi eta herri kontrolpeak ezar ditzagun. Datozen udal hauteskundeetan alderdi burokratak ez ezik herri kontrolpeko



RUBIAL EDO AJURIAGERRA: BERDIN DA!

eta benetan herrikoi diren ordezkariak hautatzen asmatuko ahal dugu.

Hirigintza hau dela eta, beste bi arazo aipatu beharrezkoak dira, adibidez, hauzategiko 7 enparantza barneak (hitxiak) ez direla urbanizaketa garesti honetan sartzen. Eta plan partzialak dioenez behean parkeialekuak eta gainean belar eta jolas-tokiak behar badira izan, udalak simaurzulo eta arratoi habia bihurtu ditu. Urbanizaketa honek gainera ez digu hauzategiko behar nagusirik ere soluzionatzen (hautzaindegia, jubilatuetxea, kulturetxea, e.a.).

Gauzak horrela Hauzo Elkarteak bi manifestaldi eratu ditu hauzategian zehar hauzoko egoeraren berri tamalgarria agertzeko. Lehenengoan ehundaka batzu bildu ginen, geuron artean deputaturen bat ere genuelarik, kalez kale, enparantzaz enparantza, eta txokoz txoko. Otsailak 25ean, ordea, betikook agertu ginen bakarrik, eta bai asanbladan eta bai manifestaldian ehunen bat ginen 40.000tako hauzategi batean. Amara Berriak ez du erantzuten.

Baina Hauzo Elkartearen Antxon bezalako borrokalariak ditugun artean ez dugu etsiko eta egunen batean hainbeste lan ixilek emanen duten beren fruitua. Urbanizaketan egin diren zenbait oker edo irregulartasunak akta notarialeak jasoak izan dira denuntzia formal bat eratu behar bada ere.

Bihar, ostiralean, Martxoak 3an udalera 4.000-ren bat firma eramanen dira "udalaren plenu" batean Amara Berriko hirigintza buruzko arazo eta irregulartasunak agertu eta soluziona ditzaten.

Hauzo Elkarteak banatu duen informaketa teknikoa lau galdatze edo ondorio hauekin amaitzen da:

- 1) Aipaturiko irregulartasunen konprobaketa agiria, peritatze bidez, e.a.
- 2) Behin okerrak frogaturik, nori dagozkion erresposabilitateak galdatu eta, jakina, horrek oker eginikako obrak zuzentzea darama.
- 3) Ezarritako epeak eta urbanizaketa martxa jarraitzea galdatzen dugu, eta hortarako lehen kontrataturiko langileria ere behar da.
- 4) Hauzo Elkarteak, berriro, batzarrean erabaki bezala, ezarritako portzentaiari zegokionez, kontribuzio bereziak ez ordaintzea baieztatzen du. Halere, lehen bezala elkarrizketa baikor baterako prest gaude.

Alex

Alea jacta est: Ramon Rubial da Euskal Kontseilu Orokorreko burua. Arazoa sortu zenetik, eta bi gizonak (Rubial eta Ajuriagerra) kargu horretarako proposatuak izan zirenetik, batzuk egina zuten beren banaketa: Rubial ala Ajuriagerra. Aurrenak ez daki euskaraz, bigarrenak bai. Ez dago biak parekatzerik...

Goian jarri dudan tituluak besterik esan nahi du. Edonork daki "ala" eta "edo" hitzek esanahi ezberdina dutela. Rubial edo Ajuriagerra, bata nahiz bestea: berdin da! Eta ez dut hau esaten, Autonomiaurreko honen ezereza edo faltsukeria adierazteko edo.

Nekez uka daiteke aukera horrek, politikaren mailan eta Euskal Herriaren etorkizunerako, bere garrantzia izan duenik. Baina garrantzia hori politika orokorraren mailan dago. Bi gizonen inguruan indar politikoak burukatu dira, bakoitza bere ideologia, bere politika soziala, ekonomikoa, kulturazkoa eta guzti. Alde horretatik garrantzia handia izan du bi gizonen arteko hautabeharrak.

Arazoa hor ipini delarik, alde batetakoak eta bestetakoak saiatu dira burruka politikoa eta maila pertsonala bereizten: batari nahiz besteari aitortu dizkiote meritu eta balio aski Kontseilu Orokorreko buru izateko.

Baina meritu eta balioen artean, bat sumatu eta aipatu zuen zenbaitek hasera-haseratik: Rubialek ez zekien euskaraz; Ajuriagerrak bai. Politikazko burrukaren barnean hortxe agertu da behin eta berriro arazo hori.

Zorionez, ez du argumentu horrek eragin berezirik izan, Kontseiluko burua aukeratzean. Izan ere, Rubial Kontseiluburuak ez daki euskaraz; baina zoritxarrez Ajuriagerra Kontseiluburugaiak ere ez daki euskaraz. Atxondoko baseritarren semeak ez daki Euskal Herriko politikari eta Kontseiluko buruari eskatzen zaion euskararik.

Inori buruz, eta bereziki egiteko publikoren bat baldin badu, euskaraz ba dakiela esateak, bere kulturaren eta egitekoaren mailan eta alorrean egoki erabiltzeko dakiela esan nahi da; horregatik Ajuriagerrak ez daki euskaraz.

Euskal Kontseilu Orokorreko buruak euskaraz ez jakitea, iraina da Herri honentzat; baina euskaraz dakielakoan hautatua izan, eta bere ofizioa betetzean euskara erabiltzeko gauza ez izatea bagergarria da berarentzat.

Alde honetatik ni poztu egin nahiz. Euskara ofizialdu nahi dugun honetan, Rubial Kontseiluburuak ez daki euskaraz; eta zorionez nabarmen jartzen du kontradikzioaren bizia. Ajuriagerrak gu guztiok diglosiaren lozorroan uzteko arriskua zuen.



Paulo Agirrebaltzategi

7. hor.

EUSKAL / ERDAL PRENTSA

Asko hitzegin da hortaz, gehiegi ez bada ere. Aspaldion EGINen edo eta Euskal Herriko beste komunikabidetan euskal idazleen irudia eman digute. Polemika horretan ez dugu sartu nahi. *Anaitasunako* irakurlekoa gainera argituegi egonen datekeela ustez. Askotan azaldu du, bai *Zeruko Argiak* bai Guk, euskal prentsa zer den. Gu biok, *Jakin* eta *Herrria*-rekin batera, euskal prentsaren ordezkari bakar-rak gara. Gutatik aparte beraz ez dago salbaziorik, baina gutatik kanpo ba dago euskal literatura eta periodismoa. Bakarrik bageunde konponduta egongo litzateke euskal periodismoa. Guk baino azkarrago adieraz dezakete EGINen eta DEIAN dauden euskal idazleek. Errespetu eta laguntza guztia merezi dute gainera. Euskararen gorabeherak ez zaizkie beraz berauei bota behar. Baina garbi dago behintzat euskal prentsa, euskaraz dagoen prentsa, zer nolakoa den eta zeintzu diren.

Euskaraz argitaratzen duten egunkariak ez dira asko. DEIAk eta EGINek osotzen duten zerrendari, Diario de Navarra eta Diario Vasco egunkariak gehi geniezazkioke, euskaraz zertxobait ere noizean behin argitaratzen baitute. Ezin gonbara daitekeela batak eta besteak argitaratzen duena esango omen da, arrazoa ere ez da faltako. Azterketa hotz batetan lehengoko biek, eta ez besteak, aipamena mereziko zituzketen. Hala ere, euskarazko portzentaiak bai Deian bai Eginen beherantz doaz. Arrazoiak horretarako ez dira faltako. Zeintzu daitezkeen oztupoak ikusi nahi bagenitu, ekonomi arazoak aipatuko lizkigukete berehala. Egin-en edo Deia-ren irakurlegoaren artean, segur gaudеke, euskara ulertu eta irakurri egiten dutenak o/o 15 baino gehiago direla. Kopuru hori apala izan arren zertxobait da. Egunkari bilingualak o/o 50 edo o/o 40 eduki behar du hizkuntza batean zein bestean. Hortik beherantz inongo azterlari serioa ez da ausartuko berak elebiduntzat hartzen. Egin eta Deia beraz, ez dira egunkari bilingualak. Ez dira sekula izan. Kalera irten baino lehen batak zein besteak, euskararen alde, euskaldunen artean, betikoa, hitzaldi pottolo eta propaganda ugari bota zituzten. "Egin dezagun Egin", esan da, gure hizkuntzaz ere aterako den egunkaria. Ezin esan daiteke bestela Deiak eta Eginen ez dutela euskararen alde lanik egin. Ez gara hori esaten ari. Aurrez gaudenekin bide luzea eginik gauzkate, baina subskripzio orduan prometatu zitzaiguna, inondik ere ez dute bete.

Propaganda egiterakoan portzentaiak berdin samarrak izan ziren, gero, argitaratzean, labetik aterako opila, aurrez prometaturiko ezaugarri eta in-

tegrabide guztiak desintegrabide misterioitsuak bilakatu ziren. Askotan ez da minimum dexente be-tetara ere ailegatzen. Ba dakigu egunkariok, diglosia-koak direla, hobe ez!. Baina... ba dira diglosia erre-pretagarriak, zoritxarrez. Nik uste minimum dexen-te bat egon behar dela. Diglosia dexente bat. Gu bezain dexente. Zapalkuntza, hizkuntza ezberdin-baten menpean egotea, bai. Behintzat menpekotasun hori duintasunez eramaten bada... Hori ere ez da betetzen. o/o 15 izan zitekeen euskararentzat menpekotasun duina eta jasagarria oso guttitan ikusten da. Aztertutako hilabete osoan behin ba-karrik topatu dugu portzentaia hori, EGINeko Ur-tarrilaren 17an. Beldur gara Eginen Urtarrilaren kurba aztertzean portzentaia hori berriro ere lortu-ko denik. Kurba hau, gero eta beherantz doa, Deia-koarekin elkartzuz. Azken honek askoz guttiago du. Behin bakarrik, Euskal Herriko informazioan dagokionez, harritu gaitu. o/o 23 euskaraz. Eguna ez zaigu ere ahaztu. Txiripaz edo kasualitatez Abenduaren 28an. Hegoaldean enozentzen eguna hospatzen dugu.

EGIN ETA DEIA BARRUTIK AZTERTZEN

Euskaraz emandako albisteen garrantzi eza nabaritzen da berehala. Egunkari bietan, Deia gal-tzaile, albisteetatiko o/o 99a erdaraz soilik ematen da. (1) Egiako informazioa beraz erdaraz datotki-gu. Euskaraz argitaratzen diren ehun albisteen ar-tean batek soilik du nolabaiteko garrantzia. Beraz, egun batzuetako euskarazko portzentaia ona edo duina izan arren, mamitasun guztia erdaraz etorri-zaigu. DEIAk esaterako, Abenduaren 28an Euskal Herriko horrialdeetan o/o 23 argitaratu zuen euskaraz, benetako albistea ordea erdaraz soilik eman zuen. Orduan, zertan dautza euskarazko albisteak?

Ezin esan daiteke, edozein moztetako albiste-rik publikatzen ez denik, bai ordea, euskarazkoak axolagabekoak izaten direla gehienetan. Euskal Her-rian barne ipini beharko ziren artikuluak, garrantzi-ttikia izanez gero, beste edozein horrialdetan ager-tzen dira. Ba dirudi askotan euskaraz zera duela: Hutsuneak betetzeko funtzioa.

Erdal albisterik ordea ez zatekeen sekula haien ordeztu ipiniko, egunkariari kategoriatik kenduko omen liokete euskaraz ematen direnetik asko erda-

(1) EGINen eta ez bestean, noizean behin, o/o 3tan euskarazko laburpen bat atxekitzen zaio erdal albisteari.

plastar... por la Inquietud

ELKAR ALFABETATZEN: 200 HITZ

Partidos desconvoc

Hemendik aurrera, guri-oiarrak lan gutiago izango duelakoan gaudu. Baina, aurrera ere, batzuk esnatu bakarrik egingo dira eta besteak esnatu, eta lo bada ere, jaki

lizaciones del día cuatro

Optimismo general tras la preautonomía

EUSKARA

Euskaldun basatiak

Urte Berri On

UCD de Navarra quiere negociar

Decisión del Consejo de Ministros de ayer

Conseguida la preautonomía

Navarra se incorpora

Marlon Brando

Gau oilarrak: kukurruku indioen alde telebistan

Funerales con nieve en Goierri y Pamplona

Gure aldizkarietan euskaraz emandako albisteen eza nabaritzen da berehala.

raz ipiniko balira. Beste batzutan, DEIA-ko kasua batez ere, Euskal Herriari buruzko albistetartean dozein gai sartzen da.

“Elkar Alfabetatze 200 hitz”. “Negua negukoa” eguraldiaren gorabeherei buruz, edo eta euskal kulturari buruz dagozkienak. Euskalduna ez denak pentsatuko omen du eta arrazoiz gainera, guri eskaintzen zaigun informazioak bere garra eta baloreak ere ba dituela. Oker dago. Lasai egon daiteke. Gure albisteak, gehienetan arlotekeriak ez badira ez dabilta askotan oso urrun.

Zein konklusio atera daiteke heraz guzti horretatik?

Ba zera, atalez atal emandako euskal portzentia gorenak ez dute askotan balio izango benetako estatistika objektiboa prestatzeko. Euskal Herriari edo Estatuari buruzko albisteak bi alde ezberdin dituelako. Bata erdal albiste, benetakoa, bestea euskarazkoa, axola guttikoa.

Internazional mailan euskara, bestetan bezalako, bigarren moetakoa da. Hala ere tratu hobea dugu hemen euskaldunok. Atal honetan euskaraz-

Koadro honetan euskarazko portzentaia aztertu dira. Datu hauek ez dira exhaustiboak. Adierazpide gisa erabili ditugu.

DEIA						EGIN				
Oso-tara	1. hor.	Euz-kadi	Esta-tua	Gaiak Iruzki-nak.	Oso-tara	1. hor.	Euz-kadi	Esta-tua	Gaiak Iruzki-nak	
Ab. 6	5 o/o	0 o/o	7 o/o	4 o/o	0 o/o	7'5	3	4	2	
Ab. 20	2'5	0	2	2	0	10	1	15	12	
Ab. 22	3'2	0	8	4		7'6	1'8			
Ab. 27							4			
Ab. 28	7'8		23'9	4		5'6	13	1	1	0
Ab. 30	4'6	0	3	3		10	0	3'5	3'5	
Ab. 31	6	0				9'4	6	12	1	
Urt. 3	0'1	0	3'7	6	0	5				
Urt. 4	6'4									0
Urt. 5	3'8	0			0		7	0	2	
Urt. 14	4	6	2'3				5	1'3	2'3	
Urt. 15	3'7	5				15	0	0		
Urt. 17		0			0		8			0
Urt. 18		4			0		4			
Urt. 19		0			30		6			0
Urt. 20		0			0	7'7	7	0	2'6	
Urt. 21		0			0	2'3				
Urt. 22		0			0			0		0
Urt. 24		0			0					

Lehenko koadroan agertzen diren ehunekoak oso-tara hartutako portzentaia dira. Hau da, egun horretan guztira zenbat argitaratu den euskaraz. Bigarrenik, lehen horrialdeko portzentaia ematen dira. Hirugarrenean Euzkadiri dagozkion albisteen portzentaia. Laugarrenean Estatukoak eta bostgarrenean irazkin edo gai periodistikoaren portzentaia.

Batzutan koadroa zuria agertzen zaigu. Egun horretan daturik hartu ez dugulako da. Egunak guztiz azarean hartu ditugu. Ez ditugu beraz euskarazko portzentaia ttikienak aztertu ez eta handienak ere. Guztiz azarean izan da.

ko albistek besteetan baino ugariagoak izaten dira. Ba genekien euskara oso internazionalista zela baina ez dugu pentsatzen horregatik, "ugaritasun" hori horrelako arrazoi artean bila daitekeenik, aitzitik nazioarteko mailak irakurleko guttiago daukalako, tratu hobea merezi du hemen euskarak.

Oso adierazgarria dateke bestalde, euskarari euskaraz egiten zaizkion lausenguak eta gorai-pamenak. Deia, honetan, maisua dugu. Predikua ez da basamortuan eroriko baina 4 plus 4 8 direla ez zaio irakatsi behar unibertsitatean dagoenari.

KONKLUSIOA: Euskal Herrian dauden egunkari guztietatik EGIN eta DEIA dudarik gabe hobeak dira. Bata zein bestea desagertuz gure herri osoaren kalterako izango zen. Ezin dute beraz frakasatu.

Hori gertatuko balitz kakatzen egotea mereziko genuke euskaldunok. Baina ez da dena arrosa eta ez-tia. Gauzak beren tokian ipintzea beharrezkoa da. Ez dugu beraz beste helbururik eduki honekin. Guzti hau, gauza jakina zen noski. Orain nolabait konprobatuago geratzen da. Ez dugu pentsatu nahi, arrazoi ekonomikoak aparte, beste ixilpekorik dagoenik. Hala ere zerbait gehiago merezi dugula euskaldunok segur nago. Euskarak subentzioak eduki behar ditu. Euskaraz argitaratzen diren egunkari eta aldizkariak estatar subentzioak eduki beharko dituzte. Estatu autonomoa Euskal Herriaren aurrean erantzulea da honetaz ere. Subentzioa da soluziobide bat, logikoena gainera. Euskarari kalte egin ziotenek paga bezate orain. Paga biezaiete ezkerreko zein eskuineko egunkariei, paga biezagute euskaraz argitaratzen dugun guztioi.

E. H.

anaitasuna

euskal herriari,
informazioa
euskaraz.

EUSKAL PRENTSA
EUSKALDUNON HITZA

zeruko
ARGIA

GEU
GARA
EUSKAL
PRENTSA

anaitasuna

zeruko
ARGIA



DOÑA PRUDENTZIA ETA IDEALISTA



Doña Prudentziak, edalontzia ahoratzean, minzko keinu bat egin du.

DOÑA PRUDENTZIA.— Zein beroa ekarri didazun!

IDEALISTA.— Min hartu al duzu?

D. P.— Bai, zerbait bai.

Idealistak zigarro bat eskaintzen dio.

I.— Ale, erre ezazu, ea zentzazio hori kentzen dizun.

D. P.— Ba al dakizu? Atzo don Listo nire senarra eta biok "Emmanuelle" ikustera joan ginen.

Idealistak harriturik begiratzen dio.

I.— Horrelakorik!. Ez nuen uste lesbianismoa eta maite zenituenik.

D. P.— Lesbianismoa?. Zer da hori?

Idealistak irribarre egiten du.

I.— Emakumeen arteko maitasuna. Ez al dituzu "Climax" eta aldizkari pornorik irakurtzen?

D. P.— "Emmanuelle" rekin nahikoa eta gehiegi izan dut. Zikinkeria handiagorik!. Ikusi al duzu zuk? ..

I.— Bai.

D. P.— Eta zer iruditzen zaizu?

I.— Filme aldetik ona ez dela. Argumentu pobrea du. Eta porno aldetik, "apertura" ren haseran gaudelako arrakasta duela, baina hi-

labete batzuetara, moral zabalago bat normalizat harturik, ba hori, debekatuaren xarma galduko duela eta jendeak emango dion arrera normala ere izango dela.

D. P.— Eta gaiak aldatuz, ikusi al duzu Euskadiko Ezkerrarekin gertaturikoa?. Zuk horiei eman zenien botua, ezta?.

I.— Bai, horiei eman nien. Pena da, izugarritzko pena, ezker abertzale alderdi guztiak alderdi bakar batean ez batzea. Orain gertatu den zatiketa, Euskadiko Ezkerrarena esan nahi dut, espero nuen zerbait zen. Guretzat, ezker abertzaleontzat, problema bi daude konpondu beharrak: problema nazionala eta problema soziala. Hori EMK eta OIC-koek ez bide dute ulertzen.

D. P.— Zergatik diozu hori?.

I.— Kontseiluaren Lehendakartzaren arazorengatik. EMK eta OIC-koek nahi zuten Bandresen Rubial-i botua eman ziezaion eta ez Ajuriagerra-ri. Beraz, kasu horretan, nazional interesen gainetik soizala ipini nahi zuten. Baina Lehendakartzarako botazio horretan arazo nazionala eta ez soziala eztabaidatzen zen, eta froga bezala hor duzu UCD Rubial-i botua ematen, hau da, burjesek sozialistei laguntzen. Beraz, PSOE eta UCD (biak estatualistak) alde batetik, eta PNV eta EIA bestetik (abertzaleak). Hor duzu botazio hori arazo nazionala zelakorearen froga eta ez soziala. Beraz, EMK eta OIC-ren haserreak, enetzat ez du funtsik.

D. P.— Nire senarra don Listok dio Boltsan oso pozik daudela Euskadiko Ezkerraren krisi hori dela eta.

I.— Noski horrela izango da. Guretzat triste dena zuentzat pozgarri izan behar, gure interesak kontrakoak izanik.

D. P.— Eta orain zer egingo du EIA-k.

I.— Ez dakit. Ene ustez HASI eta Altsatsuko Mahaikoekin elkartu behar litzateke, eta elkartu baino gehiago, batu, alderdi bakar bat egin. Orduan ezker abertzaleak izugarritzko indarra hartuko luke.

D. P.— Baina etorkinak ez lirateke horra joango.

I.— Zergatik ez? Ikus hauteskunde sindikaletan zer gertatu den. Hainbat eta hainbat etorkinek EIA eta LAB-i eman dizkiete beren botuak. Ezker Abertzaleok osa genezakeen alderdi hori langileria osoaren zerbitzutan ipiniko bagenu, etorkinak ere geuregana genitzaiteke. Hori zintzo eta leialki jokatzu lortuko genuke.

Doña Prudentzia ordulariari begiratzen dio.

D. P.— Barka, baina joan egin behar dut.

Idealistak matzurki begiratzen du.

I.— Zer, "Pariseko azken tangoa" ikustera?

Xabier Gereño



KONSTITUZIOAREN LEZIOA

Gure politikarien artean inoiz esan da, Sabino Aranz hasita, euskaldunon etsaia ez dela Madrileko gobernu hau edo bestea, Espainia osoa baizik, hots, azken finean, nazio arteko burruka dela gurea, nazio zapalduak zapaltzailearen kontra darabilen burruka halegia.

Jarrera hau, denboraz, bigunduz joan da eta ñabarduraz zehatzuz ere bai. Zenbaitzuk zera kontraesan dute, ezin jaurtiki dakiokela espainol Herri osoari beraren gobernari konkretuek (eskuindar eta faxistek, hain zuzen) penintsulako beste Herrien kontra egindako ethnozidioa. Euskaldunen etsaiak, hortaz, ez lirateke espainolak, espainol eskuindar faxistak baizik. Eritzi horretakoak dira gaurko alderdi asko, horren kariaz Espainiako Herrien arteko solidaritatea behin eta berriro goripatzen dutenak.

Ba dira beste zenbaitzu, ordea, Espainiako Herrian artean ezberdintasun batzu seinalatzen dituztenak: Herri zapalduak (Katalunia, Galizia, Euskal Herria...) eta orain arteko gobernu zentralisten politikaz beren hizkuntz, kultur eta ethni interesak babesturik eta inoren kaltean —horregatik sekula protestatu gabe— erabat zabalduak ikusi dutenak: espainol Estatuko populazio gaztelauaren gehiengoa halegia.

Hirur jarrera dira, beraz, kontutan hartzekoak: a) euskaldunen etsaiak Espainiako beste guztiak direla uste dutenek (gaur oso gutti, inor baldin bada), b) euskaldun etsaiak espainol eskuindarrak direla diotenek, eta d) gure arerioa Gaztelaren inperialismoan dakusatenak.

Etsaigoa eta zentralismoa eskuindarren akats hutsa dela pentsarazteko, ba dago, egon, zenbait arrazoi: foruak galdu genituenetik hona ez dela Espainian inoiz egon, luzaro bederen, ezkertiar dei genezakeen gobernurik, hain zuzen. Errepublikaz egagutu zuten asko, ordea, orduan ikusiak ikusirik, ez daude hain segur. Orduko gobernu ezker-tiarrak, egia esan, ez zuen euskaldunokiko aurrekoek baino tratatu hobirik erabili. "Kontua da —dioskute baina bigarren eritzikoe— Errepublikako sozialistak ez zirela PNVeke eskuindarrez askorik fidatzen. Orduko gobernuak, beraz, euskaldunen kontra ez, baizik euskaldun "eskuindarren" kontra ziharduen". Honek ez gaitu askorik argitzen, zeren, azken buruan, ba dirudi edozein kasutan ere Madrilek izan behar duela euskaldunoi "zer" eta "nola" izan behar dugun erabaki behar diguna, eta beraren bidetik ez goazenean, gaztiguz, zigorra eman.


Suarezen gobernuak aurreautonomiaren arazoak darabiltzan jukutria, maltzurkeria, baina eta atzerapen susmagarri guztiak, noski, eskuinaren jokatzen hartzekoak dirateke berauen ustez. Ez zatekeen gauza bera gertatuko, jakina, baldin eta Felipe edo Santiago buru izan balira.

Duda-muda guztiok behin betiko klartzeko ordua baina, laster datorke: Konstituzioarekin, hain zuzen. UCDe Parlamentuan gehiengo erlatiboa baldin badu ere, PSOE, PSPek eta PCEk, Katalunia, Galizia eta Euskal Herriko nazionalistekin batera, Parlamentuan gehiengo absolutua daukate horregatik. Beraz, konstituzioa egiterakoan, ezkerren eta nazionalisten pisu berezia, bata bestea bezain autonomista eta autogobernuzale baldin badira behinik behin, aski garbi agertu beharko da.

Ez da dudarik, nik uste, euskaldunok, katalanek eta galegoek ahalik eta autonomia handien lortu nahiko dugula, baina berak, Espainiako parlamentari guztiekiko, ordea, ez dira ugari. Espainiako ezkerri dagokio beraz, berauen alde —edo kontra— egitea. Balantza eskuan dute. Oraingo Parlamentuak moldatu, zuzendu, erabaki eta onhurtuko duen konstituzioak erakutsiko diguke, antza, zein dugun adiskide eta zein etsai euskaldunok. Apostuak gustu guztietarako egin daitezke.

Xabier Armendaritz

KAS-EN ALDE BI HITZ



Pertsonak gaixo jartzen garenean sendatu egiten gaituzte eta ez lur eman.

Gaur, Euskal Herrian hainbat "politikarik" alderantziz egiten du. Izan ere, "politika" klase honek inor askatu orde, euskaldunok lurperatu egingo gaitu: Ezker Abertzaleko jendeak, ezer izan badugu garbi, herri honen askapen bidea KAS-en hildotik zetorkigula izan baita.

ZER DA K.A.S.?

Lehenengoz eta behin, KAS jende multzo bat litzateke joan diren urteetako burrukaren ondorioz burruka dinamika bat asumitu duen jende multzo bat hain zuzen. Esan beharra dago, baita ere, herri honek jasaten duen zampaketa sektorerik sentisibileena dela.

Jende multzo horrek burruka dinamika bati erantzuten diola diogu; azter dezagun bada dinamika hau.

Dinamika honek 1960.etik abiatzen den dekadaren lituzke bere hastapenak; E.T.A.ko hildakoen

aldeko mezak, hilzigorpetuen aldeko burrukak, Burgos-eko epaiketa. Hauk lirateke mugimendu berri baten lehen arnasa hartzeak. Lehen burrukaldi honek 1970.ean joko du tope. Ondoren mobilizazio orokorren apalaldi bat datorkigu bertan burruka gizartearen alor desberdinetan kokatzen hasten delarik.

Lehen burrukaldi honetatik atera daitezkeen bi ondorio garrantzitsuan hauk lirateke:

- jendea burrukan hasi dela, oldartzen hasi dela.

- burruka hau kapitalizatuko dituen erakundearen falta, zeren garbi baitago ordurako zeuden erakundeek ez zutela multzo haundi baten nahia betetzen.

Burutazio hauekin hasten zaigu bigarren burrukaldia 1970.etik 1976.era doana. Lehen esan bezala epe honetan burruka sektorialak garrantzia hartuz doaz eta hori beste arrazoi bat izango da erakundearen falta nabarmentzeko.

Erakundearen faltagatik, eta baita ere faxismoak jartzen dituen oztopoengatik burruka hauek



ezaugarri berezi bat hartuko dute: autoeraketa. Hau da, burrukak ezin ditu inork zuzendu eta ondorioz multzoa bera bihurtzen da zuzentzaile eta eragile. Autoeraketa prozesu honetan sektore honek parte handia izango du.

Burrukaldi berri honen puntu gorenak denon gogoan daude: Gasteiz, Txiki eta Otaegi, Amnistia (KASen linea hementxe agertuko litzateke garbiki) eta Askatasunaren ibilaldia.

Jendeak burrukan ikasten du. Horren frogarik onena epe honetan dakusagu. Hala nola, autoeraketa prozesua aurrera joango da, bere gorabehera guztiekin noski. Batera 1974.ean sektore hau alderdiak eta masa erakundeak sortzen hasiko da: LAIA, LAK, LAB, EHAS. Bestaldetik, ETAn bertan ere zatiketa egon da, Politiko-militarrak alde batetik eta Militarrak beste aldetik geldituz. Gauzak horrela eta Txiki eta Otaegiren aldeko burruken segidan, 1975.eko Hazilean KAS Koordinakundea eratzen da. Gaur egun KAS osatzen dutenak hauxek dira: HASI, LAIA alderdiak, ASK, LAB, herri eta langile masa erakundeak, eta obserbatzaile gisa ETA militarra.

Honaino helduta KAS sektorearen definizio bat ematera ausartuko naiz: "Jende multzo bat, nazional eta sozial zapalkuntzari, praktikan erantzun bakarra emanen liokeena, burrukarako sektore sentibileena izanik, burruka harmatuaren eusle eta frontekadurazko politika baten jarraitzaile agertzen dena."

GAURKO JARRERAK KAS-I BURUZ

1) Alde batetik espainol oligarkiarena dateke: sektore hau eta erreforma politikoa aurrera atera nahi duten sektoreak UCD-en legozke txertaturik; garbi dakusagu hauen jarrera: KAS irlatu nahi dute, beroni dioten beldurra ezin haundiagoa izanik (ikus azkenengo bortxakeriari buruz egindako alderdien bilkurak).

2) Bigarren atal batetan parlamentaristak eta hauen jarraitzaileak legozke. Hauen jokabidea parlamental jokoan murgiltzean datzanez oldarkuntzazko hildorik ez lukete onhartuko, gutiago berau abertzalea izanik. Inoiz mobilizazioak bultzatzen badituzte parlamentarismoaren laguntzaile bezala izaten da. Hemen PNV, PSOE, PCE, alde batetik eta bestaldetik: MC, ORT, EKA, etab. egonen lirateke.

3) Une honetan KAS-en lagun agertzen den euskal sozialdemokrazia genuke, nahiz eta taktika mailan izan elkarkidetasun hori.

4) Laugarren atalean KAS-etik irtendako EIA-PM tendentzia genuke. Hauen ustetan, gaur

egun langile (izan nahi duen) Alderdi batean finkatu beharko litzateke politika guztia, eta gainera Alderdiaren lana litzateke egoera desberdinei atxikitzea, horretarako hildo politikoa bera ere aldatzen delarik. Filosofia honek KAS-en kontra darama praktikan tendentzia hau, zeren lehen genioenez KAS-en ezaugarriak lirateke:

- odarkuntzazko estrategia

- autoeraketaren bultzatzea.

Praktikan tendentzia hau ezaugarri hauen kontra doa, eta neurri horretan, KAS-en kontra. Ez dakigu kontra egiten noraino helduko den.

KAS-I BURUZKO JARRERA JATORRA

Ez dakigu Euskal Iraultzaren prozesua nola emango den: erritmuak, denborak, etab.

Gaur arteko historiari, ordea, ondorioak atera ditzakegula uste dut:

- Abertzale Iraultzaile mugimenduak bere ideologia birbaieztu duen bakoitzean sendoago atera da beti, ideologia eta politika mailan sendoago.

- Bestalde, sektore honek lortu egin du orain arte herria alternatiba batzuren inguruan batzea, beraiegatik burruka dadin.

Bestalde, garbi dakusagu ehundaka kontraesanak ditugula oraindik, horien artean garrantzitsuenetarikoa bat barnemigrazioarekiko problematika delarik: Nola irabazi sektore hau ideologia eta politika mailan Euskal Herri Independenten eta Sozialista batetarako?

Baina une honetan KAS ukatzen ez dugu uste ezer irakazten dugunik, eta bai ordea, galera handiak izango ditugula uste dugu. Lehenengo galera sektore abangoardia honen deuseztatzea litzatekeelarik, frustrazio bidez (gaur egun sintomak agertzen hasiak dira).

Guzti honengatik baieztatzen dugu KAS-i buruzko jarrera jatorra gaur egun sektore honen bultzatzean datzala beronen ezaugarriak asumituz eta bultzatuz; hau da, oldarkuntzazko estrategia bat eta herri eta langile autoeraketarako estrategia. Baieztatzen dugu, baita ere, une honetan zuzendari politikoa bakarrik KAS (Koordinakundea) izan daitekeela, bertako alderdien ginetik eta Euskal Iraultzak ematen digun berezitasun hau asumitu beharra dagoela baldin eta Euskal Herriko langileen Euskal Iraultza egin dezaten nahi badugu.

Gaur, Euskal Herriari egin diezaioketuen mesederik haundiena KAS sendo bat eskaintzea litzateke, hauxe baita Euskal Herriko Iraultza Sozialistaren Eragilea.

Mendizabal

HAUTESKUNDEAK ETA MILITANTEAREN JARRERA.



Nekazariak elkarrizketan. Eta hauk nork zapaltzen ditu? Nork ditu sarreraziko benetako askatasunaren bidean, guk Euskaldunok ez baditugu egiten?



iparraldea

Hauteskundeak heldu zaizkigu Iparraldearentzat. Bistan da, frantses hauteskundeak, frantses politikarientzat eta frantses politika indar guzientzat. Hots, guretzat, Euskaldunentzat kolonialisten joko politikoan murgilduta gabiltza. Hau ere frantseskeriaren sentierazteko manera egoki bat: frantsesak garelako eta gure zerikusia ba dugula frantses gazetan. Horregatik, gaur gure belarri eta begi guziak Parisera begira dagotzi. Batipat, andere telebistaren bitartez.

Populuaren benetako interes guzia Parisen eta Parisera doa: Giscard, Chirac, Mitterrand, Marchais, etab... baina hauetan zer interes dadukagu Euskal Herriaren hauteskundeentzat? Ezer gutti! Hona gure errua, izan gaitezen sindikalari, nekazari, bankulari, komertsiolari edo nik dakita zer, denak Parisera buruz gaude. Ez ote da jarrera hau okerrezkoa? Ez ote digu jarrera honek aitortzen geure alienazioaren sakontasuna? Euskal askatasunari buruz dugun ahaztueria eta axola ttipia? Bai, hau denok gure frantsesestahunaren manifestagarriak zaizkit. Hemen nabari zait bidea luze dagoela, lan asko egin behar denik eta langile gutti. Hau da nire lehen oharpena.

Bigarren oharpena lehenak dakar eta da, gine-lako kolonialismoaren menpetasunean. Errealitateak hau digu agertzen egun guzietako urratsetan zehar: irratan, egunkarietan, telebistan etab... eta frantsesak gaudenez gero, guk ere geure zerikusia dugu. Baina ez ahal da joko hau oso arriskugarria? Egia esan, hala da! Zergatik eta norentzat? Ikusten ditut joko honetan murgildurik hiru Euskal gizon kategoria: bata guziz alienatu eta bere burua frantses dadukana (100 etarik 60), bestea, beren burua Euskaldun daukatenak baina une honetan frantses politika ezkerrekoaren aukera egin digutena (100 etarik 25) eta azkenak euskal politika huts hutsean

gabiltzanok (100 etarik 15). Mintzo naiz batipat Euskal Herri barnearentzat. Dena dela, honetan agertzen da, kolonialismoak uste baino sustrai sakonagoak dituela. Adibidez, asko nekazari gazte frantses nekazarien sindikaren barnean dabilta eta azken urte hauetan oposizio gogorra ere agertu beren buruzagiei. Ezin ulertuzko jarreran topatzen ditugu hauteskunde hauetan: mobilizazioan sartu nahi eta ez sartu nahi, politika militantismoa laudatzen eta politika militantismorik ez egin nahi. Guziz zalantzazko jarrerak. Sindikalismo apolitiko baten izenean politika mailan ezer egitea aukeratu dute batzuk eta hain zuzen ezer ez eginez frantses ezker-eskuinaren jokoa dute egiten. Egiaz, lastimazko jarrera, negatibo hutsa. Esan ezik, bakoitzak ditu bere arrazoizko ezinhobeak: oinarrizko populua ez dagoela prest, ez dela militantismoa populua gandik baztertu behar, urrats bat bestearen ondotik egin behar dela etab... Baina, denbora berean Euskalduntasuna ezinago lehertuta dagoenean, gazteak trumilka atzerriratu behar duenean, nekazaritza hiltzorian dagoenean, ez ahal da aukera argi eta garbi baten ordua etorria? Ez ahal du bakoitzak bere politika aukera agertu behar guziei eta beldurrik gabe? Ezen, honetan baita arazoa, asko eta asko Euskal Herriaren alderako aukera politikoaren manifestatzeko beldur direla.

Egia esan, ingurumena ez zaigu horrelako aukera baten alde agertzen baina bai kontra. Iparraldean, Euskal Herriaren aukera ez dugu oraindik errentable. Errentable dugu batipat eskuinaren alde izatea, orduan ukanen baita kontsiderazio, entzule eta estimu. Hori bilatzen ahal dute "Euskaltzale" zenbaitek? Nekazari sindikalari "euskaltzale" zenbaitek? Dakusagu hemen, aukeraren arazoan gabiltzala, bistan dena politika aukeraren arazoan.

EUSKAL HERRIAN



Nekazarien izerdien eta sofrikarioen fruitua,
Inchauspe-ren Jauregia.

Esan ezik beraz, aukera hau ez dela garbia, ezezkoa dela eta horregatik kalte egingarria. Ez dut uste zalantzaren eta dudaren mementua denik baina da oroz gainetaik hautu argiarena. Iparraldea borrokari afirmatuen behar gorrian dago eta bistan da ba direla, nun dira? Eta noiz eginen digute politika alorrerako jauzia? Agian, denak ito aitzin! Agian laster!

E.H.A.S.ekin:

EHASek bere aukera argi eta garbi agertu digu: lana Euskadin, autonomia, euskal populuaren askatasuna borrokaren bidez. EHASen jarrera positiboa zait, kolonialistaren jokoaz baliatzen da, honen konstituzioaren lege politikoak beretzen eta hauen bitartez Euskal Herriaren arazo politikoak plazaratzen. Esan ezik, denak, militante eta borrokari bakoitza, benetako aukeraren aurrean ezartzen dituela. Ezin daiteke beraz harri era guzietako jarrerak topatzen baditugu.

Zenbaiten esan digute EHASek ez zuela presentatu behar eta abstentzioa eskatu behar zigula. Baina dakusakegunez EHASek ez digu horrelakorik egin, batipat abstentzioaren aukera, kontestu politiko honetan, negatiboa delako. Gainera, esan ezik, demokrazia irudi guzietan jabetu egin behar dela eta hauekin ideiak, gure asmoak berak plazara-

tu. Jendearekin elkarrizketaren sortzea, helburu politikoaren lantzea, egin behar konkretu batzuetara denak bultzatzea, oso gauza positiboak dira, eskutarik eskapatzera utzi behar ez direnak.

Hala ere, egia zaigu Alderdi politiko batek ez duela berak bakarrik iraultzarik egiten ahal, guzien aspirazio bat elkartzeko eta biltzen ahal baizik. Horregatik, esan genezake garaituko dugula, euskal arazoa majoria baten gauza bihurtuko denean, Gaur, minorian dira borroka hau daramatenak, baina honek ez du esan nahi minoria honen idealak balio ez duenik. Idealak bere balio sakona oraindik daduka eta bihar majoria bat lotuko, josiko zaionean bere balio ageria, batipat orokorra guzietan izanen zaie. Ez du beraz, Iparraldeko borrokariak konplexatua izaterik.


BESTE ALDERDIAK:

Beste alderdiak dira frantsesak, eskuineko, erdiko eta ezkerreko. Esan beharrik ez, ezkerreko eta erdiko (C.D.S) alderdiek ere ba dakitela euskal populuaren arazoetaz jabetzen: artzainetaz, nekazarietaz, langileetaz, denetaz hitzegiten digute inoiz egin ez duten bezala. Hots, borrokaren mailan ez zaizkigu biziki agertu baina elearen mailan agertzen dira.

Inchauspè jauna, hau atrebituago dugu: hitz gutti eta diru asko. Hain zuzen, gaitzeko ilusio demokratikoa sartu digu Baigorri eta Garaziko kantonamenduetan "Contract de Pays" honen bitartez. "Contract de Pays" edo "herrialdeen arteko kontratu" dakarkigu diru alde bat oso estimagarria 450 milioi zahar. Diru hau emana da, bakarrik Frantziako herrialde gaixoenei (esan ezik gure gaixotasuna sakona denik?). Iparralde guzia mugimendu eta ezinegon gaitzko batek harturik bezala ari zaigu. Biltzarre bat hemen, beste bat urrunago eta horrela Inchauspe-ren propaganda aurrera doa. Asko ezkerreko gazte biltzarre hauetan dabilta beste guzietan batera. Zergatik? Elkarrizketa guzietan jabetu egin behar dela erantzun digute, jendeari benetako arazoak agertu eta aurrera eramanez. Ez dut ulertzen zergatik mobilizazioa maila honetan eta biltzarre hauetan hain argi dagoen eta nolaz ez dagoen berdin izaten ahal Euskal politikaren mailan. Edo bestela ezin dezakegu ezer egin Inchauspe-ren eraginekin aparte eta honen benedizio ofiziala gabe. Inchauspek baieztatuko ahal gaitu zapaltzaileen aurkarako borrokan ere?. Kontradikzio bat gehiago.

M. L. UHAITZE

HARRI BATEKIN HASI ZEN



zure aurrezkien banketxea



BANCO DE BILBAO

gizaldiz gizaldi aurreratzen

EUSKAL HERRIAN



IPAR EUSKAL HERRIAN: EUSKAL MIGRAPENA.

Iparraldeak pairatzen duen koloniar egoera, beste arrazoi artean, langeldiketa handiaren erruduna da. Frantziako boterea gure ipar euskal herri osoa zelai berde polit eta baketsu bat bilakatzen ari da. Finean, bilakatze oso hau turista eta zahar aberats batzuren zat izan nahi du. Era honetara edozein desarroilo ekonomiko edo eta humanoa blokatu agertzen zaigu. Nekazariak herriak eta bordak uzten dituzte, gazteriak ezina du bertan bizitzea, tradiziozko industriak ttikiak porrot egiten duten artean, kostaldeko lantegi zahartuak, bata bestearen atzean atea hersten ari dira. Hiru lantegi daude oraindik zutik. Bata Baionan beste biak Angelun eta Mugerren. (Dssault-Breguet, Turbomeca, Sat) baina hau kanpoko aginduei eta esanei loturik daude.

Aspalditik ere, Euskal Herriak migrapena zer den oso ongi ezagutzen du. XLXgarren mendean gazteak Ameriketara joaten ziren. Garai hortako amerikanoak oso famatuak ziren Euskal Herrian zehar. Amerika zenbait euskaldunentzat orduko



(1) Emigrantes.

mitoa zen, ondasunaren iturria. Baina egiaz Amerikan zeudenetariko askok eta askok miseria eta pobrezia gorriak ezagutzen zituzten, mendian bakkarik, bordetatik bordetara, artzain gisa, diru oso gutti irabaziz, eta irabazten zena farra batetan ahi-tuz, berriro ere mendira jo behar.

Honetatik guztionetatik aparte, gure Euskal Herri honek langileria merkea eskaini du Frantzian zehar, batez ere industriguneak zeuden tokitan. Frantziako burjeseriari neskame, zerbitzari eta morroi ugari eskaini dio Parisen, Bordelen eta beste zenbait tokitan. Honela Nafarroa Beherea eta Zuberoko herriek ikaragarriko husteak izan dituzte.

Hona hemen adibide batzu:

(1) JOANKOIAK: 1832-1836: 828
1846-1855: 16.111
1884-1931: 16.421

Populazioa. Amikuze: o/o 44 guttiago (1846-1962) periodoan.

Garazi: o/o 55 guttiago (1876-1962) periodoan.

Gaur egun migraketa ez da oraindik gelditu. Urtero, milatik bi mila gaztek inguru Euskal Herrikan kanpora joan egin behar dute. Arrazoiak betikoak dira. Ipar Euskal Herrian ez dago lanik. Honela, Nafarroa beheko eta Zuberoko populazio guttituz doa eta ondorioak oso grabeak dira. Era honetara segituz gero, Barne Euskal Herriak euskaldunik gabe geratuko da laster. Euskal luraren salmenta jadanik hasia dago. Euskal gogoa eta arima ere salgai dago. Likidaketa oso merkea baita.

1962-1975 C eskualdea (Basoa): - 17'58
o/o (14.321 bizilagun).
B eskualdea (mendiska):
- 3'78 (46.304 bizilagun).

A eskualdea (Kostaldea) populazioz hazten ari da. Hazten den eskualde bakarra dugu orduan. Hazte horren kausa nagusia Frantziatik datozen erretiratu aberats eta turistena da. Barneko jendeak ere kostaldera migratzen du.

A eskualdea - o/o 19 (165.957)
Migraketa handi honen ondorioarengatik Frantziako hiri nagusi guztietan euskaldun asko aurki daiteke.

Parisen: 30.000 euskaldun
Bordelen: 15.000 euskaldun
Paben: 10.000 euskaldun
Tolosan, Lyonon, Marsilian...



“GURE KANPAINAK”



Hauxe izango ote da Ipar Euskal Herriko etorkizuna?

Honetariko zenbait 20, 30 urtetatik hona bertan bizi da. Beste batzuk denbora guttiago daramate. Azkenez beste zenbaitzu joankoiene seme-alabak dira. Bertan jaio eta haziak. Gehiengo honek behemilako lanbideak ditu: enpleguak, langileak, peoiak, funtzionari tikiak, etab...

EUSKAL HERRIRATZEA: Hortaz guzti orok pentsatzen dute. Baina beti zaila, difizila, ia gehienetan bete ezinezkoa. Herriratzeak gibelatzen dira beti. Itxaropena behin eta berriro zapuztu egiten da. Egon behar da. Itxaron behar da. Erretiraketara arte gehienetan. Eta Herrian etxea saldurik badago? Etxerik gabe, gure gaur eguneko prezioetan! Batzutan, iragan ezinezko oztipoa bilakatzen da... ba dakizue, espekulaketak eta...

Bitartean bakantzetan ikusten da Euskal Herria, turistek betetako Euskal Herrian, turistek itoriko Euskal Herrian.


Oztipo asko izan arren, zenbait euskal elkar-tek Frantziako hiri handietan euskal gogoa sostengatzeko lan handiak egiten ari dira (Euskal etxeak, Euskaldunak, Pariseko biga, Bordeleko agurra, Pabeko laguntz eta Maitia etab.). Honela ba, leku guztietan zehar ba dago euskaldunen artekoak, kultur taldeak, dantza taldeak, euskarazko eskolak etab...

Baina orain arte gure Iparraldeak duen gogoan eta espirituan finkaturik zeuden ekintza guzti hauek. Despolitizatuak, gogogabeak, arduragabeak euskal migratu gehienek euskal kontzientzia apur bat ukan arren ez dute kontzientzia abertzalerik izan. Abertzaletasuna ez zen nabaritzen. Baina emeki emeki Hegoaldearen garrasia eta iparraldeko burrukak esnatzen, irartzartzen ari dira euskal migratuak. Ezker abertzaleen mugimenduak eta euskarazko garaipenak asko lagundu diete.

Jakina, guzti hau eskasa da oraindik, eskasa eta aldakorra baina zihurra da behintzat Ipar Euskal Herrian hasi den burrukari gero eta migratu gehiago lotuko zaiola. Egin behar dena beraz, zera daitake: Migranteentzako hiri horietan euskaldun kontzientziatuen zelulak egin. Honela eginez migrapenaren batasuna lortuko da, zeinek Euskal Herriaren bizitzeko eskubidea eskatu eta inposatu ahal izanen duen. Abertzale sozialistok proposatzen dugun bidea da berori. Oinharri horietan finkatuta HASI-EHASeko taldeak orain duela hiru urtetatik hona honelako burruka aurrera eramane du. Nolabait bazterturik ibili ondoren gure “gehtto”tik irteten ari gara. Migratua gero eta gehiago interesatzen da gutaz. Bidea luzea eta hestua izanen da. Hola da ere Iparraldean.

A. I.

Manex Goyhenetche:



Mugaren beste aldean, "Elections Législatives" barruko kanpaina aurrera doa. Hauteskunde hauetan 4.200 kandidatu aurkeztuko dira Pariseko lauhunen bat zizeiluak betetzeko. Ezker eta eskuin aldetako alderdiak jo eta ke dabilta beren gizonak, beren izenak, zizeilu horietara helerazteko. Zizeilu bakoitzerako ia hamar kandidatu dago eta, jakina, hor dabilta kandidatu eta alderdiak ia ia muturjoka.

Mugaren beste aldeko abertzale sozialistek ez dute zizeilu hauetara heltzeko esperantzarik, baina hauteskundeetan parte hartu nahi izan dute. Bi dira abertzale sozialisten kandidatuak (beste bi, ordezko modukoak). Lau abertzale sozialisten izenak hauk ditugu: Larçabal eta Lanathoua, Ipar Euskal Herriko barnealdean eta Massigoge anderea eta Manex Goyhenetche kostaldean. Hauetariko batekin, Manexekin hain zuzen, izan dugu geure elkar ikuska.

ABERTZALEEN ZERGATIAK

Manex gizon ireki bat da. Bere Baionako etxean hartu gaitu, kanpainaren hasieraren bezperetan. Etxeko atarian, egun hauetan zabalduko den propaganda piloa ikusten dugu. Etxe aurrean kanpainan erabiliko den autoa dago, ikurrin batez horniturik, beste aldean EHASen bandera gorria daromala. Afitxa batzuk betetzen dituzte autoaren lau

aldeak. Hizketan egiten dugun artean, Manexen seme koskor batek Urkoren abestiak entzuten ari da kaxete batean: "Zazpi euskal herriek bat egin dezagun...". Manexen euskara baketsua eta argia da.

— Zergatik parte hartu nahi duzue abertzale sozialistok hauteskunde gogor hauetan, Manex?

- Hauteskunde hauetan, beste batzutan bezala, talde politiko guztien botzak entzungo dira Iparraldean, baina ezberdintasun bat izango dute: abertzale sozialisten botza ere gure kostalde eta barrualdeko herrietan entzungo da. EHASek eta beste abertzale sozialistek ere ikuspuntu abertzaleak nahi dituzte azaldu.

— Abertzale sozialisten botza ez al da txiki-gia izango, beste talde politikoen medioen aurrean?

- Errealistak gara. Ba dakigu ez dugula ezer lortuko politika mailan eta gure ordezkariak ez dela Pariserara helduko. Hau ez dugu helburutzat, noski, baina zera nahi izan dugu: beste alderdi politikoek, bai eskuinekoek, bai ezkerrekoek, "euskal arazoa" ez erabiltzea beren programetan. Guk, problema jeneralek, abstraktuek —lan gabezia, kolonialismoa, zentralismoa etabar— Euskadin ondorio larriak ba dituztela agertu nahi dugu. Arazoak gure errealitatean nolakoak diren azaldu nahi izan ditugu.

PANORAMA

— Zenbat talde politiko dago Ipar Euskadin?

- Frantziako Estatu barruan mugitzen diren talde guztiak ditugu hemen. Eskuinetik hasirik, Front National eskuin muturrekoa eta U.D.R. eta C.D.S. (Centre Democratique et Social) eskuindarrak, Lecanuet, Giscard eta Giracen jarraitzaileak. Eskuinean ere, noski, gaullistak ditugu. Gero, ezker aldean, sozialistak eta komunistak daude eta, ezker muturrean, hainbat taldetxo. Hemen ere ezker oso zatiturik agertzen da.

— Iparraldean, zeintzu dira talde hauek presentatzen dituzten izenak?

- Gaullistak Letamendia eta Intxauspe dira, giscardiarra Bernard Marie; sozialisten artean Maitia jauna dugu eta Destrade jauna kostaldean.

— Ipar Euskal Herria, nola dago zatitua hauteskundeetan?

- Batu dutenak 150.000 pertsona dira. Hauetariko 100.000 kostaldeko 27 herrietan eta beste 50.000 barneko 130 herrietan.

“AUTONOMIA ESKATU DU GURE KANPAINAK”

– Lehen aipatu duzunez, alderdi politiko guztiek euskal arazoa erabili nahi dute...

- Bai, horrela da, denek euskal “aurpegia” agertu nahi dute beren kanpainan, eskuinetik hasi eta ezkereraino. Letamendia eta Labeguerie jaun-en kanpainak batez ere, euskal kutsua izan dute, baina gaur egun Labeguerie jaunak, adibidez, ez du inor engaiatzen. Zaldi zaharra da.

– Eta zer diozu ezkertiarrei buruz?

- Gauza berdina. Sozialistek eta komunistek Parisen egindako kanpaina berbera egiten dute gure artean, nahiz eta batzutan euskal aurpegi hori agertu nahian ibili. Hegoaldeko hauen joera ondo ulertuko duzue hemengo P. Socialiste Espainiako PSOE bezain “euskalduna” dela esaten badizuet. Eta ba liteke Espainiakoak “euskaldunagoak” izatea.

– Eta komunistak, zer?

- Horiek ere Parisen egindako programa erabiltzen dute, baina sozialistak baino gutxiago dira. Ez dute indar haundirik oraindano, nahiz eta kostaldean Bokale herri koskorrean (5.000 lagun) beren toki gogorrena izan. Barnealdean Maule dute beren leku nagusia.

– Nortzu dabilta ezker muturrean?

- Lehen esan bezala, hemen indarrak oso zati-tuak daude: LCR eta Lutte Ouvrière dira trotskia-

rrak eta ba dira maoista batzu ere, baina guztiak minoritariak dira.

EHAS: AUTONOMIA

– Ikus dezagun orain EHASen tokia non dagoen, panorama honen barruan...

- EHAS eta abertzale sozialistentzat hauteskunde hau oso garrantzi handikoak dira, gure ikuspuntuak zabaltzeko okasio bat izango baitira. Abertzale sozialista talde bat izatean, gainera, Iparraldeko benetazko problemak geuk agertu eta aztertuko ditugu eta horrela zulo bat beteko dugu: beste alderdiek betetzen ez dutena, euskal alderdiak ez izatean. Talde horiek euskal kultura, euskal departamendua eta Euskal Herria aipatzen dute, bai, baina ez dute Euskadi bere marku bezala onhartzen. Guk Autonomia eskatzen dugu eta arazo guztiak Euskal Herrian sustraitzen ditugu.

– Autonomia Frantzian eskatzea ez al da gehiegi?

- Horrela pentsatzen zuten alderdi askok eta gure autonomi eskea entzutean irribarre egiten zuten. Baina, ikusi dugunez, euskal jendeak autonomia onhartzen du. Autonomia hau, noski, oso mugatua da, lege barrukoa da. Hitz laburrez, Autonomia zera izango litzateke hemen: Ipar Euskal Herria bat bezala hartzea, Biltzarre batez gidatua izatea. Lapurdik, Zuberoak eta Behe Nafarroak lurralde bakar bat osatuko lukete, administralgo aldetik. Arlo politikoan, Biltzarreak hizkuntza, kultura eta gestio mailetan erabakiak hartuko litzuzke eta, ekonomian, lurren kontrolari, banku sistemari eta plangintza orokorrari ekinen lioke. Kultura mailan euskararentzat ofizialkidetasuna eskatzen dugu eta baita ere telebista, irrati eta berriemanbide euskaldunak. Beste taldeek ez dute inoiz horrelako planteiamendurik egiten.

– Autonomia eskatzea ez da, orduan, gehiegi?

- Ez. Frantzian bertan Bretainian, Okzitanian eta Ipar Katalunian autonomia behar beharrezkoa dela gero eta jende gehiagok onhartzen du. Administralgoa Parisetik gure herrietara ekartzea ez da nahikoa eta gainera, ez da horrelako gauzarik oraindano egin. Gaur Ipar Euskal Herria “Atlantique” departamenduan sarturik dago eta administralgo arloan gauzak gero eta okerrago doaz. Iparraldea guztiz kolonizatua dago gaur: lurralde gehienak paristarren eskuetan daude. Urruña, Ziburu eta beste herri batzutan lurretako o/o 40a paristarrek erosi dute; nekazaritza mailan, Pariseko konpainiek erosten dute gure arto eta esnea.



Ipartarrek kanporamigrazioa aukeratu dute, lantegi askok jendea kaleratu baitute: 1962. urtetik 1973. urtera, 8.000 euskal langilek galdu zuten lanpostua. Esandakoa: kolonialismo hutsa sufritzen ari gara.

ABERTZALE SOZIALISTAK

— **Nola ikusten dute beste talde abertzaleek zuen kanpaina eta hauteskundeetan parte hartzea?**

- Errespetatzen gaituzte, nahiz eta talde batzuk alferrik gabiltzala pentsatu. Hala ere abertzale sozialista independente asko parte hartzen ari dira kanpainan, EHASekin batean.

— **Zenbat militante du zuen alderdiak Iparraldean?**

- Militanteak 90ren bat izango gara, kanpaina egiten ari garenok, eta beste berrehunen bat izango gara.

— **Sozialisten eta komunisten artean dabilzan militanteek zer diote abertzale sozialisten kanpaina ezagutzean?**

- Batzu harriturik gelditzen dira eta, gure ustez, partidu horien gaurko militante batzu gureak izango dira bihar. Orain arte ez dute gure alternatiba segitzeko biderik izan, ez baitzuten ezagutzen. Jeneralki, orain pertsona asko zera ikusten hasi dira, Parisen egindako programetan eta Parisetik etorritako liderren hitzaldietan gure arazoak zeharo ahanztuak zeudela.

— **Lider horiek, zer diote Ipar Euskal Herriari buruz?**

- Lider horientzat ez dago Euskal Herririk eta ausartienez zera diote, hemen "Euskal Departamendu" bat egin behar dela, gehienez. Beste batzuk "euskal kultura" indartu behar dela esan beharrean, "herri kultura", "culture populaire" sendotu behar dela diote. "Euskal" hitza ez dute aipatzen ere.

DESABANTAIL HAUNDIAK

— **Kanpaina egiteko taldeek dituzten bideak berdinak al dira? Nola erabiltzen dituzte telebista eta irratiak?**

- Telebistan eta irratiaren egunero minutu batzuk agertzeko eskubiderik ez dugu. Eskubide hori izateko gutxienez 75 lagun presentatu behar ditu talde bakoitzak Estatu mailan. Arau honek guri eta gu bezalako alderdi "erregional" txikiei telebista

eta irrati medioetatik kanpo uzten gaitu. Ezker eta eskuin aldeko liderrak egunero medio hauetan agertzen diren artean, gu ezin gara ezta minutu batez agertu ere.

— **Zein medio erabili duzue abertzale sozialistok kanpaina barruan?**

- "Euskaldunak" aldizkaria erabili dugu, 80.000 ale inprimatuz. Panfletoak, afitxak eta paperak ere egin ditugu. Baita ere eranskailu bat, Auto bat ere erabili dugu, goragailu batez. Goragailua erabiltzeko baimenik ez dugu, goragailuak kanpainan erabiltzea dabekatua baitago. Multaren baten beldur gabiltza. Atzo bertan polizia gure autora hurbildu zen baina ez zigun ezer esan, baina beldur gara. Batzuk telebista, irratiak eta dirua beren eskuetan eta guk, ordea, goragailurik ez...

"ENBATA"REN JOERA NAHASIA

— **Zer dio "Enbata" taldeak eta aldizkariak zuen parte hartzeari buruz?**

- "Enbata" k joko nahasia izan du azken denboretan. Bere notabilismo mailan gelditu da. Erakunde interklasista bat bultzatu nahi dute, Quebeciarren adibideari jarraituz. Lehen gure kontra zeuden baina orain, gauzak seriooki egiten ari gara ikustean eta jendeak entzuten gaituela nabaritzean, gure alde jarri dira. Zentrista guztien joko ezaguna egin dute Enbatakoek. "Autonomia" hitzak beldurtzen ditu.

— **Eta zer egin dute P. S. eta komunistek?**

- Militanteei gure kontra hitz ez egiteko kontsigna zabaldu diete.

— **Nola erabili duzue euskara zeuen kanpainan?**

- Geure paperak euskaraz eta frantsesez egin ditugu, baina ez frantses hitzak euskaratuz, baizik eta hizkuntza bakoitzean gai ezberdinak eginez.

— **Zein eratako euskara erabili duzue?**


- Euskara literari bat, batuaren antzekoa baina batu "klasikoa" ez dena. Guk ezer eskatu gabe, bertsolari batzuk gure alde jo dute kanpainan, bertsoen bidez. Xalbadorren semea, Michel Aire, dugu horietariko bat eta Mendiboure beste bat.

— **Amaitzeko, geroari buruz zure eritzia...**

- Erakunde abertzale ezkertiar bat lortuko dugu. Kanpaina hau lehen urratsa izan da.

X. A.

ANAITASUNAREN OHARRA



Etxe honetan ditugun zenbait arazo konpontzeko asmoz erabaki konkretu batzu hartu izan ditugu. Irakurle guztiek jakin dakizue zenbaitetaraino ahula den gure egitura, bai ekonomikoa eta bai administrazioa. Beraz arazo hauk uztartu nahirik eta pentsatuz epe luzera gure irakurleentzat hobe izanen dela, erabaki dugu gure fitxa guztiak erregularizatzea. Honela bada, eta aurrez jakinik hainbeste aldiz molestutzen zaituzteguna beste batetan egiteak inportantzia gutti izanen duelakoan; eskatzen dizuegu gutun batez edo eta telefonoz:

1) Egina duzuen harpidetza berriro baieztatzea espezifikatuz zuen helbidea eta bankuko kontu irekia.

2) Etxea aldatu baldin baduzue helbide berria komunikatzea.

3) Ez badituzue erregulariki gure zenbakiak jasotzen, hau ere komunikatzea, zeren Posta eta bankuak dela eta hainbat istilu larri baititugu.

Azkenez, eta, barkamen berriro eskatuz zera ere diogu, hots, bost hilabetez —hamar zenbakitant— iraunen duela ohar honek Anaitasunako horrialdeetan, geroztik berririk espresa ez dutenei harpidetzako txartela kendu egin beharko diegu. Noski, esan beharra dugu ere aurtengoa pagaturik dutenei ez zaiela fitxarik kenduko, baina hala ere komeniko litzaiguke arestian esandakoa konplitzea.

Beno, hori zen guztia. Gu ere krisisean gara.

Bete ezazu ondoko hau eta postaz bidal

Harpidetzari jarraitzen diot

Bai
Ez

Zaharra _____

Helbide _____

Berria _____

Bankuko zenbakia
Harpidedunak egin ditzakeen oharpenak

Euskara ikasten ari bazara,
alfabetatu nahian bazabiltza,
segi iezaiozu gure seinaleari,
ez dira hemendik aurrera faltako.



Opus Dei eta guk
jakin gabe!

Balaguer hori, Zirarda
baino erdirakoiago
izango da, agian.



UCD-k ALDIZKARI BERRIA

Nafarroako UCDk eta Opusek aldizkari berri bat argitaratu nahi dute. Aldizkari honen izena hau da: "Nuestra tierra".

Lau hilabete baino gehiago daramate aldizkaria prestatzen. Ba dirudi aldizkari inportante bat egin nahi dutela. Horretarako, UCDko pertsonaiak diru eskatzen ari dira. Eta uste dut nahiko diru lortuko dutela.

Hasieran gaizki xamar ibili ziren UCDko promotoreak, baina orain, Opus sartu da projektu horretan, eta bi sektore hauek gorputz bat egin dute.

Baita ere, batzuk esaten dute, Diario de Navarra-ko akzionistek parte hartu nahi dutela. Gainera, "Huarte y Cia" entpresak ere dirua eman du.

Denok dakigun bezala, empresa hau, Huarte jaunarena da. Eta kapitalista hau ETAk sekuestratu zuen, orain dela urte batzu.

"Nueva tierra" aldizkariak bi sekzio ukango

ditu Errioxari eta Aragoari dedikatuak. Eta normala den bezala, Euskal Herriko beste probintziei ez die sekziorik dedikatu.

Aldizkari hau, "Punto y Hora"-ri kontra egiteko sortu nahi dute UCDkoek eta Opusekoek. Horretarako, Opusen bankuek nahiko diru emango diote.

Orain arte izan den zuzendariak dimititu egin du, numero zerorik ez duelako publikatu. Eta orain, zuzendari berri bat bilatzen ari dira aldizkaria martxan jartzeko. Horretarako, administral kontseiluak delegatu bat nombratu du, eta delegatu honek zuzendari bat proposatu behar dio kontseiluari.

Delegatua Miguel Iraburu da, eta por más joder Opusekoa da. Bere aita, Nafarroako Opusen unibertsitatean irakasle da. Gainera, extrema dere txakoekin harremanak ditu.

Jendeak esaten du, aldizkari hau, Opusena izango dela UCDrena baino gehiago.

Hori ez zait inporta. Gainera, nire ustez, ez da diferentziarik bien artean. Biak berdinak dira.

Nafarroako UCDko politikoak Opusen mona-
giloak dira.

Baina ez dira hemen bukatzen Nafarroaren
problema. Beste alde batetik, Pensamiento Nava-
rro egunkariak bere instalazioak berri behar ditu.
Ez baldin badakizue, egunkari hau navarrista-fora-
lista-españolista-tradizionalista bunkerianoa da.

Esaten dute, 3.000 ale saltzen dituela, eta
bere tirada 4.000 alekoa dela. Eta hori maximora
joaz!

Baina dirudienez, diru berria etorri zaio orain,
eta offset sistema ipini behar du makineriatan. Gai-
nera, hasi da propaganda egiten irratietan.

Antieuskaldunak ez baitira lotan gelditzen!

Beste alde batetik, Diario de Navarrak jarrai-
tzen du bere antiEuskadi kanpainan. Egun hauetan
kunplitu ditu 75 urte kalean. Efemeride hori hos-
patzeko, Nafarroako autoritate zibil eta militarrek
gonbitatu zituen. Prentsa lokala ere gonbitatu
zuen.

Orain, Nafarroako UCD oso protegitua dabil.
Eta euskaldunoi bentaja hartu digute, zeren Nafa-
rroa ez baitago "Consejo General Vasco"-n.

Opusek santu bat du infernuan, eta UCDk
beste bat zeruan. Opusek Escrivá de Balaguer du in-
fernuan eta UCDk Franco du zeruan.

Santu horiekin Nafarroa salbatu nahi dute
Euskadirengandik. Eta dirudienez, infernuko san-
tuak eta zeruko diktadoreak zoria dute Nafarroako
probleman.

Horrela dago mundua. Ez dut ahanzten Dipu-
tazioa. Baina hori beste kapitulu bat da.

Hiztegia.

Iñaki Zabaleta

argitaratu:	publicar
aldizkari:	revista
harremanak:	relaciones
berri:	renovar
ale:	ejemplar (de periódico)

Donostiako estiloa.

AUZMENDI

AUZMENDI, Sastre. Vergara 1.



MILA KONDU BERGARAKO ALKATEAK



Ekaina baino lehen, Madrilgo gobernuak ez baldin baditu udal hauteskundeak konbokatzen, Bergarako alkateek konbokatuko dituzte. Hori da barrabilak edukitzea! Suarezek ez baitu euskaldunekin jolastu behar. Hala ere, asko jolastu du eta jolastuko oraindik. Baina, gutxienez, Bergarako alkateek hitz egin dute tranparik gabe.

Eta orain doktore batek esaten du, hotza eta elurra eta ekaitzak bolkanek sortzen dituztela. Nik uste dut, Euskal Herrian, hemendik aurrera, zentrale nuklearrek sortuko dituztela hotzak eta elurrak eta ekaitzak. Eta nola Blas Piñar ere bolkan bat den, kontuz ibili behar dugu horrekin. Euskal Herrian eguraldi ona izateko, ez dutu utzi behar zentrale nuklearrik egiten, eta Blas Piñar exiliatu behar dugu.

Hori egia balitz!

Baina lasai egon behar dugu. UCDk bere lehenbiziko derrota sofritu du Parlamentuan, eta hori seinale ona da. Agian, geroago PSOEkoa izango da gobernua, eta orduan ere, PSOEek derrotak sofrituko ditu. "Alternatiba de poder" ez baita esistitzen. Hori marikastañaren kondua da. Zorionez.

Eta KAS ekipuak egin du bere presentazioa. Gasteizeko ziklista ekipuak ekin dio aurtengo lanari. Oraindik Txomin Perurenak ba du beste urte batetan zer eginik eta zer esanik. Beste euskal ekipua Nafarroakoa da, eta bere izena Super Ser da. Honen ere ekin dio ziklista lanari.

Nik beste KAS bat maite dut...

Baina mundu honetan gauza arraroak entzun behar ditugu. Orain ikasi dut, Paulo VI-k Txina komunistarekin harreman diplomatikoak ukan nahi dituela. Ez al dute esaten Eliza katolikoa eta komunismoa katü eta zakur direla elkarrentzat?

Jesukristo eta Marx birbiztuko balira!

Eta birbiztuko balira, Corte Inglesen erosiko lituzkete beren trajeak Argentinako mundialetara joateko. Argentinan, Videla agurtuko lukete eta zorianak emango lizkiokete. Dakizuenez, Partidu Komunista legala baita Argentinako diktadura katolikoan.

Munduko inkongruentziak.

Hiztegia ekaitza: tempestad
udal hauteskundeak: elecciones municipales
ekin: iniciar

Iosu Alezuri



aberi egunak

1932
1978



ABERRI EGUNA, BIZKUNDE EGUNA, ARANA GOIRIREN EGUNA (1932-1978)

Aberri Eguna, euskaldunok, irlandarrek bezala, Bizkunde edo Bazko Igan-dean ospatzen dugu. Aberri Eguna, beraz, Bizkunde eguna da, kristauek bizkunde erlijiosa eta euskaldunek bizkunde politikoa ospatzen dizuten eguna; eta Euskadin, Arana Goiriren eguna da.

Sabin Arana Goiri, el **Libertador**, el **Maestro**, etab., da, dudarik gabe; baina, Sabin, batez ere, berbiztailea da: Euskal idazleak, poetak, bertsolariak, Aberri Egunaz eta

Arana Goiriz, beti berdintsu mintzo izan dira, simbolismo berberaz, irudi espresakera berbatez, berbizkunde terminutan hain zuzen. Bazko irudi eta terminologiaz.

LIZARDI, "URRETXIN-DORRA" ENBEITA.

Bazko gabeko simbolismo liturgiko honetaz baliatzen da Lizardi, Arana Goiritaz diharduenean.

Argiaren simbolismoak domeinatzen du Bazko liturgia. Sabin, "guri argi ematearren itzalia" da, Je-

sukristo guri bizitza ematearren hila bezala, gurutzean: eta badakigu espainol justiziak nola gurtzifikatu zuen Sabin, gazterik hil artean. Sabinekin argitu gaitu, ez garela espainolkume batzu. Herri bat gara, gure duintasuna dugu, bagara norbait, gu geu gara, ez gara inoren morroin. Sabinen argiak atera gaitu ilunpe itsutik eta esklaberiatik. Iratzarri gaitu. Irakatsi di-gu nor izaten:

Aren argibidez ni jabetu enegan bazala norbait /atxilotu.

Bazter zokoan zegoen aberria —edo euskara, berdin bait da— "ene ta asaben oarrezak botea", Sabinekin bizitu eta jaikiarazi du. Lizardik, abertzaletasunaren bidez, aberria ezagutzuz, somatu duen "berri-jaio-poza" kantatzen duenean, Bazko liturgiako beste tema bat gogoratzen dugu oraindik: bataioa, sortze berria. Eta bataiatu berriekin jantzi berri zurien simbolismoa antzizurikatzen den moduan, Lizardik Aranaren oroimena ospatzen du, "aberriz ta mintzoz gu jantziarena".

EL DIA DE LA PATRIA

En los tiempos malditos de la Dictadura, hundida para siempre, bajaba de la romería de San Antonio de Urkiola un aldeano de aristocrática presencia.

Ostentaba en la solapa una medalla del Santo con la bandera tricolor.

Una pareja de la Guardia Civil se aproximó a él y le dijo: ¿—Qué llevas ahí—?

Y el aldeano contestó: Una medalla de San Antonio.

—¡Quita esol - le ordenaron.

—No, ¿por qué?

Y sin más explicaciones, uno de los guardias se atrevió a arrancársela.

Entonces el aldeano, mirándole fijamente caballerosamente, le dijo: —Esa medalla me la arrancarás, pero no podrás arrancarme lo que tengo aquí dentro.

El Día de la Patria, intenté ver a este héroe anónimo, y todos me parecieron que eran él.

El dictador ha muerto para siempre, la Guardia Civil tambalea, y la Patria en marcha como una riada serena, profunda, incontenible, sigue su camino triunfal hacia Sukafieta.

Adolfo de Larrainzar

Ordurarte ez zen egon Euskal Herrian gerra zibilik, ez frankismoan bizi izan garen zapalkuntzarik. Hala ere goardia zibilak kanpora joan zitezela ongi eta garbi eskatzen zuten PNVkoek.

BAZKO IDEOLOGIA BAT.

Bazko Igandea da Aberri Eguna. Noizpait Aranatar anaia biek, Sabin eta Luisek, egun horretan izan omen zuten elkarrizketa gurutzeala baino arrazoi sakonagoa, Bazko Igan-dearen sinbolismo bortitza da. Aberri Egunak, errebelazioa ospatzen du: euskaldunek Euskadi ezagutzea beren aberri bezala. Berbizkundera, "Itxarkundia", ospatzen du batez ere: karlistada ondorenean lur jota zegoen herriaren uste berria, esperantza. Gauaren erdiko ilunpetan, argiaren biztea ospatzen du. Zuzen ere zuzen idatzi zen, orduan, lehenengo Aberri Egunaren inguruan: "Aberri-eguna, berbizkunde eguna ixan da Euzkadi'rentzat".

Berbizkunde: hori da. Arana Goiri, Aberri Egun, beste bi izen dira, beti horixe bera adierazteko. Berbizkunde/Aberri Egun/Arana Goiri.

Sinbolismo guzti honen indarra somatzeko, eta bihotz barnerakortasuna, baina baita errealismoa ere gehien-gehienbat sinestun aitortzen zen Euskal Herri batetan, sfededunen Bazko gau bat behar da ikusi izan, bere liturgia eder zaharraz, erlijioen historiak inoiz munduan sortu duen sinbolismo estetiko eta espresibuenetakoz, forma sotil bortitzetan, oraindik ageri-agerian daramatzana esklabuen eta misterioen eta salbazio ritoen mundu helenikoaren seinaleak. Irlandarrentzat bezala, euskaldunentzat —eta eslabiar herrientzat— beren historiako gau luzearen espresio bilakatu da Bazko gaba.

Bazko sinbologia li turgiko berdinean mugitzen da Urretxindorra. Ohizko irudiez gainera, negu/udaberri motiboa eta sol oriens, eguzki jaiaren, batera aurkitzen ditugu hemen; oso bazkoazko irudiak hauk ere:

Euzkijak menditik argi Negu ondoren... Euzkadi /oro

sortu da euzko mintegi.

Bertso triunfal bat da —gau/goizargi, negu/udaberri: hiltatik bizitara, berbizkunde— Urretxindorrek lehenengo Aberri Egunerako asmatu zuena.

Sabin Aranaz iharduteko, Bazko tematikaz baliatze hori, Arestiganaino luzatzen da:

Sabino Polikarpo Abandoko, Kantabria zaharrari eman /zenion itzura berri bat...

"Dejecta erigi, inveterata renovari et per ipsum redire omnia in integrum", Bazko Liturgiakoak: eroria jaso, zaharkilatua berritu, dena bere osotasunera bihurtu.



Gau honetan, gaberdia pasaxe edo, Eliza ilunpetan dago. Eliz atarian sua mugurretik bizten da eta bedeinkatzen da eta argiaren liturgia hasten da, suaren ospakizun magikoa. Argia, gau luzearen buruko argi gozoa, IV.gn mendeko Latin ezti eta gregoriano zoragarritan abestua: poz bitez oraintxe zeruetako aingeru taldeak, poz bedi Eliz Ama, hainbeste argi printzaz apaindua... Kandela haundi bat biztu da Eliza ilunean, herri guztia- ren isiltasunaren erdian: hau da gaba, Moiseri, Egiptotik ateratzean, argi egin zeniona... Eta euskalduna —eta irlandarra, eta eslabua— Itsaso Gorrian aurrera sentitzen zen, mirari batez Egipto menpetik salbatuta, askatuta. Bataio ritoa, kreaio berri baten zeinua: eta Euskal Herria birkreaturik sentitzen da. Sinboloen indarrak bizkorturik —irudipenak, asoziazioak— euskaldun fededu-

nak libertatezko mundu batetan amets egiten du. Argi, bizkunde, askatasun, sinonimo bihurtzen dira gau honetako liturgian.

GERRA, FAXISMOAREN GAU LUZEA.

1932 (Bilbo), 1933 (Donostia), 1934 (Gasteiz), 1935 (Iruina)..., libertate errepublikanoan ospatu ziren Aberri Egunak: euforiaz beteak, konzientzia irabazi berriaren festak. Bere buruan konfiantza osoa berrirabazi zuen herri baten jaiak izan ziren Aberri Egunok.

1937-an, frontean ospatu zen: bizkundea heriotza zen. Gero ez zen Aberri Egunik ospatu 1964-era arte.

Faxismo urte beltzotan, bazkoa ere iluna izango da, gaba da, esperantza desesperatu baten, beldur isilaren. Aberri Eguna eliz

Mi pensamiento

Me piden una impresión sobre el "Día de la Patria". Su grandeza indica la potencialidad de nuestro Partido, hoy verdadero controlador de la vida de la Patria, mañana el instrumento de su liberación. Jaun-Goikoa inspire a nuestras Autoridades para que modelando el alma de nuestro pueblo acerquen, hasta que nosotros lo veamos, el día de la felicidad.

Agur! (for Julea Indurain)

El Día de la Patria

Reflexiones

Por motivos físicos, superiores a mi voluntad, no asistí al acto pero los periódicos que se me leyeron y las personas veraces y buenas observadoras que concurrieron a Bilbao están contestes en afirmar que fué grandioso, nutridísimo, organizado admirablemente, modelo de entusiasmo y de disciplina, es decir, acto heroico de patriotismo, contenido por irrompibles muros, que la serenidad y el juicio construyeron. Pueblo que así se conduce es de muchas promesas, sí profesa, como fundadamente podemos creer, voto de perseverancia. Sobre todo levanta el ánimo aun de los más desconfiados espectadores la existencia de tan ejemplar organización; pues la naturaleza de caudillos y guías idóneos únicamente la forman las muchedumbres capaces de virtudes cívicas y patriotas.

Si, el cuadro, leñido en los colores más vivos de la esperanza, fué deslumbrador. Mas no te voluamos la espada antes de que nuestros ojos se enteren de que ciertas nubes le sombrean, no nos hagamos la ilusión de que no existen algunas.

La lengua milenaria de la ruzu se ve atacada por personas que llevan sangre vasca en las venas. La combaten en nombre de la cultura, sin echar de ver que si algo proclama esa enemiga es la incultura feroz y bárbara de los que la experimentan. Sepan los cultos de inteligencia intoxicada y los pseudo cultos que reciben consignas sin entenderlas que las naciones cultas conservan, exllenden, culllvan, embellecen y hermocean sus idiomas-vernáculos, y que solo los pueblos salvajes los desdeñan y olvidan.

Otros enemigos de las cosas vascas, sin darse cuenta de ello, acaso, anidan en sus pechos rencores dimanados de prejuicios y desengaños puramente personales. Las legislaciones celtas forales, extremadamente lógicas con sus principios, suelen ser muy amplias en las facultades dispositivas que conceden. Acaso un padre u otro ascendiente más lejano, en sus donaciones y testamentos no llenó los anhelos de quien he y procede como antluasco en cuantas ocasiones se le ofrecen; conozco de ello varios ejemplos, no sólo en nuestra patria, sino también en Cataluña. La raíz del antipatriotismo de los aludidos es, como se ve, muy fea y nauseabunda.

Otros, por lo general, cautos y comedidos en sus palabras, no suelen dedicar ninguna de sus obras a mantener las insluciones de la tierra nativa; ¿por qué? porque les son absolutamente indiferentes; sus cavilaciones constantes andan por otros caminos: el de la lisonja a los poderosos, el de la hartura de los goces del bienestar y de la riqueza, el de la satisfacción de las vontadades, el de la conquista de capital...; los demás no representan valores de la vida.

¡Día grande de la Patria! Yo te bendigo. Si las nubes invaden mi alma, abriré francas las puertas de mi memoria, para que, al calor de ese recuerdo, resurja la confianza fortalecida.

Arturo Lonzarón

barneetan ezkatutako da, oihuak eta garrasiak otoi-tza eta negarra izango dira, konzentrazioak bihotz barne isilean egiten dira. Bazko liturgia drama triunfal bat da: faxismopean bazkoazko sinbolismoaren alderdi tragikoa destakatu-ko da. Euskal Herri zanpata Israelekin berdintzen ikasi da. Baina orain Ostirale Santu beltza gogoratzen da, ezen ez Bizkunge gau argia. Euskal Herria gurutzean dago. Bozkariozko berbizkunde sentimendu bihotz goragarriak, agonia larriari egin dio leku. Inork ez du hobeto erakusten sentiera aldakuntza hau, Salvatore Mitxelenaen poesiak baino: Guruzbidea, Euskal samianaren guruzbidea, Erri bat guruzbidean...

1964: BORROKAZKO ABERRI EGUNAK.

1964-ean Aberri Eguna berriro hasten diren (Gernika, Bergara...), Euskal Herria beste bat da. Bazko giro arrai batek ez, baino gudu giroak jazten du. Aberri Egun hiriak, militarki okupaturik irartzatzen dira. Bideak hesiturik daude. Ikurrin kolore alai ez baino, mitrailetaz eta uniforme berde eta grisez betetzen dira bazterrak. Kontrol ez kontrol, euskalduna, goizean alai etxetik irten duena, ezintasun eta humilazio artean, sentimendu erreprimatuek erre-erreta, azkenean Aberri Egunaren hirira sartu gabe itzuliko da etxera. Gogoan dugu denok oraindik: bo-

rroka bat bilakatzen da bidean ibiltzea.

Abertzaleak elizetan errezatzen badu ere oraindik, bazko eta Aberri Egunaren ospakizun arteko jarraigoa xuxena, berehala doa etetzera. Errezatzeak Aberri Eguneko bere lekua galduko du. Laster, Aberri Egunari, ez zaio beste bazko karaktererik gelditzen, egun horretan ospatzen dela baino.

Aldakuntza prozesu honetan, abertzaletasuna bera urratu da: 1967-an, EAJ/PNV-ak Gasteizera deitu zuen Aberri Eguna, ETA-k Irun-Hendaiara.

1968: EUSKADI GERRAN DAGO.

"La policía armada a

caballo y en jeeps tomó posiciones en los puntos estratégicos de la ciudad", idazten zuen La Hoja del Lunes-ek biharamonean.

Baina Aberri Egun honetan, Donostian, manifestariak buru egin diote poliziari. Harriak, autoak irauliz. Zanaketat aski da. Krutwigen gerrila teoria zabaltzen da.

1968, Etxebarrieta- ren heriotz urtea da. 1968, Manzanasen hilketa urtea da. 1968-an gartzelak abertzalez betetzen dira, bazterrak desterratu, Estado de Excepción dekretatzen da.

Berbizkunde, orain, gerrarena da.

1978: ASKATASUNA EZ DA OTOIZKA ESKURATZEN.

Aberri Eguneak, askatasun borroka prozesua isladatzen dute: bazkotatik kalbario menditara, kalbariotik gerrara.

Profeta ez dena, ez da sartuko igartzera, 1978-ko Aberri Eguna zer izango den. Baina bazko egunik ez da izango, ez. Euskadi ez dago bazkoatan.

Aberri Egunez Aberri Egun, Arana Goiriren deia doa: "Los bizkainos no queremos otra cosa sino que la nación española retire de nuestro territorio su dominación; para que Bizkaya sea de los bizkainos y éstos la gobiernen libremente, sin estar sometidos a más poder superior que el del Señor de todo el universo".

Joxe A. Otaegi

"ABERRI"-EGUNAREN ERRAN-NAHIA ORAIN ETA LEHEN.

1. IZAKARIA

1936/ko gerlaren aintzinean, PNV/k euskal jai nazional bat organizatzeko asmoaz, bere izpiritu klerikalaz, Jahve-iainkoaren Jesu Khristo alegia-se-mearen pasionean pentsatzen zuela, Pazko iudu-iai zaharraren fetxa hautatu zuen. Hunela ere, Syrian eta bertze lurralde asiatiakoetan sorthu mytho massokhistak euskal politikan sar-araziak ziren. Hortakotz erraz enthelega diteken nola bertze herrietan ia bethi herriaren verthute militariak pizteko eta hospatzeko diren nazional-jaiak,

EN LA PASCUA

DEL

NACIONALISMO

Por E.-I.-B.

Día 27 de Marzo de 1932. El día de la Resurrección del Señor; el día de la Patria Vasca.

Un solo día, para fundir en uno, dos recuerdos queridos; la Resurrección del Señor, que al triunfar de la muerte por Sí nos lega la prueba más clara de su Divinidad; la resurrección de la Raza Vasca salvada de la misma muerte por Sabino.

Cuando la Cruz significaba para la raza latina oprobio y muerte, era para los vascos signo de felicidad; curiosa coincidencia: Cristo dignificó la Cruz, y desde entonces es verdad, camino y vida.

Y los vascos pasaron a la religión de Cristo, con el mismo signo purificado y divinizado.

Antes de Sabino, había un lema arraigado en el corazón de los vascos: «Dios y Fueros». Y el mismo lema pasó a ser con el Maestro el Ideal sublime que había de salvar a la raza.

Y Jaun-Goikua eta Lagi-Zaŕa entró en el alma de los vascos, como camino, verdad y vida.

El «Día de la Patria»... el Día de la Raza... el Día de Jaun-Goikua eta Lagi-Zaŕa... el día del Triunfo de Jesucristo, el Día más grande para la Iglesia, será también el día más grande para Euzkadi.

Porque Dios y la Patria quedarán fundidos en nuestro recuerdo, en el día más alegre de la Iglesia y de la Raza.

En un sólo día, dos sacrificios enlazados: Jesucristo, muriendo por los hambres para hacernos felices, deja en la tierra trazado el camino: La Cruz.

Sabino, mirando a Dios y a su Patria, baja sereno al sepulcro, para hacer felices a los vascos, y en nuestra tierra querida, también deja un camino: Jaun-Goikua eta Lagi-Zaŕa.

Euzkadi, Patria querida, afronta tu vida con la frente muy alta, porque hay en el fondo de tu alma misma, las tres virtudes que te harán feliz: la fe en Dios, el amar al trabajo y tu honradez arraigada.

Consérvate erguido ante el mundo que te contempla con asombro, por el ejemplo admirable que tu pureza sencilla y tu dignidad liberal y respetuosa, van dejando en los pasos firmes que tu progreso dá.

Tu nombre y tu bandera han de ser dignos de tí misma, de tu historia y de tus leyes, de tu esclavitud y Libertad, porque son obra de Dios y de Sabino, que son tu mismo pasado, tu presente mismo y la vida y esperanza de tu risueño porvenir.

PSOEk eta PCK ez zuten orduan Aberri Eguketara joateko deirik egiten. Suposadateke zergatik... Eta noski, espainolistak zirelako ere.

Euskalherrian massokhismuaren haziaz sorthu zen, Erlisionearen eta Politikaren nahasmendua, herri primitivuetan ekhandua izaiten ohi da, baina batera-iaite hau bethi kultu etnikoek egiten den bitartean "euzko" aberzaleek batera iaite hau, Euskalherria menperatzailea bezala ethorri zen kultu iuduaz egina zen. Halakotz, egiako euskal tradizionean bethi ikhus genezakean nola euskal buruzagi autentikoek kanpotar kultu semitiko sartu zenetik, bethi erlisione ta politikaren artean oso berezgo garbia egiten ohi zuten. Baina Euskalherrian bigarren Karlotar gerla danik-sartu ziren espainolkeria, ta klerikalismo errotikako espainola ere, geroagoko euskal Politikan agertzekoak ziren. Hunela ere PNV./aren slogan klerikala enthelega behar dugu, "Nosotros para Euzkadi y Euzkadi para Dios" erraiten zutena. Horrela ere Aita Iberok bere "Ami Vascoan" ethorkizuneko linea politiko bat argi-ta-garbi finkatzen zuen, euskal Politikak Vatikaneko linea politikoaren araura ioan behar zuela pentsatzen bait zuen. Baina Euskalherria bezala, menperatuta dagoen herri batek, bere egokera sozio-politikoaz konszientzia hartzen duen guztietan, Vatikanu bezalako erakunde mundutiar batez, hau da: bere politika menperatzaileen interesen anzora agitzen dituen systema ideologikoaz, konfliktuan sartzen da. Gerlaren aintzinean euskal "jelkideen" mentalitate klerikalean enthelega, bai eta batzuetan ere desenkusa, dezakegunak ez diroke eduk ethorkizunik egokera osasuntsu batetan.

Lehen-lehenik zergatik Pazko eguna? Giristinoentzat Pazko-iaiak ez zuen phesta hunek iuduetan zedukan signifikantza politikorik. Iuduen mythologian lahve-iainkoak bere herria, Pharaonen menpetzatiko iaregintza hospatzzen zen. Huni aitz, giristino guztiek egun huntan, orain hospatu nahi lukete nola beren iainko-semea den Jesu Khristok bere heriotz violenta massokhistaki bere iainko-aita sadikoari, Gizarte guztiaren redempzionearen gurariaz, eskaintzen dioen. Hunelako sentimendu perversoak eta izpiritu bihurriak Asia Hurbilean eta bertze lekhuetan ere izanik dira, baina, ala Jainko! Politikatik at utzi behar genituzke mundu moderno batetan. Hunela ere "Aberri"-egunak bere baitan masokhismuaren hazia eramaiten zuen, eta euskal Politikan sar-arazi.

1937/an euskal tropak Españaren kontrako gerlan derrotatuak zirenean, Zumalakarregik Xahoren liburuan egiten zuenaren orde, hau da zanpatzailearen kontra gorrotoa phredikatzearen orde, "lahve-iainkoari, Munduak egiten zituen pekatu guztiak xahutzeko, Euskalherriak sufritzen zuen

“Días de afirmación patriótica” esaten zuten ordukoek. Herri baten nahia ongi adierazten zen behintzat, erdi mitiko; erdi erlijiosoak ziren manifestaldi haietan.

pairamendua”, irantzi gixaskilen gogoaz, eskaintzen zerauzkioten. Massokhismoaren massokhismoa ta guztia massokhismoa! Irantzien vizioak verthuteak bilhakarazten!

“Aberri” egunaren ber-piztea, 1963/n Itxasuan gerthatu zen, Iphar-Euskalherrian sortzen zen “Enbata” izeneko taldearen lehen bilkurean. Berpizte huntan ere ba dadukagu “genus loci” delakoaren ondorioa. Ipharraldeko euskaldunek “ekhaitz” bat sortzearen orde, “enbata” gozo bat baizik ez bait zuten phizten. Bainan Hegoaldeko Euskalherrian, lehenago zurezko ezpataz antholatzten ziren gudulari folkloristen maskaraden orde... eta batez ere euzko politikari zaharren elhe-melhezko iarkitzaren, erresistentzia verbalaren orde, gazte batzu bertze moduetako iarkitzaren, pentsatzen hasi ziren, hortakotz ere euzkotareroen politika vascongadoaren orde, gathazkalarien nazional politika batetan pentsatzen zuten euskaldun batzuek. Eta baldin Euskalherriko nazional batasunaren erakhistekotz, zubi batez bildurik eta muga anti-natural batez bereizirik dagozen Hendaia ta Irun-Irantzu hiri biritsietan euskal batasunaren Aberri-eguna aphailatzen ba zen, Politika vascongadoaren iarraitunek bertze lekhu batetan beren phesta anti-nazionala aphailatzen zuten.

Bigarren epokhan huntako “aberri” egunen importantzia zertan zetzan batez ere? Urthean behin organizatzen ziren giza-oldeen mobilizakuneak ziren... Dena dela, urthean behin izanagatik, ba zegoen hobeki ta urthean behin lehenago ethorten ohi zen “Gaboneko” messaddea baino gehixeago zen, batez ere hunekin euskal iarkitzaren izpiritu berria hedatzenago zatekan.

Francoren heriotza danik orain, frankismo berri bat sorthu da, frankismo kamuflatua alegia, UCD-aren izenaz. Hunelako egokeraren aintzinean zer egin? Berriro elhe-melhezko iarkitzari itzuliko dire euzko politikari kalakazaleak-a? Ala Madrileko Gubernuaren fedetzarra ikhusten eta nabari den bitartean bertzelako methoduei euskal gathazkalaririk iarraitiko zaizte?

Bainan nola gauza guztietan beharrezkoena dena “izpiritua” bait da, halatan ere euskal gathazkan garhaitzeko gogoak, massokhistez bertze prinzipiotan bere phutza hartu behar luke; gathazkalarri herri maskulinetan gerthatzen ohi den araura, euskaldunek ere, beren nazional-jai... Euskalherriaren garhaipen historiko bat hospatzen den egun batetan finkatu behar lizateke. Neure aburuz hunelako fetxa historikoa Euskalherrian, Orstaroaren 15/a izan da, noiz euskaldunek Frantziaren harma-



da Orreagan suntsitu bait zuten. Euskaldunen viktoría hau mundu osoan ezagutzen da. Eta hunela kanpotar iaínko baten heriotza ta phizteaz xinta-mintaka egoitearen orde, euskaldunek, beren herrirat kanpotar iaínko hori ethorri baino lehen, beren Historian iaraietsi duten ekhintza nabusiena ta ezagutuena hospa lezakete. Hunen araura flamenkoek bere nazional jaiáz, Kortijken frantsesten kontra irabazi zuten “urrhezko ezporen bataila” hospatzen dute, eta Alemaniko patriotek beren nazional jaiá bezala germanoek Arminius buruzagiaren manupean Varusen legioneak deuseztu zituzten eguna dute.

2. POLITIKA TA HIZKUNTZA

Orain, “Aberri” egun delakoa, Euskalherriaren etsaiek berentzat rekuperatzen dutelarik, hiltzen denean, PNV/ganik UCD/gana iragaiten delarik... eta gure aburuz egiazko Euskalherriaren nazional jaiá hospatzekotz bertze egite historiko bat bilhatu behar dela pentsatzen bait dugu; halatan ere, jai hunen izena egian errotikako euskaraz denz hauteman behar genduke. Lehen lehenik “aberri” hitza “patria” delakoa ahal da? Euskal garbizaleek, beren kultura españolaz, euskarazko hitzak eratu nahi zituzten guztietan, pentsatzeko kriterion bat baizik ez bait zuten, halatan ere kanpoko janzkiaz “euzkerazkoa” zen hitz garbia, bere barnako egituretan bethi español ziren hitzak ekhoizten zituzten. Inglesez ez dago “patria” graikarazko elhearen hitzez-hitzezko itzulpenik. Graikaraz πατρία (patriá) hitzak erran nahi zuen zera zen: familia, leinu, hatz, ias, ethorki. Hortakotz, sentzuan: gurasoen ganik semeak gana ethorten den gauza, belhaunez-belhaun observatzen den ohi-dura da. Haren adjektivua πατριός (patrios) zen. Beraz... euskaraz “patria” erraiteko zentzuan

ERRAN-NAHIA ETA LEHEN.

aski da: herria... edo zigurtatzenago delarik: sor-
therria.

Euskarazko "herri" hitza, hitz biziduna bait da...mytho batetaz bethea dago, ezen hitz bizi guz-
tiak bethi nahi-eta-ez mythozkoa bait dira, eta my-
thorik ez dutenetan bethi hilak bait dira. Hunelako
hitz mythiko baten aurk haz-aurk hitz logiko ba-
tek...materializatu kontentutu bat daduka... ezin-al-
datuzkoa, ... bainan nola bizia aldakuntzetan bait
datza, halatan ere... jakintzazko hitzak bethi mo-
miak dira: ...momiek dudarik gabe aldatzeke men-
dez-mende irauten dute, ... bainan bizigabeak dira.

Euskaraz "Euskalherria" diogunean, ...euskaraz
mintzo den giza-hatz bizi batetan pentsatzen du-
gu... Beraz euskaldunen iasa, "herri" bat direla
erraiten dugunean, Itsasaldeko Europa zaharrea:
"arraz", -eta terminologi berrian: "ethnia"-,
erraiten den zeran pentsatzen dugu... eta "herria"

Eta nola herri guztiak, herri biziak bethi my-
thoan bizi bait dira, halatan ere herrien nazional
jaiez bethi bataila mythikoetan pentsatzen da... eta
herri batek bere jaregintza ardietsi duenean, herria-
ren statugintzaren eguna, herriaren askatasunaren
proklamakuntza ospatzen du.

Statu gabe bizi diren herri menperatuek bai
ba dute iazargo bat... eta iazargo hau, Maok ere,
ongi ikhusi zuen bezala... ez da herriaren barnako
iazargarik, baizik eta menperatzailearen kontrako
iazargoa. Hunen araura iai mythiko baten bidez
symbolizatzen dena ait litz... helburua, menperatu
klassietan, "sozialismua" ere, hunelako helburua
den bezala. Herriak bere askatasuna ardietsi duen
mementuan danik... helburu hori ez da aldatzen
bainan egikortasun berri batetan fitsatzen da: sta-
tuaren egikortasunean. Herri guztiarentzat dudarik
gabe "statuaren" lortzea... oso harma importanta
da...herriak bere izpiritua dadukan ber.



gure begien aintzinean bizirik dagoen zera da. Zera
hunek, gorphutz bizi bat bait da, bere burua bai ba
daduka, german hizkuntzetan "volk, folk" hitzare-
kin gerthatzen den araura, eta hizkuntza romaniko-
etan gerthatzen ez den araura, zeinetan "populus,
people, pueblo, popolo... eta." erraiten den guztie-
tan bethi, politiko gizarte systema baten gizateli
beheraz, gizartearen buruzagiei aurkaz-aurk, kultur-
gabeak kulturdunei aurkaz-aurk, pentsatzen bait
da. Beraz herria, "nazioneari" hurbil dagokion hi-
tza da, graikarazko ἔθνος (ethnos) hitzari hurbil
ere bai; bainan "populua" "statu" hitzaren askazi-
goari hurbil dagokio, graikarazko δῆμος (dē-
mos) hitzari bezala.

Hunela Statuarekin nahiz Statuarengabe...he-
rri batbederak bere buruari daronsan mytho bat
daduka... Mytho huntaz, helburu bat aurkezten
da... eta bethi egunoroko egikortasunenean egon
gabe... mytho nazionalak ethorkizunaren kreatzai-
leak dira... ezen izaikari oro...egikortasunean egon
baino lehen gizonen izpiritueta bait dago... Herri-
en ethorkizuna... mythodun gizonen bidez era-
tzen dira... eta mythorik ez dutenak...bizkarroiak
baizik ez bait dira. Hortakotz euskal nazional jai-
a bezala egun bat mythiko kontentutuaz haukeratu
behar dugu, lizen gure ethorkizuneko egia.

F. C. Krutwig Sagredo

FRANKISMOPEKO ABERRI EGUNAK

1950-1960 hamarrekoari buruz, esan daiteke PNVk ez zuela diktaturaren aurka borroka zuzenik egin, bere oinharri sozial nagusia osatzen duen burjeseria abertzaleak negozio mardulak egiten ari zelako diktaturari esker. Baina 1962.etik aurrera gauzak aldatzen dira. Ekonomiaren arloan, estabilizazioaren kinkak ongi erakutsi zion sistemari programaketa ekonomikoa aldatu behar zela; 1963.ean "Plan de Desarrollo" hasten da eta berarekin dirigismo autarkiko faxista bazterturik gertatzen da, iniziatiba pribatuarentzat oso mesedegarria den politika ekonomiko bat onhartzeko den bitartean. Mendebaleko ekonomia kapitalistaren arabera normalizatzen hasten da sistema. Politikaren hesparruan, aurpegi ikuzdura bat egin nahi da tenore berdinean: Fragaren "Ley de Prensa", Loraren APEak, "Ley Orgánica" eta "Ley Sindical" zirelakoak ezagutu genituen 1962-1966 epean.



PNV, aldakuntza hau zirela eta, bizi politikan sartzeko zirritu bat ikusi zuen, eta hortik abiatu zen. Normalizazio demokratiko-kapitalistarantz zeraman bide hau berea zen, duda gaberik; eta, gainera, ETAren lehendabiziko hosperei erantzun bat eman behar zion. Gernikako Aberri Egunara joateko 1964.ean dei egiten du PNVk; kontzentrapen baketsu bat egin nahiaz, gero, masen indarra argudiotzat erabiliz, sistemaren aldakuntzen gainean presioa egiteko. Baina uler dezagun ongi presio honen esanahia: karkoa ez datza iraultzaren egitean, ez eta ere independentziaren lortzean, ez. Urte haietan, kapitalismo espainolaren baitan oligarkia zentralistak eskuratzen zituen botere guztiak; euskal burjeseriak lortutako bentaja ekonomikoez ez zuten laguntzat inungo botere politikorik. Egokitze demokratiko baten posibilitatea ikusirik, boterearen birbanaketa bat lortu nahi zuen (eta nahi du) gure burjeseriak, Euskal Herriko botere lokala jabetzeko eta Gobernamentu zentralarekiko presio-talde eginkor bat bezela ekiteko. Hona hemen bere ihardungintzaren zentzua: burjesen arteko kontradizio ezantagonista baten islada zelarik, baketsua eta herriaren mobilizapen borrokatzailea baztertuz izan behar zen, halabeharrez. 1964.ean Gernikan eta 1965.ean Bergaran PNVk lortu zituen bere helburuak; Bergaran kontrolak gogorragoak izan ziren, baina egurrik gabeko kontzentrapen baketsuak ikusi genituen.

Baina programaketa hontan aldakin bat sartu zen: ETA, hain zuzen. ETAk ez zituen PNVen burjestasuna eta bakezaletasuna onhartzeko. Borroka harmatuaren beharra ikusten zuen eta, bai eta ere, euskal independentziarik ez legokeela langileen iraultza egin gaberik. Ideologia eta estrategia aldetik nahiko nahasiak ziren oraindik puntuak, baina 1966.ean, PNVk Gasteizera joateko bere deia zabaltzen zuenean, Iruin-Hendaiara deitu zuen ETAk. Irungo Aberri Egunaren konbokaketak hiru gauza adierazi nahi zuen:

- Euskadiko batasuna, Iparreko anaiak Hendaiara etorriko zirela eta.
- Borroka egun bat egin behar zela, ardikoite manipulagarrien bileren tradizioa hautsiz.
- Eta, batez ere, nazionalismo burjesaren aurka, langileen abertzaletasuna zela gurca.

Hitz batez, nahiz borrokaren tankerari buruz, nahiz gure aberriaren batasunari buruz, ongi adierazten zen abertzaleen batasuna enganio bat zela, esplotatzaile eta menperatuen arteko haustura eskal gizartearen erditik pasatzen delako. Gasteizen, berriz ere, nahiko baketsua izan zen eguna; Irunen, berriz, oso lagun gutxi sartu zen, eta balaz zaurituko lehendabizikoak izan genituen.

1967.ean ETAREN hospea handituz zihoan. Eta kontzentraketa tradizionalak borrokalariak bihurtzen ari ziren: horra hor Urbiakoa; ETAK Batasun Egunatzat konbokatu zuen, eta mendialde guziaz polizia horniturik zegoen, hiri batzutan kontrajartzeak gertatzen ziren bitartean. Urte hontan, PNVk Iruineko Aberri Eguna konbokatu zuen; ETAK ez zuen beste batera deitu. Hala eta guztiz ere, polizia ugari etorri zen Iruinera, eta eguna eta atxilotuak gertatu ziren.

ETAK eragindako aldakinaren gainean, beste bat agertzen da 1967.ean. Debaluzioa, Matesa eta Carreroren garaia dugu urte hori; tolerantziaren politikari geldialdi bat ematen zaio, eta Gobernamentuak gogortzen ditu bere jarrerak. Horregatik, 1968.eko Aberri Eguna, Donostiakoak hain zuzen, ETA eta polizia ditu protagonista nagusizat: borroka eta garrasi eguna da, Maiatzaren lehenengo bezalaxe. Berehala, ETAREN aurkako "guerra caliente" hasten da; polizia, tortura, ugaritzen dira.

Etxebarrieta erahiltzen dute, Estado de excepción ezartzen digute, eta berriz ere deportazio eta torturak hasten dira, masa abertzaleen erantzuna gogortzen den bitartean.

Garaia, ba, kontzentrapen baketsurik egiteko egokia ez zela jabeturik, PNVk ez du beste Aberri Eguna masiborik konbokatzen. 1969.ean ezer ez da egun hontan pasatzen; baina urte honen laburpena ikaragarria dugu... 5 hil, heriotz-kondena bat, 1953 atxilotu, 300 herbesterratu, 781 espetxe-urte, eta multazko 7.439.000 peseta. Edozein kontzentrapen debekatua gertatzen da, borroka egun bat bihurtzen da. Gauzak hola direla eta, adios PNVaren konbokaketei! Berriz etxean, familiaren bero ixilean, aitaren aurpegi grabea ikusiz, "hospatu" behar ko genuke Aberri Eguna, demokrazia eramankor bat berriz ageri arte: hona hemen PNVk nahi zuena. Eta 1974.ean, Leizaola bakar-bakarrik, txapelaz jantzirik, Gernikara etorriko zaigu Aberri Eguna hospatzearren.

Orain, sasidekraziaz jantzirik, Aberri Eguna baketsu, motel, ahul, txatxo eta putrusak hospatzeko prest ditugu kapitalismoaren jarraipena on hartzen duten indar gehienak. Baina guk, jakin, ongi ba dakigu hau ez zela gure Aberri Eguna borrokatzailea izango. Inundik ez.

Beltza

ABERRI EGUNAREN ESANGURAZ: ABERRI, NAZIO.



Hau ere bai zen Aberri Eguna.

"Egunak" asko dagoz, holakoak: Lanarena, Bakearena, Aitarena eta Amarena. Eta Aberriarena, Aberri Eguna. Holako "egun" guztiek hartu ohi dizute itxura berdintsua: sentidurik izan dezakete; edo, oso erraz, ridikuluak izan litezke, ideologiaren karnabal bat edo dendariaren negozioa.

Aberriaren egunak edo festak, Estatu guztiek daukate eta festa egun ofizialak izaten dira egunok. Alegia: lehenengo, festa egunak izaten dira: guk, ordea, ez daukagu batera arrazoirik, gure Aberri Eguna festa bihurtarazte-

ko; gure Aberria borrokan dabil eta Aberri Eguna ez da borrokaren parte besterik, nahitaez. Eta, bigarren, ofizialak izaten dira festaok. Hortik etor daiteke beste arrisku bat Aberri Egunarentzat: Botereak, eta borroka abertzalea "asimilatu" nahi luketen beste Botereak (Alderdi, etab.), Aberri Eguna ofizialdu besterik ez bait dute nahiko. Orduan, Botereak antolatzen duen festa bat besterik ez litzateke izango. Erronomia bat. "Eta baldin gatzat gezat baddi, zertaz gazituren da? Ezta gehiagorik deusgai, kanporat iraitzeko eta gizonez ohoindikatu izateko baizen"

Baina esaten genuena: Estatu guztietan dagoz Aberri Egunak. Adibidez, Espainian, maiatzaren bigarren eguna. "Independentziaren egun" horretan, esan ohi zaigunez, espainolak, okupatzaile frantzesaren aurka altxatu ziren eta aberria askatu zuten.

MAIATZAREN 2. gna. ESPAINIAN.

Bistan dago: ikuspegi abertzale batetatik bakarririk esan daiteke, frantzesak okupatzaile zirela, egun, ohituraren poderioan, ebidente iruditzen bazaiagu ere, halaxe zela. Frantzesak ez ziren 1808-an Espainiaren okupatzaileago, karlistada ondorenean espainolak Euskadiren baino. Euskadin espainol okupazioaren aldeko "progresistak" zeuden bezalaxe, Espainian ez ziren falta frantzes okupazioaren aldeko "progresistak".

Eta Euskadin hainbeste nahasketa sortu duen hauzi horretara sartuz, hauxe gogoratuko dugu: Espainian ere bazeuden klaseak. Hain zuzen Espainiako klase nagusiak arras atzerakoiak ziren, izpiritu "abertzalea" frantzesen kontra suzatu zutenak eta borroka abertzaleak beren pribilejioetan gordetzen zituenak: noblezia eta Eliza. Progresistak, h.d., gizarte feudal ustela, Inkisizioa, klerikailaren inperioa, desegitera zetozenak eta liberalismoa, askatasuna zerkartzatenak, frantzesak ziren eta "afrantzesatuak". Fronteak eskema sinple klasiko haren arabera partitzeko: erreazionari zirenak, Espainiako Errege familia lerdoa, klero ahalguztiduna, noblezia alferra eta militar kasta zahar endakatuak, ziren: h. d. "espainol aberria"; eta progresista, Napoleonen tropak eta afrantzesatuak ziren okupazioa.

ESPAINOL HERRIAK DEFENDATU ZUEN ABERRIAZ.

Logiko izanez, alegia, euskaldun abertzaleoi sarri aplikatu izan zaizkigun kriterio eta erizpideekin logiko izanez, espainol abertzaleok ez zirela erreazionari desgraziatu batzu besterik, esan beharko genuke. Eta Goyaren 2 de mayo koadro aurrean, afusilatzaileek merezi beharko lukete gure sinpatia; besoak zabaltzen eta afusilatuta hiltzen diren beste beldur fantasma tragiko haik, ordea, klase nagusi erreazionarien morroin zoro direla, esan beharko genuke: beren klase zapalduari traidore zaizkiola, zapaltzaileen interesak defendatzen zizutuzela, etab., etab., ondo dakizun errosario guztia.

Maiatzaren 2.gna Aberri/klase eskema sinple (eta sinplista) harekin esplikatzekotan, hortakoz, Mostolesko Alkate eta Agustina Aragoeko eta Geronako setio eta beste denak ahaztu, Goyaren pinturak ere ahaztu, gerrilerak eta gerrilak ahaztu eta ahaztu herriaren borroka zaila, eta hauxe esan beharko genuke sinple eta garbi: espainol klase nagusi zapaltzaile, erreazionariak —nobleziak eta Elizak— beren pribilejioak mehatxatuta ikusi zituzten, eta herria zakur-aisatu zuten frantzesen kontra; eta, herria, bere zapaltzaile egiazkoak zeintzu ziren ahazturik, gerra ikaragarri batetan kiskali zen, bere zapaltzaileen pribilejioak defendatzearen. Horixe

ospatzeko besterik ez litzaiteke maiatzaren 2. gna, Espainiako "Independentziaren eguna"...

Hori dena, izan ere, eskema horren aplikagarritasuna alegia, askoz ere nabarmenago ikusten bait da 1808-ko Espainian, euskal abertzaletasunaren historiako ezein momentutan baino: 1900, 1931, 1936 ala Burgosko Hauzi eta Txiki eta Otaegiren afusilamendu... ala gaur, aurtan.


BI KASU, BI NEURRI MODU.

Kasualitate batez bezala, denek dakite, maiatzaren 2.gna ez dagoela horren sinpleki juzkatzerik... "Gauzak ez dira hain sinpleak", esango dizu jakintsuak. Baina askok uste du, euskal abertzaletasuna justu horrexen sinpleki juzkatzeko eskubiderik daukala eta horrexen sinpleki juzkatu behar dela: hain sinpleak dira beti gauzak, jakintsua zapaltzaileen eta okupatzaileen alderdian egonez gero.

ASKATASUNAREN BORROKA, ALA PROGRESOAREN BORROKA?

Eskema horietan "progreso" esan ohi zaionak, ez du askatasunarekin koinziditzen: askatasunaren defentsariak sarri behar izan du borrokatu eta behar izan du askatasunagatik borrokan hil, hain zuzen "progresistaren" kontra: h. d., boteretsuenaren kontra (boteretsue-





Hau ere bai da Aberri Eguna

na izan ohi bait da "progresistena").

Naziobarneko borroken mailan balio duten eskemek, izan ere, ez dute horrenbeste balio komunitateen arteko gorabeherak esplikatzen. Komunitate batek bestea zapaltzen duenean, nazio batek bestea adibidez, sekula ez da ahulena eta atzeratuena izaten, bortitza eta aurretatua zapaltzen dizuna. Bere askatasuna defendatu beharrean, atzeratuena eta ttipiena kausitzen da beti. Beraz, nazioen arteko harremanetan, askatasun borroka, beti edo ia beti da atzeratuen borroka, "progresisten" kontra.

ASKATASUN BORROKA

Bere lege orijinalak ditu askatasun borrokak, progreso historikoaren edo, beste legetara erreduzitzerik ez dagoenak; edozeintsu kondiziotan, eta franko autonomuki, beren balioa historian zehar erakusten dutenak. Askatasuna bere baliogo bat eta helburu bat den moduan edozein kondiziotan. Askatasuna bera da helburu; ez instrumentu soil, beste helbururen baten zerbitzutarako. Horregatik, historian zehar, behin eta berriro, komunitate orok, sakrifi-

zio guztien gainetik eta nuntantismoraino, suizidio-raino, defendatzen du bere askatasuna.

Alde honetatik, bada, askatasun borrokak, hein batetan, irrazionala dirudi; arrazoizkotasuna, iharduera baten zertarakoa esplikatzea baldin bada behintzat: alegia, askatasuna zerbaitetarako bide eta medio dela; utilitatea, instrumentalitatea.

Jakina, askatasuna, bere utilitatea ere bada, bere instrumentalitatea: gure diruak hobeto administratzeko, gizartea zuzenagó antolatzeko, geuk derizkiogun legeak egiteko, nahi dugu askatasuna. Baina askatasuna bera, hori dena baino gehiago da. Zerbaitetarako biderik baino gehiago da. Helburu. Eta administralgo, politika edo legeria hobek, berak dira askatasunerako instrumentu, ez alderantziz.

Herri guztiek, bada, eta komunitate guztiek, kosta ala kosta defendatzen dizute bere askatasuna. Normala hori da. Beraz, Aberri Egunak zein sentido duen ere, askatasun borrokak argitzen du. Aberri Egunaren ospakuntza elkar daiteke xede eta eslogan konkretu, mugatu batzuekin (Autonomia, Amnestia, etab.), momen-

tuko helburu inmediateen arabera; baina ez dirudi egoki, Aberri Eguna helburu horietarako instrumentu bihurtzea eta horretara mugatzea: aitzitik, Aberri Egunaren sentido orokorraren barruan dago egin-kizun horien sentidoa, zatikazkoa. Basoak arbola ikustea eragozten duenean, Aberri Egun "hutsa", folklore eta festa bihurtzen da; baina arbolak, momentuko esloganak eta borrokak, basoa ezkututzen badi, Aberri Egunak utzi egingo du Aberri Egun izatea, demostrazio tradizional haundi samar batetarako egun seinalea bilakatzeko, urtero xede diferentetz. Eslogan politiko, sozial, bakoitzak, Aberri Egunaren eta askatasun borroka nazionalaren sentido orokarrak koordinatuta joan beharko du.

ENGELSEN GUTUNA PABLO IGLESIASI.

Engelsek ondo ezagutzen zuen, nola, guztiaren gainetik, nazioak bere askatasuna behar duen eta zaintzen duen. 1893-ko apirilean P. Iglesiasi egin-dako gutun batetan honela mintzo da maiatzaren 2.gnaz:

"Alde batetik eraso-tzaile arrotza, bestetik Madrillgo herria... Espainol herriak, erasoaldi arrotza eta Napoleonen tirania borrokatzeko, Frantziako iraultza ere borrokatu beharra izan zuen; eta bere independentzia berriro eskuratzeko, behartuta aurkitu zen espainol herria, Fernando VII fanatiku ergelaren despotismoa berriro

eraikitzen, haren sostengua noblezia eta apezak bait ziren".

Eta hori ez da Espainian bakarrik gertatu: "Gauza berbera Italian, Alemanian, eta Frantzian bertan ere: beren buruak, erreparorik batere ipini gabe, erreazio monarkiko feudalari entregatuz bakarrik, lortu ahal izan dute bi herriok askatasuna, Napoleonen uztarpetik".

1870-ean Frantziak Alemaniari eraso zioenean, Marxek eta Engelsek, proletalgo alemanaren "lehenengo obligazioa", beren familia goseak eta beste problemak atzera utzi, eta "aberria defendatzea" zela, proklamatu zuten... "Esistentzia nazionala berritzeko borrokak beste oro bazterraraziko du" (Engelsek Marxi). Poloniar sozialistek "beren programaren buru-buruan nazio askatasunerako borroka" ipini behar dutela, insistitzen du Engelsek (1882).

Engelsek geroz eta gehiago azpimarkatzen du, Engels zaharrak batez ere, askatasun nazionalaren inportantzia: "Historikoki inposible da herri haundi batentzat, bere baitako beste hauzirik seriozki eztabaidatu ere egin ahal izatea, askatasun nazionala falta zaion artean", idazten zion Kautskyri.

(Gauza jakina da, Engelsek berak, berjabetasunaren inportantzia "nazio haundietara" mugatzen zuela; baina, orobat jakina, mugadura harek apreziazio oker batetan oin hartzen



Hau ere bai da Aberri Eguna

zuela: herri ttipiak ez zirela bizirik irtetzeko gauza izango iraultza industrialaren nahasmenduetatik, iruditzen bait zitzaion).

ABERRI EGUNA,
EUSKAL NAZIOAREN
EGUNA.

Sabin Aranari, bere anaia Luisek ireki zizkiola begiak, kontatzen da. Biak estudiante ziren denboran, goiz batez, elkarrizketa luze batetan etxeko baratzean, bere anaia zaharra-
goak erakutsi zion Sabini,

Bizkaia ez dela Espainia ("me sacó de las tinieblas extranjeristas", aitortuko du liturgikoki Sabinekin berak Larrazabalgo Diskurtsuman): "tantas pruebas históricas y políticas me presentó él para convencerme de que Bizkaya no era España..., que mi mente... entró en la fase de la duda y concluí prometiéndole estudiar con ánimo sereno la historia de Bizkaya y adherirme firmemente a la verdad".

Eta goiz argi hori,
1882-ko Bazko Igande



Hau ere bai Aberri Eguna da.

goiza zen. Alegia, Engelsek Kautskyri, "historikoki imposible da herri haundi bantentzat, bere baitako beste hauririk seriozki eztabaidatu ere egin ahal izatea, askatasun nazionala falta zaion artean", idazten zion hurte hura.

"Bendito el día en que conocí a mi Patria!", hunkitzen zen Sabin Arana. Eta goiz —Bizkunde edo errebelazio goiz— haren oroigarri ospatzen da gero Aberri Eguna Bazko Igandez.

Baina berrogei eta hamar urte geroago bakarrik hasi zen euskal herria Aberri Eguna ospatzen: hau da, Aberria ezagutu izana ospatzen. Ez bait da hori ahaztu behar: alegia, euskal herria, polliki-polliki heldu dela, Kalbario mendí luze baten buruan, Aberria ezagutzera. Bazko Igandera.

Aberri Egunaren sentidoa lehen-lehenengotik eta hasiera-hasieratik dago garbi: euskal nazioaren eguna da (Aranak berak "arraz" esango zukeen, noski). Euskal Herriaren askatasun borrokan, biraketa radikal bat eman du Arana Goirik: ordura arte foralismoan oinarritzen zen, orain nazio konzeptuan. XIX.gn mendeko euskal askatasunaren borrokariak (Zumalakarregi, Santa Kruz Apaiza), foralistak izan dira; Aranaz gero "nazionalistak" gara, "abertzaleak": alegia, gure askatasuna, noizpait Forurik edo izan genuelako ez, baino nazio bat garelako, esijitzen dugu, eta ez dugu

esijitzen, mundu honetan edozein naziori aitortzen zaiona besterik. Gure Foruak gureak direla, eta Foruak erreklamatzeko zituen foralistak; baina orain, Euskal Herria, lehenago sekula Foru berezirik izan ez balu ere, nazio bat dela eta nazio bezala ezagutu dadila, esijitzen dugu. Lehena-
go sekula nazio konzientziarik izan ez balu ere, orain baduela, eta nazio den eta nazio sentitzen denaren eskubideak esijitzen ditugu: bere buruaren jabe izateko eskubidea, h.d., berjabetasuna, h.d., independentzia, h.d., Euskadi askatua.

Aberria, euskal nazioa, ez da Bidasoan bukatzen; ez da Etxegarateko bizkar portuan ere bukatzen. Eta ez da hamasei euskal deitura garbirekin hasten. Aberri burutaera aldatu egin da Aranaz gero. Gelditu dena, da, askatasun borroka, Foruen itzulpenarena ez, baino nazio berjabetasunarena dela. Independentziarena. "Euskaldunaren aberria Euskadi da". Zoritxarrez, harako bestea ere gehiegi gelditzen da oraindik: "la desgracia más grande del bizkaino es el no conocer a su Patria". Patria, ab-herri da; herri, hain zuzen. Ez, lau muga zoro. Ez, holako edo halako instituzioren batzuk, haien nagusia baino: herria. Eta askoz gutiago, kasta pribilejiatu, edo jauntxo, edo burges ttipi ala haundirik: baina herria, eta herria bere buruaren —Euskadiren— jaun eta jabe.

Joxe Azurmendi

1964.EKO ABERRI EGUNA GOGORATUZ.



Orduan gazteago ginen eta, ezin asmatuz, ez genekien orduantxetik geuk moldatzen ari ginekoko etorkizunak zer ekarriko zigukeen. Ez nekien nik. Ez zekiten Tomasek ez Manuk. Eta ez zekien orduan haur bat besterik ez zen Jon Goikoetxea berak ere.

E.G.I.KOAK GINENEAN

1964.eko Bazko egun hartan Aberri Eguna Gernikan ospatzekoa zen. Gerra ondoko lehen Aberri Eguna. Orduan hamazazpi urte nituen eta eskolapioen ikastetxean ari, azken ikasturtea bukatzen. E.G.I.-n nengoen, geunden, eta orduan ez zen oraindik eztabaidatzen Euzko Gaztedi PNV zen ala ez. Aski erregulariki Gudari aldizkaria jasotzen genuen, gero lagunaren artean eta etxeetako postakutxetan banatzeko. Hirur lagun ginen, Manu Reguero (alias "Errege"), Tomas Trifol eta ni. Jadanik euskara ikasten geniharduen. Mintzaten gehienik zekiena, seguraski, ni nintzen, baina Manuk literatura eta toponymi estudioetan erraz gaindizten ninduen.

BIDEA

Gernikara joatea, polizi kontroletatik ihes egiteko, mendiz egitea erabaki zen. Aurtenetxek, E.G.I.ko gure arduradunak, igande hartan, oso goiz, sei t'erdietan edo, Bilbo Zaharretik Lezamara tren bat irtengo zelako abisua emana zigun. Bertan joanen ginen guztiok, gero, handixek, mendiz Gernikara heltzeko. Eguraldi txarra zen, hurrengo Aberri Egunetan bezala. Botak jantzita generamatzan arren, ez zen horregatik erraza basoko bideska zikinetatik ibiltzea. Gurekin, gogoan daukat oraino, gudari mordoa zetorren, asko seme-alabez lagundurik gainera. Bat, baina, oso nabari eta ahantzezina, mantxua, besomotza baitzen; zenbait urte geroago haren deitura gure pantheoian geratuko zen betiko: Goikoetxea.

Argazki zaharrek egoera iraganen sorgindura gordetzeko ahalmena dute. Eta horrela, Prousten antzera, hura berreskuratze-ko, denbora galduaren bila abia gaitezke argazkien bidez. Behin baino gehiagotan aurkitu ukan ditut photo hauk, 1964.eko Aberri Egunean eginak, eta beraien eskutik, buruko zokondo ilun eta hautsez-taturen batetik, ekto-plasma lainotsu baten gisa, orduko imajinak, orduko bizipenak animatzen hasten zaizkit beti, pipari darion kea bezala.

Bideak toki askotan laban zeuden, irristakor, eta euri gehiegiagatik zenbait lekutan moztuak, lurrak jausita. Batzutan, handik ibiltzeko, eskuz eskuko giza kateak egin behar izaten genituen, elkarri lagunduz. Ixilik genbiltzan, beldurrez ere bai. Ez zen ia ezer entzuten, zirimirri atergabearen murmurio grisa izan ezik. Baserri inguruetatik pasatzen ginenean, inoizka, txakurren zaunkadak; besterik ez. Eta boten txipli-txaplak bideko potxingoetan. Gudari zaharrek bidea ongi ezagutzen zuten, baina tarteka, aurkitzen genituen baserriarrei informazioa eskatzen zieten, ea poliziaren jeepak handik ote zebiltzan, bide laburrago edo eta ezkutuagorik ba ote zegoen... Guztiak beren laguntasuna eskaintzen ziguten oso osoan.

Gutariko gehienok euskaldunak ginen, Bilbotiko gazte batzu izan ezik, baina euskaldunon artean ere, erdara besterik ez zen aditzen ia. Bilbotarrak neska-mutil gazteak ziren, dantza edo folklore talderen batetakoak gehienak. Garai hartan E.G.I.k izugarritzko bultzada ematen zien folklore taldeei, Sabin Egiguren dantzari adoretuari esker bereziki.

GERNIKAN

Gernikara sartu aurretik zenbait abisu eta kontseilu eman ziren, poliziak harrapatuak izanez gero, zer esan jakiteko. Ardoari zurrutada batzu egin ondoren —hotza zen eta guztiok euritan blai gentozen— han, Gernikaren sarrerako ermita baten ondoan, harizti batetan Manuk argazki bat egin zigun. Neronek eskatua nion bere kamera osabari, orain gogora ditzakedan oroigarriok egiteko.

Gernika barruan ez zen beste mundukorik geratu. Jendea pilatu eta pilatu egiten zen kaleetan, batzarretxearen aldean batez ere. Euritako beltzez estalita zeuden kaleak eta euriak, beti gris, gabardinak, kaiku berdeak, sotanak, txapelak eta goardia zibil harrituak etengabeki bustitzen zituen. "Circulen! Circulen!" entzuten zen noizik behinka, eta jendeak jaramon egiten zien... astiro, oso astiro baina. Giza uholdeak ziren haik. Autobusez, trennez, automobileraz... edonola etorriak, kontrolak gora behera, baina hantxe zeuden, zahar eta gazteak, neskek eta mutilak. Ez zen oihurik egin. Nik neuk



Bidea apurtua egon arren, elkarri eskua emanaz giza kateak moldatzen genituen, aurrera, beti aurrera, gaur arte, segitzeko.

PASADIZO BAT

Gernikan J. J. Pujana aurkitu genuen, gaur PNV-en hain kargu gora duen berbera. Eskolapioetan zebilen bera ere, eta, agian euskaraz mintzatzen zekielako, aita Justo Mari Mokoroaren adiskidantza osoa zeukan. Guk, jakin, ba genekien hura abertzalea zela eta, noski, egotekotan —orduan ETA ia ezezaguna baitzen— PNV-en zegokeela. Baina gurekin ez zeukan berak inolako traturik. Alde batetik,

eta hori ere zerbait zen, gu baino zaharragoa zelako, apezgaitegitik irten berria eta, ene irudiko, giza truetan luze-laburrak ongi markatzea gustatzen zaien horietakoa. Berak ere bazekien, nonbait, gu zertan ari ginen, bai eta nola genbiltzan euskara ikasten, baina, hala ere, ez zigun kasu handirik egiten. Haren portaeraren lekuko zehatza da, hortaz, kondartzera noana, pertsona baten barik, ideologia baten ispilu datekeena.

Tomas Trifol, bi urte geroago erabat ETAn sartuko zena, euskara kontuan berria zen oraino. Ez zeraman aste guti besterik ikasten. Halako batean, Pujanak izena galdetu zion Tomasi. Berak Tomas Trifol erantzun zionean, hark **¿Y qué más?** gaineratu zuen. **Madrazo**, besteak. Orduan, Pujanak, euskaraz ba ote zekien galdetu zion. Tomasek egia erantzun zion, hots: **—Estoy aprendiendo, pero todavía no sé hablar.** Pujanaren erantzutegia anthologikoa gertatu zen: **—¿Y llamándote así y no sabiendo vasco, te atreves a venir con nosotros al Aberri Eguna?** Hitz haiek jauna morroiekin hitz egitera zergatik ez zen makurtzen aski garbi erakusten

behintzat ez nuen ezer aditu. Baina elkarri begiratu bai. Nolako begiradak. Euriak malkoen lotsa estaltzen zuen egokiro. Ez dakit non bazkaldu genuen, baina inguruaz, poztasunaz, aseta geunden jan gabe ere. Etxean amak prestatu zigun otartekoa, Kasaz lagundurik, euriaren gristasun malenkoniatsupean irensten genuen astiro. Polizia sekretu asko omen zegoen. Garai hartako polizia sekretu beldurgarri eta erdi mythikoa. Horregatik aurpegieta mesfidantza ere agertzen zen, ondokoaren ikara.

Egun hura gogoangarria izan zen benetan.

zuten. Harentzat, nonbait, Trifol, Reguero edo Quintana deiturako gizaki haik zerbait kirats ziren, paria gisakoak, harremanak ongi mugatzekoak. Eta hori euskaraz ikasten saiatuak izan arren, eta orduan Bilbo osoan ez ginatkeen bi dotzena baino gehiago horretan genbiltzan zorook. Eta guztiok, horregatik alderdi berekoak ginen, zeren orduan familia onekoak eta kasta txarrekoak publikoki bereiztea bidezkoa baitzen. Batek jakin, behialako arranoak zeritzenez, berak ere gure modukoek euskara ikasi nahia onhartzinezko sakrilegiotzat ez ote zuen jotzen.

Tomasek hargatik hartu zuen amorrak, despitaz, euskara sakonki ikastera bultzatu zuen, hilabete guttitan bestean parean jarri arte. Baina, zoritxarrez, kondatu dudana moduko ahotik hitz berberak entzutean zenbat eta zenbat lagun ez ote dira holako "abertzaletasunaz" nazkaturik irten. Eta Ruiz Olabuenaga gisako soziologoek hortik diotena gora behera, Euskal Herriko etorkinek euskal nazionalismoaz daukaten ideia faltsua hortixek sortua da gehienbat, eta ez geroago-koengandik.

ETXERA

Trennez itzuli ginen. Tren izugarri bete batetan. Trenbidetik gindoazela kaminoa genekusan, kontrol ez betea, Gernikara helterik ukan ez zuten autobus eta kotxez aseta, eta guk haiei eta haiek guri eskuaz eta zapiez agur. Euria zen arratsaldean ere. Hodei grisak gainean eta trenaren harat-honatetan malkoak zebiltzan dantzan. Etxera gentozen eta buruan egun hartan bizi izandako irudi anizkor eta ugariak nahasian... Euri tanten tarratadak treneko leihoetan. Haize heze, bustia.

Aberri aurkituaren ametsak, poliziaren, arriskuaren presentzia, etxekoen hertsikeria, mintzatu ezina, giza piloek sorterazten duten euphoria. Ondoko neska kaikudunaren aurpegi graziosa, bagoiaren beste puntako irrintzi zolia. Aberri Urtea gelditzen zitzaigun aurrean bizitzeko oraindik, Herriaren aldeko beste hirurehun eta hirurogeita hirur egunak. Lan egunak, gaueko pintaden egunak. Panphleto botatzeko egunak. Euskara ikasteko egunak. Gaurdainoko egunak...

Xabier Kintanak

Azken urte hauetaraino, Ipar-aldean "ABERRI" hitza, arras guti ezagutua zen eta, beraz ere ABERRI EGUNA.

Lau aldiz, ABERRI EGUNA, haundizki hospatua izan da Iparraldean. Haundizki hospatua ez zen urteetan, Iparreko abertzaleak joaiten ziren Hegoaldean eratu ABERRI EGUN-erat... Eta, harat ezin joana zutenentzat, Itsasun muntatzen zen abertzale-bilkura bat, Bazkoz edo Bazko biharamunean.


1963 - Lehen ABERRI-EGUNA - Itsasun, Bazko astelehenez.

ENBATA-koek eratu zuten.

Goizeko mezaren ondotik, landatu zuten haitzondo ttipi bat. Hari lotu ikurrin bat. Haren inguruan bildu ziren 1.200 presuna. Ximun HARAN eta Julien MADARIAGAK goratu zuten ikurrina. Irakurtua izan zen Abertzaleen Ageria (Hau, geroztik zizelatua izan da harrian, han berean). T. MONZONek egin zuen mintzaldia. Ondotik, auresku bat dantzatu zen eta Eusko Gudariak abestu.

ABERRI EGUN hospatze hontan, aurkitu ziren zenbeit nazionalitate ttipitako ordezkari batzu (Betrouin, Ozitano eta abar). Bazkal ondo, mintzatu ziren LABEGUERIE, ERRECART senadorra eta bertze batzu.

Oro, pakean bukatuko zen, ez balitz hor azaldu, arratsaldean, Espainol Poliziako gradudun bat, Lapena izenekoa. Huni, zenbeit abertzalek, zanpal-



di bat eman zioten eta bere paperak kendu ziozkaten.

1971 - Donibane-Lohitzune - Bazkoz.

ENBATA-koek eratu.

Bazko bezperan, Prefetak agindurik, André ITHURRALDE Donibane-ko Alkateak, debekatu zuen. ENBATA-koek erabaki zuten, debekatuagatik, horren hospatzea.

Hamabietako, milako bat abertzale bildu ziren musikalekuaren ingururat. Hor zagon, Polizia ugari... Abertzale batzu, jauziz jabetu ziren musikalekuaz. Izan zen borroka polizigon batzurekin. Berehala, manifestapen bat muntatu zen Donibane-ko kale nautsian. Manifestapen hortan, protesta eginez, bandera frantses batekin, sartu zen Roger ERBITI, Donibandarra, bere lagun batzurekin. ERBITI hori zen "Service-Action Civique" (S.A.C.)ekoa. Frantziar, "SAC" da, Espainiako "Fuerza Nueva" erakundearen antzekoa.

Abertzale zenbeitetik Erbitiri, bandera eskutik kendu zioten eta hankapean zapikatu. Polizia etorri zen bere makilekin, "ordrea" ematerat.

Arratsaldean, abertzale gazteek "sitting" bat muntatu zuten musikalekuaren inguruan. Poliziak pakea eman zioten.

Arratsean, T. MONZONI ez-ezagun batzuek erre zioten, bere baserri lurrean zuen borda-etxea.

Zenbait egun geroago, bonba batez, nahiko hondatuak izan ziren ERBITIren kamioia eta etxea.

Aberri-Egunaz legez ez zutelakotz errespetatu abertzale batzu deituak izan ziren hauzitegirat. T. MONZON eta TXILLARDEGI urrunduak izan ziren lau hilabeteentzat, Euskal-Herriatik urrun, Gers departamendurat.

1972 - MAULE. Bazkoz.

ENBATA-koek eratu.

Aberri-Egun hau ere, prefetak debekatu zuen. Bere Polizia bidali zuen Maulerat eta harat joaiten duten bidetarat.

Bainan, oraikoan, Mauleko Alkatea, SUPERVIELLE jauna, liberala baitzen, gure alde azaldu zen. Bera etorri zen gutarterat, bazkaltzerat eta guzi.

Mezaren ondotik egin zen, manifestapen bat kalean eta, Itsasun bezala, ikurrinaren hospatzea.

Arratsaldean, Polizia bere makilekin oldartu zen, multzoka manifestatzen zabiltsan talde batzueri. Bertzeak bertze, kasaila bat gertatu zen, Polizia eta Pierre TEILLETCHÉ, gertari ohi eta medailatuaren artean. Han zen, Donibane-Lohitzuneko abertzale bat. Milako bat abertzale bildu ziren Maulen ere.

1973 - Donibane-Garazi. Bazkoz.

Aberri-Egun hau, ez zuen ENBATA'k eratu, bainan abertzale gazteen elkarte batek.

Prefetak ez zuen debekatu. Polizia ezkutaturik egon zen.

Antolatzaileek, Aberri-Egun huni, gizarte-borrokaaren itxura eman zioten. Ikurrina hospaturik beti bezala, toberen tanke-rako teatro-lan batzu aurkeztu zituzten, kale-kale erabiliz. Teatro-lan horren bidez, salatzen zuten, Ipar-Euskadi'k Frantziaganik, era guziz, jasaten duen zapalkuntza. 1.500 bat abertzale bildu ziren Donibane-Garazin.

P. LARZABAL

AQUI VENIMOS LOS ABERCHALES: RIAU, RIAU.

Herri guztien berdintasuna: horra hor internazionalismoaren lehenengo helburua.

Nazionalismoak, aldiz, eskuindarren naziokeriak alegia, besterik uste du eta proposatzen: herri batzuek ba dutela beren buruaren jabe izateko eskubidea; eta beste batzuek, berriz, honengatik edo hargatik, ez dutela eskubide hori. Eta suntsitu arte iraun behar dutela, hortaz, besteen mendean: etxean arrotzen eskuetan eta erdaraz mintzo, anaiartea bi puskatan puskaturik, eta naziotasuna galdu ez dutenak beren buruez lotsaturik.

Naziokoiak, hitz batez, bere herri onesten du; baina gainerakoak ukatzen eta gaitzesten.

Abertzaleak, itzulelara, bere herria maite duelako, eta inperialismoa zer

den ongi dakielako, beste herriak ere errespetatzen ditu.

Gaur, horretara, Salamanca eta Dordognen euskaltasuna sartzeko asmorik ez duelako, abertzalea da internazionalista bakarra. Donostian eta Iruñan euskaltasunaren indarkuntza ikusi nahi ez duena, berriz, inperialista da. Hots, instituzioak ukatzen dituenak herria ukatzen du; nazio eskubideetatik at ez baita herririk salbatzen inperialismotik.

Naziokoiak chauvinismoa du oinarritzat, bere izaera-moldea nahi du esportatu; bestea beste izateko eskubidea ukatzen du. Gure herrian, esate baterako, naziokoiak ukatu egiten du euskaldunok euskaldun egoteko dugun eskubide sakratua. Nazionalista, "norteñada"ren alde dago Euskal Herrian; "norteñada" delakoa, bestetasunaren ukaera, eta inperialismoaren baiespena den neurrian, hain zuzen. Inperialistak ontzat eman lezake agian "Región Vascongada" delakoa; baina kondizino bakar honetan: Salamanca-ko segida hutsa hemen gertatzea.

Hots, erlijioak babesten zuen lehen inperialismoa: R. Maeztuk lotsagabeki idazten zuen halako batez Amerikatako "indioen arimak salbatzeko" joanak zirela haraino espainatar kolonizatzaileak (horrelakorik inor gutxik sine-tsi bazion ere!...)

Gaur, berriz, XX. mendean, bandera gorritzuzenesten da inperialis-

moa; eta kapitalismoaren kontrako burrukak behartzen omen ditu sozial-inperialistak zapal dutako nazioaren eskubideak ukatze-ra... Gaurko inperialismoari sozial-inperialismo deritza; eta bere kopetean "sozialismo" hitza dakar nabarmen.

Giza-giro horretan aztertu behar da aurtengo Aberri-Eguna; eta ez beste inola.

Aberri-Eguna, bere izenak berak garbiki azaltzen duenez, Aberriaren eguna da, Euskal Herriaren eguna: euskal nazioaren eguna. Aberri-Egunean euskal herri zapaldua ospatzen dugu abertzaleok.

Nork zapaldua? Inperialismoak (eta bertako "quisling"ek) zapaldua izan den eta den gure herria. Aberri-Eguna, hortaz, beraz da inperialismoaren aurkako egun berezia; eta hori ez bada, anti-inperialista ez bada, fartsa eta komedia hutsa da.

Aberri-Eguna ez baita euskal "gauzen" eta "dantzaren" eguna bakarrik. Aberri-Eguna ez baita euskal "kantuen" eta "ikurriren" eguna bakarrik. Aberri-Eguna hauxe baita zahazki eta denen gain: euskal nazioari, herri desberdín gisa, bere burua antolatzeko eta gobernatzeko dagokion nazio-eskubidearen eguna.

Aberri-Eguna, hortaz, abertzale guztien eguna da; eta ezin daiteke, errotik beretik lardaskaturik gertatu gabé, sozial-inperialisten eguna izan. Euskal Herriaren nazio-eskubideak ukatzen dituztenek, nekez os-

AQUI VENIMOS LOS ABERCHALES: RIAU, RIAU.

pa dezakete beren eguna abertzaleen egunean!

Aurten, ordea, prentsaren bidez jakin dugunez, sozial-inperialisten arabera eta bedeinkazioaz ospatuko da Aberri-Eguna. Blas Piñar-ek ez du bil-deia sinatu. Bejondeiela honetaz pozik geldidatezkeen!

Lehen-lehenengo, laprastada hau: Iparraldeko abertzaleak ezertarako ere hitzartu gabe hartu direla aurtengo erabakiak. Sozialdemokraten buruan ez baita inolaz ere sartzen hazpandarrak eta atharraztarak gure anaiak izan daitezkeenik. Aberri-Eguna Hegoaldeko lau hiriburuetan, eta ez bestetan, ospatuz, aberritasunik gabe gelditu gara; baina "norteñadaz" bap horniturik.

Eta bigarren laprastada, eta lehenengoaren tankerakoa: Autonomi-mailan eta Unibertsitate-mailan batera, Nafarroa gugandik baztertu nahi denez geroztik, Nafarroan behar zela ospatu, hain zuzen ere, aurtengo Aberri-Eguna; eta Iruñan, eta ez beste inon. Ez sakabanaturik.

Aurtengo Aberri-Egunak, horretara, gure atzerakadaren neurria ematen du: gauza "ondo" doa, "integraturik" goaz... Zeri buruz?

Eta hori ikusita, abertzaleok, abertzale ezkertarrok bederen lehendabizikorik, programa abertzale minimo bati buruz zeharo elkartu eta anaitu beharrean, alferrikako hipzideak ahaztu beharrean, geure liferentzietan eta ñabardu-

retan jarriko ditugu begiak. Eta edozein txorimaloren atzetik joango gara aldraka, helburua berriro galdurik.

Eta aspaldidaniko amoranteak ikusiko ditugu eskuin aldean, beste berrogei urtez musuka eta marusketa beroan; eta ezker aldean, bandera gorri askoren artean, "taktikaz" errepikaturik, hau entzungo dugu kaleetan barrena datorren 26-an: "Riau, riau! Irrintzi va que chuta! Aqui venimo lo norteño aberchale!"...

Segi! Segi horrela, aberkideok! Eta barre ozenik entzungo da bazterretan!

TXILLARDEGI

Donostia, 1978/III/13

EUSKADI LIBREAN, LANGILE LIBRE.



Arana Goirik "arraza" esaten zuen: Unamunok eta Barojak bezala. Eta Ortegak. Orduan hala esaten zuten, euskal arraza. Arraza teoria bat, Aranek ez du, bestela.

Nolanahi ere, nazionalitate printzipioa, kontentplazio gabe eta kontsekuentzia guztiekin, proklamatu du Sabinek: "... España y Euskeria son dos naciones tan distintas y diferentes entre sí como Euskeria y Alemania y más distintas y diferentes que lo es Alemania de España, — así sean también independientes entre sí en lo político".

- "Los bizkainos no somos españoles ni por raza, ni por el idioma, ni por las leyes, ni por la historia".

- "Bizkaya no es de derecho española, como no sea por el actual derecho constitucional; si de hecho es provincia española, lo es a pesar suyo y contra su voluntad".

Eta esijitzen du:

- "absoluta independencia de Bizkaya"

contra toda política española”.

BI NAZIO ALA/ETA BI KLASE.

Urteetan bi planteiamolde elkarren kontrario eduki ditugu Euskal Herrian, funtsean biak berdinak beren estrukturan, dualistak eta eskusibistak biak, alternatibistak: hemengo borroka ez dela bi nazioaren artekoa besterik; ez dela bi klaseren artekoa baino.

Eta batek ala besteak, begien bistako errealitate pila bat uzten zuen esplikatatu gabe, azkenean nazio-tasunaren edo klase borrokaren metafisika konplikatuetara apelatu behar izaten baitzuten.

Nazioarena Aranak bezalakoxe radikalismoz —eta eskusibismoz— proklamatu zen klase borrokaren printzipioa XIX mende azkenetan.

Eskusibismo edo alternatibismo sinplista horik gehienbat gaintitu ahal izan dira urteotan. PNV-an ere ba dakite, hemen ez dagoela nazio arazoa bakarrik; PSOE-n ba dakite, ba dagoela nazio arazo bat ere. Halere, ezin esan daiteke, planteiamolde alternatibista hartatik eta harekin sortu ziren taldeketa klasikoak (“abertzaleak”: PNV...; espainolistak edo klasistak: PSOE, PCE, MCE...), oraindik, eta beharbada berriro eta gezoz bortizkiago, beren hasierako dinamika ez daramatzunik. Urak errekaratuzten dira; Alderdiak beren jatorrizko tradizioetara; eta pentsabideak eta teoriak eta filosofiak, oinarrizko beren eskemetara eta dinamikara. Azkenean, hasieran bukatzen da. Egunitik egunera hobeto ageri da, Alderdi ezberdinen jokabideetan, hosto berrien azpian dagoen natura zaharra.

UCD: EZ NAZIO ETA EZ KLASE, INPERIO.

Planteiamolde orijinala, berri-berria (bostehun bat urte besterik ez duena), Euskadiri historiko nahiz politikoki dagokionean, UCD-ek egiten digu, noski: hemen, ez nazio eta ez klase, Inperioa besterik ez dago eta hori haunditu behar da. Kito, San Kito.

Zer axola dio, gero, Nafarroa Euskadi den, ala Euskadi Nafarroa. Inperioa da behintzat.

ABERRIA, ABERRIAK DA.

Aberria ez da kontzeptu bat kaskoan: klase bakoitzak bere erara okupatzen dizun, hartzen dizun, errealitate sozial, politiko, kultural, historiko, geografikoa da.

Aberria, momentu honetan, Euskadi hautsi.

zanpatu, lan gabeko, eskolabide gabeko, zikin, marxista, nazkagarri hau da. Askatasun borroka nazionala, klase bakoitzak eta talde bakoitzak bere errespasioaren ikuspidetik ikusten eta egiten du. Arrantzaleak, Euskadi bat itsaso librez egin nahi du; haurrak, eskolak aplastatzen ez duen Euskadi bat; emakumeak, emakume sortu izana diskriminatzen ez duen aberri bat. Bakoitzak bere askatasuna egiten dizu.

Askatasuna, askatasunak da: aberria, aberriak da.

LANGILEEN ABERRIGINTZA.

Lehenago esan zezakeen Engelsek, XIX mendean, nazioa askatu beharra zegoenean, langileak, bere klase interesak utzi, eta klase nagusiari lotu behar zitzaiola, okupatzaileen aurka: klase erreazionari hutsei berei, zenbait kasutan.

Gaur egun, langileria aski indartsu da, aski organizatu eta kontzientziatua dago nazio zapalduaren barruan, bere interesak modu horretan sakrifikatu behar izateko. Bere klase borroka eta bere nazio borroka batera eramanez ditzake aurrera: are, gidari ere bilaka daiteke bera, nazio askapen eta aberri gintza borrokan. Aberri Eguna: haurren, emakumeen, langileen, arrantzaleen, nekazarien, ikasleen..., egiteko Aberriaren Eguna da. Euskaldun herriaren egiteko askatasunarena.

ABERRI EGUNA 78: DURANGON

Lazkano Mendizabal

ABERRI EGUNAZ



Aberri Egunaren arazoa eta gaur egun Euskal Herriak duen arazoa, autonomiaren aldeko burruka alegia, ezin daitezke banan. Eta aririk ateratzea ba dirudi ere, euskal nazional eskakizunak zein koordinadatan mugitzen diren kontutan hartzea ez da aparteko zerbait. Aurrenetik argi ta garbi jakin behar genukena zera da, gure nazional helburuak aurrera ateratzeko uka ezinezko indar bat behar dugula. Bainan indar hori bilatzekotan ez da aski Euskadin bakarrik bilakatzea, derriorezkoa zaigu munduko eta Europako textuingurua begiraturik bilakatzea, are gehiago, Euskadi bi estatuen artean erdibiturik dagola eta politikoki instituzionalitzea dela dugun eskapen nagusia kontuan hartzen badugu.

Puntu honek bultzatzen nau gehienbat politikaren bi dimentsio horiei lotzera lehenbizi, Europako eta munduko textuingurua alde batetik eta Estatu textuingurua bestetik, eskakizun nazionalaren funtsezko aldea azpimarkatu baino lehen, hau da, Euskal Herriko lurralde guztietan eskakizun nazionala zabaltzea. Ari garen boluntarismo itsuak gure jokabide politikoa eragin behar lukeena ez ikustera bultzatzen gaitu.

Munduko interesak ez direla gaur Euskal Herrian finkatzen esatea, ez da gehiegi esatea, edo hobeki, munduko politika darabilten indarrek ez dira euskal botere politiko baten aldekoak, kontrakoak baizik, eta hori argi dakusagu Frantziako kasuan. Ez da erreza jakitea zenbat aldaketa eman beharko lirateken horietariko norbait positiboki Euskal Herriaz arduratzeko.

Bestalde argi dago niretzat, gaur egun, gure irtenbideak Estatu barnean gertatuko denari atxikita

daudela. Iragan garaietan bezala. Hau esaterakoan ez dut esan nahi Ipar Euskadi aiantzi behar dugunik. Ipar Euskadi, Hego Euskadiren politikan presente egon behar du. Bainan boluntarismo eta teori hutsezko adierazpenak baino harreman taktikoak premi gehiago dute gaur, bihar politiko eta administraziozko harremanak bihurtu ditezten. Laburdi, Behenafarroa eta Xuberoren perspektiba nazionala hobegotzea ala ez Estatu barnean egoki edo desegoki jokutzen dugun araberan dago, guk Hego Euskadin politiko botere indartsu bat lortzen dugunaren araberan.

Ebro eta Auñamendien artean bizi den Herriarentzat lurrez eta demografizko balioa nahi ta nahiezkoa dela, zeinek aiantz dezake?

Hego Euskal Herriaren lau probentziren batasunik gabe, arazo aski zaila bestalde, laguntza eskasa itxaron dezakete Ipar aldeko anaiek.

Uka ezinezko garrantzia du Espaniako Estatu barnean gertatzen denak egungo euskal politikarako. Nola erantzun diezaiokegu? Batzuek Galeuscan jarri zituzten euren begiak: iraganak, beraren balioa agertzen zuen heinean, beraren eskasia agertzen zuen, eskasi hori gaur Euskal Herrian ematen indar politikoen molduraren araberan handiagotuz. Estatu barnean gehiengoan indar politikoen hartuko duten jokabideari atxikita dagola Estatuaren organizatzea, nahi ta nahiezko kontu bat da, eta ez federalizatzea bakarrik —berez arazo inportantea eta zaila— baita deszentralizatze soil bat ere. Posible izanen al du Euskal Herriak Erdi Haroan zuen politiko errealismoa berriz beragantzea?

Munduaz, Europaz eta Estatuaz aritzeak, Euskadi nazionalki egitea, Euskal Herriko erkidegoaren

gain, batez ere ezer ez dutenen gain, dagoen arazo bat denik ez gaitu ahaztera eraman behar. Eta ikusmira hontatik aipatu nahi nuke zerbait Aberri Eguna dela ta.

Lehen nazionalismoaren etsipena —baita Ekainaren hamabostari lotzen bagaizkio oraingoarena ere— den EAJ-eri zor diogu abertzaletasunaren dotrina, sinboloak eta errituala egitea.

Baina iragan garaitan dotrina, sinbolo, eta erritual horik Euskal Herriko erkidegoaren zati baten, ez besteren, ondarea zen; hain zuzen ere Errepublikara garaian, Bizkaiko o/o 27, Gipuzkoako o/o 30, Arabako o/o 17 eta Nafarroako o/o 7'5 ematen zioten botoa EAJ-eri. Gogoangarrizko Aberri Egun haietan, 1930 inguruan, harrigarria zen milaka jeltxokidek erakusten zuten aberriarenganako adorea; baina hau herriaren zati baten izpilu zen: EAJ eta EAE-ko abertzaleak izugarritzko manifestapen haientara zihoazten bitartean, beste euskaldun asko, egia esateko gehiengoa, "sozialistak", "komunistak", "karlistak", "cedistak" e.a. euren kontrako zen alderdi baten arazo bat balitz bezala juzkatzen zuten.

Zorionez, eta ez dago arrazoirik eman beharrik, gauzak aldatu dira. 36-ko gerrak, hilabete batzuek lehenago kaleetan zehar elkarren aurka zebiltzatenak, trintxeretan eta ikurrin baten azpian anaitu zituen helburu baten bila mugitu zirenak. Francoren aurka gerra egin zutenen ahaleginak eta horren esanahiak, eta azken hogeitorteko bururkak, Errepublika garaian uste ezinezko ondorioa ekarri du: lehen alderdi baten dotrina, sinbolo eta errituala ziren elementuak, nahiz herri osoarentzat izateko asmotan ibili, orain herri osoaren batasunerako elementutzat erabiltzea.

Aberri Eguna denek onartzea nazionalismoaren garaitza da: arrakastatzat ez beste jo bai dezakegu lehen alderdi batek zerabiltzan hizkuntza, sinbolo eta jaiak, alderdi guztiek haintzakotzat eta eurentzakotzat hartzea.

Ba dakit, hau, Euskal Herriko errealitate bati amorematea, azalezko kontsezioak direla usteden bat edo beste egonen dela. Hala ere ni ez naiz horrekin ados. Ikusmira abertzale eta autonomiko baten artean garrantzi handiko ezberdintasun politikoak daudela egia da, eta egi hau ezin da irenismo koyuntural baten eraginez baztertu. Baina bestalde ezin ahantz dezakegu ikusmira ezberdintasun horik gaur ematen zaien baino garrantzi guttiago eduki dezaketela epe labur eta erdi batetara, denborak, posizioak aldakor bihurtzen baititu, elkarrekiko influentziaren eraginez.

Kointzidentzien ondorioak Euskadirako egizko botereak eskatzean sendotzen dira eta prozesu hau indar harremanen textuinguruan ematen da. Indar harreman honetan datza edozein politiko planteamenduen kakoa. Hori da kontutan hartu behar duguna zerbait nahi baldin bada behintzat.

Gaur egungo errealitatea, gerra aurretik bezala, abertzalegoak bakarrik ezinezkoa izanen duela autonomia aurrera ateratzea da.

Zergaitik?. Zer dezakegu Nafarroako o/o 10 abertzale botoekin, edo ta Arabako o/o 20-arekin? Zihur al gaude Bizkaiko o/o 40-arekin edo ta Gipuzkoako o/o 40 ta zerbait gehiagorekin?. Ba du mingostasun nahiko Errepublika garaian bakarrik ibiltzea, lagunak baztertuz, eta egun ere abertzalegoa jokabide berdinean ikusteak. Erlazio horretan emandako gerra zibilek, onenean, norberen buruaren galtzera daramate. Eta ezin espero daiteke erlazio hori gauetik goizera eta mirariz aldatzerik, soziologi politikoak argi erakutsi baitu politiko jokabideak ez direla denbora luze baten behintzat aldatzen.

Hontaz oinarriturik esan genezake autonomismoaren agertzea, zerbait berria berau gure azken historian, mesedegarri dela Euskal Herriaren oraina eta etorkizunerako. Agerpen honen iturrira joko ez dugun arren, azpimarkatu beharra dago hontaz indar abertzaleen bururkak duen zerikusia. Azken baten kontuan hartzekoa hau da, bi korrante honek, abertzalea eta autonomikoa, hauek biek bai garrantizatzen dutela ondorio autonomikoak, eta nazional dinamika berri baten ahalbidea.

Behar bada garantiaz hitz egitea larregi daiteke, Gipuzkoa eta Bizkairako aski izan arren, ez litzatekelako Arabara eta Nafarroarako aski izanen. Gauzak hola, epe labur eta erdi batetara autonomista diren indarrak areriotzat jotzea nazional jokabide suizida bat da. Nazional jokabide egoki batetan, arerioak alderdi zentralistak dira batez ere Nafarroan eta Araban o/o 40 inguruan dabiltzala, eta gorago jotzeko posibilitatearekin, konturatzen bagara.

Datorren Aberri Egunera hainbeste alderdik deitzen dutela ikustea, beraz, poztekoa da. Koyuntura latz honetan —eta noiz ez da izan latza Herri honetan azken berrehun urteotan?— askatasunera garamatzan bide bakarra gehiengoan laguntzaz egin dezakeguna da, nahiz ta sarri, askok, gutti eta eskasak deritzagun minimoekin jokatu behar.

Gregorio Monreal Zia

BIPARTIKRAZIA, EZEN EZ DEMOKRAZIA



*Peces Barba, Martin Toval, Alvarez Miranda.
Letamendia ezik, Canariasetako asuntuen danak
autodeterminazioaren kontra.*



*Espainiar plutokraziaren interesak —fosfatotan—
marokotarrekina batera konpondu bide zituztela.*

Hilaren 22an Madrileko kongresuak Afrikaren Batasunaren Erakundearen erabakiari kontra egin zionean —kanarietako dela eta—, diputatu guztiak zutituz txaloka hasi ziren; hobe esan, guztiak ez, Letamendiak ez baitzuen bere bizarra altxatu. Gero, Letamendiak prentsari adierazi zionez, esplikatu nahi izan omen zuen Kanariar Herriaren autodeterminazioaren aldekoa zela eta, ezin zezakeela horrelako deklarapenik amets. Jarrera hau, herri honetatik zein antzekotik ikusiz, ez zaiguke zail ulertzzen, baina Perez Llorca eta Guerra diputatuentzat zorritsu molestagarri baten jarrera besterik ez zitekeen. Independentziaren aldekoa izatea zoraldi bat besterik ez da, galeria hutsa: arazo patologikoa. Beraientzat, hautabide guztiak dute araurik eta independentziaren aldekoa izatea imajinario gaitortien ondorio... "Consideramos que la unidad de España es un valor fundamental, sin que ello vaya en perjuicio de la máxima profundización de las autonomías de las regiones y nacionalidades del Estado Español" Peces Barba 25/II/78.

Txakal papera egiten ari da norbait ahalguztidun den otsoarekin.

Letamendiak, agian, teatro hura aspergarri zatekeela ikusiz, hastio izugarria sentituz, otsoa eta txakala —batipat— elkarri txalotzen ziotela eta, aukian mugimendu baldar bat eginik, prentsan zer esan zezakeen hasi zen pentsatzen.

Bipartikrazia txaloak eta haserreak direnean.

HASERREAK DIRENEAN

Espainiako gobernu guztiek Nazioarteko Harremanak politikari apologisten gain ukan dituzte, egia esan, politikari guztiak apologistak izan dira; politika bera bezala: faxista. Eta, beraz, asko jakin dute diskurtsu erretorikoak egiteko orduan, guttiago baina gauzak konpontzerakoan. Frankorentzat, mairuak (1) zikinak eta higuingarriak ziratekeen are gehiago: tontoak; eta haren ministrariak eskotan aipatzen zuten esaldi hura: "Nuestros fraternales lazos con los pueblos árabes"... Anaia nagusiak anaia subnormala ikusten duen bezalako-nea irudimenera dakarkigu. Baina mairu estrainio haik ez ziren, ez, hain tontoak, eta baldin gizaldi guzti honetan bizkarreko asko eman espainiar agintari inperialeei, halere bada, ez dute ezer ikasi. Itsuak eta gorrak.

Sahara arinki utzi zuten ustez, akaso, honela, zenbait denborarako libro zirela Ceuta, Melilla eta Kanarietako lurraldeak. Han zer gerta zitekeen?: ¡Allá películas!. Kontua zen hondarra berdeegi zegoela eta Espainiar plutokraziaren interesak —fosfatotan— marokotarrekin batera konpondu bide zizutela. Baina Polisario Frontearen faktorea ez zen zehazki neurtua izan eta Algeriako gobernuaren laguntzarekin sahuriarren burruka hasi egin zen.

Hassani, Marokoko errege diktadoreari, haize gehiegi eman zioten mementu hortan, Espainiako barnepolitika ahulki bizi zen mementu hartan, eta erregeeska feudal hark. Ceuta eta Melilla bereganatu eginen zituela aipatu zuen. Izan, izan zen ere Arraultze Itun bat, orain birsinatu (2) dena. Eta honetan sortu da istilua. Antza, Itun horretan Saharako itsasaldea dela kausa, espainiar diploma-ziak "arraina merkeegi" saldu omen du; eta honela, orain astebete guti gorabehera, PSOE eta UCDe arteko izugarri haserre ikusi dugu Gorteetan. Ituna sinatua zen jadanik eta ardurako istiluak konponketa txarra zukeen, baina otsoak eta txakalak berbaldi handiosa eskaini zieten prentsakoei: indar agerpen lerdoa.

Beste alderdien papera "Klak" itxura hartzen ari ote den uste izan da Madril aldean.

Arraultzearen Itunak balio izan zion PSOERI Gobernuak Afrikarako duen politika kilikolo batean sartzeko, eta bitartean, PSOEk daramatzan harreman internazionalak Afrikako Iparraldearekin Gobernuarenak bezainbat inportantzia hartzen ari dira. Ez dakizkigunak, asko; dakizkigunak, ezau-garriak, halegia MPAIAKEN irratia desagertaraztea. Hau ere botere alternatiba izan nahian datzake.

"ARABIAR ZOROA"

Eta gauzak nahasteko "arabiar zoroa" agertu da: Muamar el Gadafi koronela. Egin zuen diskurtsuan —diskurtsu bai, diskurtsuak egiten baititu su-jet honek— Espainiari Kanariak utz ditzan egin dio gonbitapena. Izualdura Madrileko Mila Palaziotan: milaka izualdura. Ondorio erraxa beronexek: hilak 25ean, Afrikarako Batasunaren Erakundearen azken erabakia zer hauxe genuen: Kanariak Afrikako lurraldea zirela eta aipatutako Erakundeak MPAIAC lagundu eginen zuela. Koronela ez zen bada hain zoroa, eta hilak azko txaloek eta kondena apologistek ezertarako ez zuten balio izan. Eta Kanariak direla eta, ikusi ahal izanen ditugu nondik nora arituko diren PSOE eta UCD, hots eta segurki: —nación, imperio, españolidad, agresión, ofensiba diplomática, etc...

Une honetan ezer gutti esan zezakeen Letamendiak ez bazen maradzioren bat botatzea.

MINISTRARIEN ALDAKETAK

Ministrari berriek ba dute beren ezaugarri berezia, UCDe pertsonaiak direla eta guztiek Abril Martorelen baitan eginen dutela lan. Abril Martorel, erreakzionari dena bereziki, Gobernuko ministrariarik sendoena dateke mementuan. Gobernuak eskuinaldera jo duela diote prentsa, eta horretarako Rodríguez Sahagun-en (Ministro de Industria y Energia) izendapena aipatzen dute; ezaguna baita Espainiako Entrepresarien Erakundearen eratzaille importanteena dela. Eskuinera? Begi bistakoa dena bederen, diktaduraren burokrazia politikoa birproduzitu egiten dela makina bat bezala. Definizio justuena ondoko han iduritu zaigu: ... "Con este Gabinete se acaba el tiempo de las ambigüedades; la UCD no es otra cosa que lo previsto: El Poder heredero del Poder" País / Editorial /25/II/78.

Eta definiziotan sartu garenez gero, Olarrarena ere gustatu zaigu: "Un Gobierno de más amigos y menos expertos".

EUSKAL HERRIAN

UCDe PSOERI eman dion laguntzak, Consejo General Vasco edo Apurren Jasotze Hori erabakitzeke orduan, hain zuzen presidentea hautatzeko orduan, ez du komentariarik behar izan maliobra baldarra eta arras ezaguna baita euskaldunontzat. Bipartikraziaren ondorio hau ere.

Juanrra Oiharbide



JENDARME BERRIAK

Estatu Batuek Viet Nameko gerra galduz gero beren politika inperialista erabat berritu zuten. Beraz beraiei zuzen zuzen dagozkien asuntuetan beste batzuren bidez parte hartzen dute. Asian aurrera eraman zuten politik jokoak desprestigio itzela nazioarteko maila guztietan ekarri zuen. Estatu Batuei. Esperientzia hori ezin zezaketen berriro praktikan jar. Baina nazio zapaltzaileen interesek ez dute eremua eta uzta Estatu Batuetan bakarrik.

Internazional zuri horretan beste naziotako aginte eta indarrak ba daude ere. Azkenengo hau Afrikan demostratzen ari da gero eta fermukiago.

Afrikako Iparraldean Estatu Batuek dauzkaten interesak zehatz-mehatz erakusten hasten bagina hamaika gauzatan sartu beharko ginатеke. Izan ere, Estatu Batuek Egyptoko konfidantza eta adiskidetasuna irabaziz gero Ipar Amerikako administralgoak, Lybia eta Algeria tinko hestutzen ditu, aliketaren beste punttan Maroko edukiz. Baina, eta honetan politik jokoak aldatu da, Amerikako gobernuaren presentzia ageria, egote publikoa, apenas nabari egin da Algeria eta Maroko arteko gatazkan. Estatu Batuek ez dute, ba dute baina, asuntu honetan eskurik sartu. Beste batzuk ordea bai. Espainia eta Frantzia bereziki, beraien interesak defendatu baitituzte.

Baina Estatu Batuetako jokoak ez da biluzia. Aldebitakoa da. Mediterranioko eskualde horretan planteiatzen den jokoak, botere jokoak, influentzia jokoak da. Sobietar Batasunaren influentzia moz-tuz, Mendebaldeko merkatal interesak askoz hobe defenda daitezke. Egyptorekin egin zuena, hau da, influentzia batetik bestera iragan, Algeriarekin ere egin ahal dela pentsatzen dute amerikanoek. Gaur egun Algeriako lehen hornitzailea Amerika bilakatzten da, Frantziak zeukan lehengo postua galduz. Horregatik, Viet Namen gertatua kontutan edukirik, Saharako gatazkaren aurrean eta berari dagoz-

kion pauso hotsetan abiatu barik, erabaki ixilak eta seguruak hartzea nahiago ditu. Hori izan da behintzat Angolan erakutsi diguten lezioa. Bide honetan abiatu, ba daki segurki, ez duela galtzaile aterako. Politik joko hutsa, deklarapen ideologikoetan sartu beharrean, merkatal joko hutsa bihurtu du, arrazoi ekonomikoek bestelako ondorioak ekar diezazkioketela, ekarriko dizkioketela, ondorioekin jotuz. Epe luzetan beraz, irabazle izan daiteke.

Bitartean, joko honen parte ingraten beste batzuri luzatu dio. Ipar Mediterranion kokatzen diren herriei, eta hauen artean Alemaniako errepublika federalari. Baina baten eta besteren harremanak ez dira berdinak. Ba daude ere saltsa bikoiztan sartzen direnak. Italia dugu hontaz erakuspidea. Nazio honek edonorekin harremanetan egoteko prest dago eta ekonomia eta merkatalgoa du helburu soila. Hau ordea ez da Frantziaren kasua, beronen interesak non eta norekin dauden garbi erakusten du. Frantziako gobernuak ez du inolako bainarik esan Saharako gatazkaren aurrean, eskuak ongi sartu baititu eta txarrena, ez diotso ezer inork jakin arren. Frantziak beraz, bere politika bidetik ibiltzeari ez dio utziko nola edo hala, aitzitik bere influentzia politikoa gero eta fermukiago sartuko du. Eredua bertantxe dugu: Mauritaniak duen defentsarako presupostuetatik hiru laurdenak Frantziatik datoz. Saharan ere ez dira dudamudatan egon Napoleonen segitzaileak. Beraren ex-koloniarrekin (Algeria) zeuzkan merkatuak kolpea hartu baina ez du hautsi. Frantziako politikak bloke hertsu bat eratu du Afrikan, beronen inguruan nazio frankofono guztiak bildu eta aurrera daramaten politika oso garbi konpreni daiteke. Hizkuntzak nahiz eta faktore nagusi bat izanik ez du os-tzen estrategia orokor bat, herri ezberdinak hobe manaiatzeko berorren bidez garraiatzen duen metropoliko kultura burjesean pisu handia du halere, kontsumuzko gizarte berdinar jasotzeko eta Afrikakoak ez diren interes batzuren zerbitzurako. Azken hau dateke hizkuntzaren betebeharra, faktore ezberdinen katalizagailua.

Eta zer gerta daiteke Europako Metropolietan oraingo politikindarren oreka apurtzen bada? Zer gerta daiteke Frantziaren edo eta Italian komunistek eta sozialistek hauteskundeak irabaztean? Konpre-nigarria da beraz Carterek buruan erabiltzen duen zera: Inola ere amorerik ematea, presiobide guztiak erabiltzea, baita OTANeko betoa ere beharrezkoa balitz. Gaizki ikusten dugu bestela Eurokomunismoa jendarme berriarena egiten. Europako eta Afrikako herrien aurrean erantzulea nahi izango baldin badu behintzat, jendarme berriak betikoak izan beharko lirateke.

T. T.

Zuzendari jauna, agur t'erdia!

Euskaltzaindiak noizean behin eratzten dituen biltzarretariko bat izango da aurton Bergaran. Hori dela-ta eta euskal idazle, irakasle eta edozein euskaltzalek bere berri izan dezan alboan bidaltzen dizudan prentsa oharra argitaratzea edo iragartzea eskatzen dizut hainbat azkarren.

Besterik ez. Mila esker aurretiaz.

PRENTSA OHARRA

Bergaran, datorren irailetik 4tik 8ra egingo den Euskaltzaindiaren Biltzarra dela-ta, izendatu ziren hiru batzordeak hasi dira beren lanetan.

Gabonetan bildu ziren hiru batzordeek batera, eta harrezkeror batzorde bakoitza hasi da bere aldetik biltzen eta mugitzen. Bestalde, Bergarako herria ere hasi da parte hartzen eta izendatu dituzte, hasi Udal batzarrak eta gainerakoek bere ordezkariak: UNED, Ikastola, Promoción Cultural Vergaresa, Pol-Pol, "Juventudes Parroquiales Vergaresas".

Hizkuntz Batzordeak bere aurreko bileran gai azterkizun hau proposatu zituen: ebakiera, idazkera, hiztegia, gramatika, puntuazioa eta euskalkien erabilkuntza. Edozein euskaltzaleak izango badu ere, bidezko denez, Biltzarrean bere eritzia agertzeko eskubidea, lanak garaiz bidali behar dira, eta horretarako epea: **EKAINAREN AZKENA** izango

da. Beraz Prentsa ohar honen bidez adierazirik gelditzen da epe jakin hau.

Hizkuntz Batzordea, datorren larunbatean, arratsaldeko 4retan bilduko da Gipuzkoako Diputazioan, eta toki berean, eguerdian Soziologi eta Estadistika Batzordea, ostirale honetan.

Antolakizun Batzorde honek eramango du oraingoz, beste Batzorde bietako idazkariekin batera, Prentsaerakiko zerbitzua, gero Biltzarrerako Prentsa Bulego berezi bat izendatuko bada ere. Egunkari, irrati eta aldizkarietara, hau jakinerazten zaie, Biltzarrekiko harreman eta albisteei dagokien edozein arazoetarako.

Batzorde honek antolakizunetako lehen urratsak ematen hasi da: magnetofoi eta mikrofono zerbitzu, fotokopisteria, anagrama eta inpreseria, ostatu, jatetxe eta kanping landa, gabetarako jaialdi, erakusketa, azafata talde, batzorde gela aukeraketa, biltzar areto, barne erregelak, eta beste

xeheetasun eta beharrian tekniko. Biltzar moderatzaileak ere izendatu ditu: Jose M. Satrustegi eta Jean Haritschelhar eta hauen ordezkoi: Mikel Lasa eta Imanol Laspiur. Joan den osteguneko bileran, Euskaltzaindiko Ekonomi Eragilearen laguntzaz, Biltzarren aintzin kontu bat prestatzekotan gelditu zen.

Artistei dei bat egiten zaie zera adierazteko: Nahi duenak Biltzar honen iragarki, egitarau, kartel eta abarretan erabiliko den alegoria edo diseinua egin nahi duenak igor beza Euskaltzaindian, Ribera, 6, Bilbao-5ra.

Hiru Batzordeek, bilera orokor bat izango dute Bergaran bertan Bazko astean. Haren berri eta bai beste batzorderekiko garrantzitsuenak ematen ariko gara.

Bergara, 1978ko Otsailak 20

Antolakizun Batzordea



1936.ean sortua, ezkondua eta laur haurren guraso, Sigfrido Koch Arruti donostiarra dugu. Aita alemana eta ama gipuzkoarra. Bera, ordea, osorik dugu Euskal Herrikoa, bai jaiotzez eta bai, eta hau da inportanteena, aukeraz. Eta holaxe aitortu digu bere azken obran: Euskalerrria, nire ametsa. Aitak irakatsirik, ttikitandik photographiarako deia sentitu zuen, eta arte horretan sakontzeko asmoz Alemaniara joan zen, azken teknikak bertan ikasteko. Handik etorrira, Madrilen zenbait urtetan aritu zen industri lanetan. Gure gizona baina ez zegoen han pozik. Aurpegiak, sentimenduak, ideia-lak, hitz batez, giroa arrotza zuen han. Eta Sigfridok bihotza du, bihotz euskalduna, Herrira itzultzeko —Iparragirreri bezala— behin eta berriro zio-tsona. Eta bihotzari kasu eginez hona bihurtu zaigu, asmoz behintzat, betiko. Bilbon dugu orain lanean, argazkilari profesional gisa, industri lanetan bereziki.

— Sigfrido, oraingo liburu hau baino lehenago beste obrarik argitaratu al duk?

- Bai, baina ez ditut neureak sentitzen. Profesiozko lanak izan dira, inoren aginduz eginak. El Museo de San Telmo liburuko argazkiak, kasu, neuk eginak dira, baina duketen kalitatea gora behera, ez ditut haik neurez egin, neure barrendik irtenik esan nahi dut. Zenbait aldizkari eta industri

lanetan ere nire argazki ugari agertzen dira, denak baina, arrazoi berberaz eginak.

— Beraz, oraingo hau daukak heure lehen obratzat. Zer adierazi nahi ukan duk argazki liburu honekin?


- Nolabait tituluari bertan adierazi dudana: neure Herria, neure ametsa. Euskal Herria da, ttikitandik, nire aukera. Beronen arima adierazteko, Naturara jo dut, industriaztapen basati eta deserri-tar hau baino lehenago bertoko gizonaren eskuaz, asmoz eta jakitez, moldaturiko Herrira. Enetzat baserria, basoa, mendia, itsasaldea, euskal gizona ez dira iraganeko estampa bukoliko mespreziagarriak, gure nortasun kolektiboaren oinharritzko zatiak baizik. Euskalduna inguru geographiko honetan txertaturik dago, eta hark berau moldatu badu, beronek ere haren gainean eragin bortitza dauka. Hori guztiori agertu nahi ukan dut neure liburuan.

— Eta nire ustez bai ongi lortu ere. Liburuzko argazkien lagun, J. A. Artze-ren poemak datoz. Zergatik?

- J. A. Artzaren poemak —itxuraldaketa edo bilakaera baten adierazpena diren aldetik— oso lagungarri onak gertatzen direlako, Irudia, berez esanguratsua gerta daitekeen arren, batzutan irekieria izaten da. Textu idatziak, ordea, aierupen ñabaragoak eskain diezazkioke irakurleari, norabide konkretuagoak. Ikusle-ikasle trebatuentzat berau agian ez da beharrezko, baina jende askok eskertu egiten ditu holako laguntasunak. Hortik aparte, zer esanik ez, poemen berezko balioa dago, liburua aberasten duena.

— Ideia berekoak dituk, noski, txinar eta japoniar artistak, beren irudiak poeten eskribuz hornitzen dituztenean. Ba al duk liburu gehiago argitaratzeko asmorik?

- Asmorik bai, eta honetan ari naiz orain ere. Astia dudanean, aste bukaeretan bereziki, makina eskuartean, gure Herriko txoko apartak aztertzen ditut, barbarotasunaren apatxak han sartu aurretik haik neure argazkietan biltzeko. Orain "Itsasoa"z beste argazki liburu bat argitaratu nahi dut. Bertan, itsasoak euskal industriaren sorrera eta aurrerabidean izandako zerikusia agertu gura nuke. Itsasoa, ura, sua, burdina, gizona, indarra, ahalegina... hori guztiori sartuz. Geroago, gainera, euskal arte eta eskulangintzari buruz ere zerbait egiteko gogo daukat. Jadanik zenbait argazki bilduta daukat horretarako.



— Nola dakusak hik Euskal photographiaren eta, oro har, Euskal Artearen etorkizuna?

. Itxaropenez betea. Gazteriagan ikasteko eta lan egiteko gogo izugarria dago. Laguntasuna behar dute, orain arte euskaldunoi beti ukatu zaiguna, hain zuzen. Ba liteke hemendik aurrera, autogo-



bernu batez edo, kultur arloa hobeki zaindua izatea. Holaxe behar genuke behintzat. Nik neuk artegintza ez nuke Arte Ederren Eskoletan sartuko. Hori denbora alferrik ematea da. Ikasle-irakasle arteko harremanak askeago jarriko nituzke. Eskola baten laur ormak ez dira inondik ere sortzapenerako lekurik aproposenak. Artista bakoitzak bere gogoko giroa hautatu behar du eta bertan bere lantegia jarri: baserrian, mendian, itsasoan, oihanean... Ikasleek, gobernuaren bekaz, haraxe joan beharko lukete, irakaslearekin bizitzera, beragandik zuzenik eta eguneroko praktikan ikastera. Haren indar sortzaile berezko eta aberatsenak bertan ikasiko litzuzke, eskolako ormartean ez bezala.

— Nolabait hortixek abiatuak dira jadanik zenbait artista. Laukizeko ehungintza eta keramika lantegiaz ari naiz. Ikasle asko joaten zaie bertara.

- Bai, oso esperientzia ederra eta txalogarria da hori. Horrelako asko beharko genituzke baina, ikasleak, txandaka, guztietatik pasa litezen. Horrela bai izango genituzkeela artista bikain eta ugariak Euskal Herrian. Ideia hori, bestalde, gero eta jende gehiagok pentsatu eta onhartua du. Goizegi dateke oraino horretaz mintzatzeko, baina zenbait pauso ematen ari gara horretarako jadanik.

— Ez al duk uste batzuk horri utopia eritziko diotela?

- Ez dago utopiarik. Utopiatzako guztiak egingarriak dira. Gertatzen dena besterik da, jendeak bere ametsak biharamunean ikusi nahi izaten dituela beterik, eta, jakina, hori ezina da. Lanean saiatu beharra dago horretarako.

— Hire argazki batzu, kartel gisa, seriaturik argitaratu berri dira. Zer diok horretaz?

- Begira, hik ba dakik argazki batek, artelana izateko, bakarra izan behar duela, hots, kopia bakarrekoa. Horrela eginez gero, argazki batek, ona bada, era bereko koadro baten prezioan sal daiteke. Neuk ere maiz saldu ditut horrela. Baina prezio horietan jende xeheak ezin ditu erosi. Horrexegatik tirada handitan eta nolabaiteko lithographia gisa aterata ditut zenbait argazki, merkeago saltzeko.

— Nolako harrera ukan dute?

- Gazteen artean aski ona, baina betiko handiki-mandiki lerrodoen artean ez hain ona. "Ederrak dira, bai —esaten omen zuen lehengo batez holako batek denda batetan— baina merkeegiak dira". Horrelako pertsonak, dirudienek, gauzen kalitatea beraik saltzen direneko prezioaren arauera neurtzen dute. Baina nik neuk, noski, ez dut beraiengan pentsatzen neure lanak egitean.

— Zenbaitzuk, bestalde, hire liburua garestia dela diote.

- Bai eta ez. Absolutuki, noski, bi mila pezeta baino gehiagoko liburu bat, bai, garestia da. Baina dauzkan kolorezko irudiak zenbatuz gero, laster ikusiko duk ez dela horrela. Argazkien kalitatea, dakusaanez, oso ona da, eta hori lortzeko, bai pàpera, bai photolithoak, bai tintak eta bai muntaia bera ere ardura handiz aukeratu eta egin beharra egon da. Eta horrek guztiorrek zoritxarrez, diru asko balio du gaur egun. Arterako laguntasun ofizialik balego, ordea, besterik litzateke.

Eta honekin bukatzen dugu Sigfrido Koch Arrutirekiko elkarrizketa hau. Beraren liburuko horrialdeetan zehar, argazki sinestezin eta lainotsuen bitartez, Euskal Herri betierekoaren itzala nabari da, beti iheskor, udaberriko loreen usain eta udazkeneko haize epelaren antzera. Egilea eta ikuslea gai beraz ari dira hemen, nahi berberaz, ilusio, pena, etsipen eta helburu berberaz. Horrela elkar aditzea, noski, derrigorrezkoa da.

Xabier Kintanak


Eliza eta Irakaskuntza Euskal Herrian IRAKASKUNTZA PRIBATUAREN ALDE (1)



Hego Euskal Herriko apezpikuek gutun pastoral garrantzizko bat aterea dute. Titulua: "Irakaskuntzaren gaurregungo arazoak. Problemas actuales de la enseñanza". Euskaraz eta gaztelaniaz. 123 orrialde ditu.

Agiriaren luzeaz gainera, lau apezpiku tituluak eta hiru laguntzaileek izenpetu izanak ondo adierazten digu eman nahi izan dioten garrantzia.

Azaroaren 27an izenpetua da, nahiz eta orain dela aste guti kaleratu izan. Gaurko honetan Gutun pastoralari buruz gogoeta orokor batzu emango ditut. Ondoren alde konketuagoak aztertu ahal izango ditugu.



EZTABAIDAREN PLAZARA

Garai egokia aukeratu dutela uste dut Apezpikuek. Gaur-gaurkoa eta bizi-bizia da azken hilabeteotan irakaskuntzaren arzoa. Konstituzioaren inguruko eztabaidan, arazorik nagusienetarikoa agertzen ari da: zenbait alderdik bere jarrera agertu du; egunkarietan eta aldizkarietan eurrez astindu da gai hau; irakasleen elkarteek arazoaren erdi-erdian daudela uste dute, eta zenbait agiri eman ere egin dute: gurasoen elkarteak kezkatuak dabilte. Hala ere, orain arte ikusi ditugunak zerak dirá: deklarazio oso orokorrak edota puntu konketuren bati buruz pentsakera agertzea. Apezpikuek, ordea, irakaskuntzaren eta hezkuntzaren filosofia oso bat eskaini nahi izan dute. Beste inolako erakundek ez eta alderdi politikok ez du horrenbestekorik egin.

Non dago irakaskuntzaren arazoaren gaurkogakoa? Diktadurak bere gainegitura ideologiko eta tresna estatal bezala erabili izan du irakaskuntza. Demokrazia ernetzen ari den honetan, jokabide eta egitura berriak eskatzen ditu irakaskuntzak. Hezkuntza eta irakaskuntza demokratikoaren arzoa dabil aidean.

Diktadura frankistaren garaian, Eliza pribilegiatua izan da hezkuntzaren eta irakaskuntzaren alorrean, beste hainbat alorretan bezala. Pribilegioa juridikoa eta ideologikoa izan da batez ere. Horregatik aparteko lotura izan dute Estatuak eta Elizak alor honetan. Teorian eta hitzez irakaskuntza estatala eta irakaskuntza pribatua ezberdinak badira eta tirabiran badabilte ere, gertatzez zera gertatu da: eskola pribatua eta estatala berdindu egin direla, edo ia ia. Izan ere, Estatuak goitik eta erditik ezarritako irakaskuntza sistema hestu eta gidatuaren barnean jokatu du eskola pribatuak ere; eskola estatala, berriz, ideologia bakar baten euskarri izan da; alde horretatik bestea bezain pribatu gertatu da.

Horrela, estatala pribatua gertatu da eta pribatua, estatala. Bata nahiz bestea erregimena frankistaren euskarri izan dira. Eta bata nahiz bestea desprestigiaturik geratu dira demokrazia berrirako.

Batek baino gehiagok galdetu ere galde deza-ke, zernolako aurpegia duen Elizak oraindik irakaskuntza demokratikoaz hitzegiteko, eta inolako itzalik ba ote duen garai berriko hezkuntzak nondik jo behar duen esateko.



Baina irakaskuntza osoa berrerratu nahi den honetan, Elizaren hezkuntz erakundea oso zabaldu-rik dago eta indar handia du, bereziki Euskal Herrian. Eta seguru asko, kultur politikaren mailan ere, oso kontutan edukitzekoa izango da haren jokabidea. Eliza bere espazio demokratikoaren bila ari da. Bide horretan ulertu behar da gutun hau ere.

Pentsa zitekeen pentsatu ere, alde guztietatik irakaskuntzaren sistema zaharra astintzen ari den honetan, horretan nahasirik ibili den Eliza kokildu egingo zela. Alderantziz kemena ukan du, gai mingarri honekin plazaratzeko. Eskertzekoa da!

Dena dela, gizartearen eta gure Herriaren eztabaida oso gaurko baten plazara apezpikuek beren gutuna atera dutenez, bestelako eritzien artean eztabaidatzeko atera dute, uste dudanez. Eta ez nork bere gelako bakartasunean edota elizen ormen artean bakarrik aztertzeko eta eztabaidatzeko. Gizarte pluralista honetara atera da Eliza ere, bere eritzia ematera. Eta horregatik aldizkari publikoaren plazaraz aztertzea egokia dela uste dut.

EUSKAL HERRITIK GOGOETAN

Hego Euskal Herriko apezpikuak azken aldian hasiak zaizkigu arazo garrantzitsuenetarikoak elkarrekin aztertzen eta gutun pastoral handienak elkarrekin izenpetzen. Irakaskuntzari buruzko hau ere denek izenpetu dute, eta pentsa daiteke Euskal Herriaren markoa hartu dutela, irakaskuntzaren arazoaren barruti berezi bezala.

Orain dela urte batzu, Gipuzkoako apezpikuek ikastolari buruzko "Liburu zuria" edo, ateratzeko asmoa izan zuten nonbait. Asmotan geratu zen hura. Oraingo honetan zabalagotik heldu diote gaiari Euskal Herriko (hegoaldeko) apezpiku guztiek.

Baina benetan Euskal Herria hartu ote dute hezkuntz- eta irakaskuntz politikaren barruti berezi bezala? Egia esan gutun pastoralean behin eta berriro aipatzen da nola Herri bakoitzaren kultura partikularrari egokitu behar zaion irakaskuntza osoa. Eta bide honetatik "ikastolek" aipamen berezia merezi izan dute: "Ez dezagun ahaztu, era honetako planteamenduek garestiegi egin dutela gure artean euskal herriaren historik usuarioari eta kultur balioei leial diren ikastetxeak sortzea eta indartzea, adibidez ikastolak". (67. or.).

Hala eta guztiz ere, ez dut uste gutun pastoral honek, Euskal Herria hezkuntzaren eta irakaskuntzaren kultur barruti espezifiko bezala benetan hartu duenik, are gutiago oinharri bezala jarri duenik. Horixe bera adierazten du ikastola ihesbidez bezala aipatzeak.

Urte luzeegitan zehar irakaskuntza estatala eta Elizarena bat etorri dira euskal kultura eta euskara itozteko. Elizaren eskola pribatuak (eta Unibertsitateak) neurtezineko eta ahantzezineko kaltea egin dio euskal kulturari eta euskarari. Aski ote du, orain, Euskal Herriko eta honentzat hemengo apezpiku guztiek egiten duten gutun batetan, irakaskuntzak kultura partikularrean sustraitu behar duela eta horri erantzun behar diola, hastapen teoriko bezala jartzea? Ez dut uste.

Benetan Euskal Herriarentzako izan nahi bazuen irakaskuntzari buruzko gutun pastoral honek, bi puntu hauk gogoetaren ardatz bezala hartu behar zituela uste dut:

1. Euskal Herriko Elizak Herri horri, beronen kultura-hizkuntzetan, egindako kalte ikaragarria aitortu behar zuen, eta barkapena eskatu. Oso zeharka eta ihesbidez bakarrik egiten dute apezpikuek honelakorik, zera esaten dutenean: "...euskal kulturaganako arreta baztertu duten (sic) zenbait Eliz ikastetxe, honela bide emanek kultur kolonizapen baten eragile direla zenbaitzuen salakuntzari". Benetan biguna da aitorpen hau; eta ia ia ez dakigu jakin, Elizak bere burua salatu ala zuritu nahi duen.

2. Euskal kulturaren eta euskararen errekupe-razioa, Herri honentzat irakaskuntz politikaren abiapuntua dela uste dut. Herriaren kultur integrazioak eskatzen du hori. Eta urte luzeegitan Estatuaren eta Elizaren aldetik egin zaion irainaren ordain bezala ere gutun pastoralek ardatz gisa errekupeazioaren ideia hartu behar zukeen. Baina zoritxarrez ez da gutunean honelakorik sumatzen. Euskal Herriaren testuinguru historikotik kanpo pentsatuta dagoela dirudi, alde honetatik.

Tamalez, aukera on bat galdu du Euskal Herriko Elizak!

Paulo Agirrebaltzategi

**IPIUI ETA IDAZLAN LEHEN SARIKETA, EUS-
KERAZ. Izen burua: "EUSKERA, GAUZARIK
NAGUSIENA".**


OINHARRIAK

- 1.- Bizkaiko ume guztiek parte hartu dezakete. Talde bi izango dira:
A) 7, 8, 9 eta 10 urtekoentzat, ipuiak.
B) 11, 12, 13 eta 14 urtekoentzat idazlan edo erredakzio lanak.
 - 2.- Lanak eskuz edo makinaz egin daitezke. Lehen edo (A) taldearentzat edozein gairi buruzko ipuiak. Luzeera ez horrialde bitik gorakoa. Bigarren edo (B) taldearentzat, izen buru honekin: Euskera gauzarik nagusiena, gai hauk edo antzekoak erabili ditezke: "Zer da euskera zuretzat"... "euskera ta ikastola"... "euskera ta Euskalerrria"... "euskera munduan"... Luzeera ez hiru horrialdetik gorakoa.
 - 3.- Lehen edo (A) taldearen banetan, batez ere asmakizuna eta irudimena kontuan hartuko dira.
Bigarren edo (B) taldearen lanetan, gaiaren aria, mamia eta euskal idazkera neurtuko dira.
 - 4.- Nora bialdu lanak? **DEUSTUAKO HIZKUNTZA ESKOLA-RA**
Euskera bulegoa - Deustua - Bilbo - 14
edo
DEUSTUAKO IKASTOLA-RA
S. Felicisimo enparantza - DEUSTUA - BILBO - 14
- Ipini azalean: "Umeen sariketarako" eta lanak izenorde batekin izenpetu.
Sobre horren barruan beste sobre txiki bat sartu datu hauekin: izena eta bi abizen, urteak, helbidea, telefonoa, zein ikastetxeko den eta zein izenordekin izenpetu duen lana.
- 5.- Bakoitzak nahi duen euskera erabiliko du.
 - 6.- Lanak bialtzeko epea 1978eko Apirilaren 11-an amaituko da.
 - 7.- Epai-mahaikoak Alfonso Irigoien eta Xabier

- Uriartek aukeratutakoak izango dira eta Era-bagiak noraezekoak.
- 8.- Lan guztiak oinharri hauk kontuan euki behar izango dituzte.
 - 9.- Mahaikoek txapeldunak aukeratu eta txapelak banatuko dituzte, baita "KRUTZIAGA" bat eta Hizkuntza Eskolaren Agiri bat, txapeldun ezaugarri bezela.
 - 10.- **SARIAK:** (A) Taldearentzat hiru sari izango dira:
 - 1).- Bizikleta Bat.
 - 2).- Kasset Bat.
 - 3).- Txistu eta danbolina.(B) Taldearentzat, sariak hauk izango dira.
 - 1).- Bizikleta Bat.
 - 2).- Kasset Bat.
 - 3).- Txistu eta danbolina.
- Era berdinean, beste 20 sari banatuko dira, 10, talde bakoitzarentzat.
Aukeratutako lan guztiak sari bat izango dute. Lan gehien aurkeztutako Ikastetxeak, sari berezi bat izango du (sari honetan ez da, antolatzailer den Deustuako Ikastola sartuko).
- 11.- Sari eta txapela ezartzea jai baten barruan izango da. Jai hau 1978eko Maiatzaren 14an eta Bilboko Astoria zineman izango da.
Ordua: 11'30etan.
Jaialdi hau "Tele Norte" telebista saioan agertuko da eta zuzenean Bilboko Herri Irratiak emango du.
- 12.- Deustuako Ikastolak, saritutako lanai, argitaratzeko bidea emango dizkiete.

OHARRA:

Argitasun gehiago nahi izanez gero, telefono honetara deitu 449 28 49, bulego orduetan: 9 etatik 1 etara eta 4 etatik 7 etara eta Lurdes Iriondo-gatik galde egin.



IRAKURLEAREN SAILA

LEIOAKO UDALETXEA ETA EUSKALDUNAK

Etxebizitza bat erosi nuen eta Udaletxeari "plusbalioa" pagatzeko orduan eskribu bat ere hartu. Informe horretan, nola dena erdaraz zetorren, ez nuen honelako eskriburik onhartu eta hala adierazi nien.

Zoritzarrez ez nuen orduan lege alde-rik egin beharko ziren gauzak bete, eta nire jakin gabean erantzun bat euskaraz bidali nien. Gutuna ez zegoen zertifikatuta. Hori zen nire lehenengo laprastada. Bigarrena abokatu baten bila ez joatea.

Gauzak horrela geratu eta bi hilabetez gero, umore txarreko gutun ofizial batekin topatu naiz etxera ailegatzean. Biharko pagatzen ez badut, bihar bertan nire ondasunak enbargatuko dituzte. Hori da beraz euskalduna izatea: Nire kontzientziak eta ohiturak agintzen nauenaren arauera mesprextatua izatea.

Zapalduta gaude-la ba genekien, gure buruak hil nahi dituztela ba dakigu, gure kultura deuseztatu nahi dutela hortaz ere jabetu ginen. Orain nire galderak eta susmoak beste alde batetara eramana nahi ditut, zeren esaten baita udal hau-teskundeekin batera horrelako gauzarik ez dela berriro gertatuko. Elebitasunak salbatuko gaitu.

Baina begira eza-iezue oraingo ia alderdi guztiei, eta esango di-dazue praktikan nola arduratzen diren elebi-tasunaz.

Uste dugu beraz, gero ere, hainbat herri-tan, hainbat gauza pu-blikotan, hainbat to-kitan, egoera berdin berdinean aurkituko garela. Frankismoak lortu ez zuena beste batzuk lortu nahi dute agian.

Euskal Herriko seme zapalduok,
ALTXA GAITEZEN.

G. M.

Hona hemen nire ber-tso bi. Anaitasunean ireki duzuen irakurlearen saile-an publikatzeko. Onhartu-ak izan daitezela eta au-rrera.

HITZ MARKATUAK

Hitz zuriak
hitz beltzak
erosiak
eta saldu gabeak.
Mihinetan trabatzen
diren hitz gorriak.
Jakintsuen buruetan
errotzen diren
ideiak
hitz aspertuetan
plazara boteak.

Nazkaturik
hainbeste hitz
entzutez,
hainbeste irtenbide
hankaperatzez,
hitz zuriak
eta beltzak
ezarekin trukatuak
politikoen mahaietan.

Eta ez dut hitzik
eskuetan,
ahokoak lehor arazi
baitzikidate.

Eta ez dut nahi
adjetiborik
hitzetan
izena baizik.

Hitza biluzitan.

Eneko Gartziaarena
(Nafarroa)

MORALISTAREN HARRIA


Kaleko harrietan
harri bustietan
euri jasaz,
gizon mozkor baten
irudia marraztu
zidaten harrietan.

Farregarri zekion
jendeari
ardo edale jendeari
marraztu zuen
moralistak.

Maite izan nuen
mozkorra
irudian.

Eta moralistaren
akusatzaile
bihurtu zen
irudiak edaten ez zuen
egiazko ardoa.

Eneko Gartziaarena
(Nafarroa)



MARTXOAK 8: NAZIOARTEKO EMAKUMEAREN EGUNA

Martxoaren 8an, aurten, New Yorkeko Cotton lantegiko 129 emakume langileren hilketaren urtehurrena betetzen da. Emakume hauk, beren eskaerak burukatzen lantegi barruan sartu zirenan, jabeak giltzaz atek hitxi eta lantegiak su hartu zuen bertan 129 emakumeok galduz.



Garai hartan ez zuen ezelako hotsik izan, ez gizonetako proletarientzat ez eta emakume sufragientzat, itxuraz botu eskubidea errebindikatuz nahikoa baitzuten. Emakume langile hauen burruka, langileriak bere interesen defentsan eraman duen lehenengoetariko burruka bat dugu.


Handik bi urtetara 1.910. urtean Klara Zetkinnek Emakume Sozialisten Nazioarteko Kongresuan zer hau planteiatu zuen: Martxoaren 8a, Cottoneko langileen oroitzenez Nazioarteko Emakume Langilearen Eguna ospatzea.

1.917.eko Martxoaren 8an Petrogradoko emakumeak gizonarekiko eskubide berdinen alde manifestatzen dira. Manifestapen honek 1.917.eko prozedura iraultzailearen haseran bere garrantzia izan zuen.

1.943.eko Martxoaren 8an emakume italiarrak faxismoaren aurka manifestapen masibo bat aurrera ateratzen dute.

1.977.eko Martxoaren 8an Bizkaiko emakumeek, gerra ostean lehen aldiz, Asanblada masibo bat eta manifestapen bat aurrera eramaten dute, zera eskatuz: gure gorputzarekiko eskubide osoa, askatasuna, haurtzaindegi gehiago eta polizia gutxiago, antisorgailuak etabar. Noski, poliziak parte hartu zuen, gure arteko batzuk ederrak hartuz. Lehen aldiz hainbeste emakume biltzen zirenez, hizlariak argi utzi nahi izan zuten, emakumearen burruka ez dela egun batekoa ez urtean behinekoa, eta Martxoaren 8an munduko emakumeek bat egingen dutela beren interesen alde burrukatzeko.

Cottoneko, Petrogradoko, Italiako... emakumeek ondo erakusten dute, emakumeok nahiz eta



prozedura iraultzaile eta gertaera historiko guztietan present egon, historia kondatu digutenei ahan-tzi egiten zaiela hauk ere mundu honetakoak direla eta etxea zaindu, semeak izan ...egin, horrez gainera zerbait gehiago ere ba direla.

AURTENGO MARTXOAREN 8a

Bi puntutan planteiatua dugu, hots: lanpostuaren defentsa eta bortxapenaren aurka.

Egungo krisi ekonomikoa dela eta kapitalak lehen planteiatzen duena zer hau da, emakumeek beren lanpostuak utz ditzatela eta norbere etxera bihur daitezela. Kapitalak nahiz eta urte askotan ihardun lanean erreserbako indar kontsideratzen gaitu, nahiko proba da, lanik ez dagoenean lehen kalean gelditzen garenok emakumeok garela, jakitea. Eta baldin balitz normalean betetzen ditugun lanpostuek ezelako garrantzirik dutela, ezer ez, Emakumeak garelako ba dugu "emakume lanak" deritzen horrelako zerbait, eta horretarako Estatu guztian bi Unibertsitate Laboral bakarrik ditugu. Gizarte honetan ezgauzatzat hartzen gaituzte.

Argi utzi behar da krisi ekonomikoa ez dugula emakumeek zer ordaindurik. Gure lanpostuak geure lanarekin lortu ditugu eta indar guztiarekin defendatu beharko ditugu.

Hau dela eta, jakin beharko genuke Sindikatuek arazo honetaz pentsatzen dutena. Sindikatuen eritzia ikusteko ez dugu beren jokoerara jotzea baino. Horrela. Zenbat emakume izan da hautatua azken Sindikal Hauteskundeetan? Zenbat emakume Sindikatuen lista burutan? Ala, emakumeok ez gara nahiko zuhurrak, ez gara nahiko borrokalariak?... Egia bada oso emakume gutxi afiliatu dela, ez da gutxiago Sindikatuek eta gizonezko langileek ez dutela gogoan hartzen guk ere ba dugula zer esanik, norbait garela, eta kapitalaren aurka interes berdinak ditugula. Eta gogoan hartzen badute ere... nork garbituko gure lider sindikalen galtzontziloak?

Bestalde egun honetan ezin dugu ahan-tzi etxe-ko lanetan iharduten den milaka emakume. Nola-bait behintzat, kasualitatez euskaraz etxe-ko lanei

"lan" izena ezartzen zaio, noski, gaztelaniaz lan izenik ere ez du, "labores" baizik. Inork ez du ordaintzen, umeak mundura ekartzea, zaintzea, 24 ordu egunean etxe-ko arduraren emakumearen gain egotea. Hori bai, kapitalak edo edozein sistema ekonomikok behar gaituenean arin ibiltzen dira emakumeak etxetik ateratzen, —hor dugu gerra denboretan zer gertatu den— bigarren mailako abereak besterik ez gara gizarte honetan.

Guztiok gara langileak eta guztiok dugu eskubide lanpostu ordaindu bat izateko.

Bigarrenez, eta ez da garrantzi gutxiago duela-ko, bortxakeriaren aurka ere zentratu nahi genuke geure burruka. Askok esan digute ero gutxi batzuren problema dela, besteek demokraziak dakartzala honelako ondorioak, besteek berriz hauzoetan argi eta polizia gehiago balego ez zela horrelako arazorik izango.

Planteiamenduok ezin dira inolaz ere honela onhartu. Bai heziketan, bai eguneroko propagandan, pronografian, aldizkarietan etabar... emakumeak mesprezatuak, apalduak eta edonola erabiliak aurkitzen gara. Ez da, ba, harritzekoa gizonezkoek honela kontsideratzea. Gizarte matxista honen, bai izaeran bai pentsaeran, emakumearekiko gorrotoa azaltzen digu. Hau da bortxakeriaren benetako arrazoia.

Eta ez, sinesterazi digutenez, "penetrazioa" dela bortxakeriaren funts bakarra, hala diote behintzat legeek, baina emakumeontzat askoz gehiago da: gauaz ibiltzeko beldurra, aurretik pasatzen den txotxoloaren lehen zerrikeria entzun beharra... Azken fin batetan gure inpotentziaren zentzua.

Aurtengo Martxoaren 8a gure ahotsa, mundu guztiko emakumeekin bat eginda entzun eraziko dugu.

**BORTXAKERIAREN AURKA.
EMAKUME BAKOITZARENTZAT LANPOSTU
BATEN DEFENTSA.**

I. Jauregi

61. hor.



BATAK / BATZU HITZAREN ERABILERA

Duela bi urte, gai honi buruzko hiru artikulu egin genituen ANAITASUNAn (konkretuki, 307., 311 eta 318. zenbakietan). Lagun batzuk arazoa berriro azaltzea eskatu didatenez, orduko artikuluen sintesi antzeko zerbait eginen dut. Erreferentzia gisa, aipaturiko artikuluez gainera, Txillardegiren "Oinarri bila" liburua hartuko dut (1. 66. puntua).

MUGAGABEA EDO MUGATUA

Dirudienez, hitz hau BAT hitzaren plurala da, -ZU pluralizatzailearen bidez lortua (arantza-zu, miki-zu,...). Zenbait elementuk (bat baino gehiagok) osoturiko multzoa adierazteko erabiltzen da. Eta multzo honen mugak ezezagunak eta ezagunak izan daitezkeenez, hitz hau mugagabe edo mugatu gisa agertuko da.

Zer esanik ez, mugatua denean pluralizat hartu beharko da. Halaber, ene ustez, eta Txillardegiren mugagabearen teoriaren aurka, mugagabe gisa erabiltzen denean ere pluralizat hartu behar da eta horrela erabili.

Hitz honekin batera, **BESTE** hitza ageri ohi da, lehenago multzoarekin batera harremanetan dagoen beste multzo bat adierazteko. Hitz hau ere mugagabe eta hurrengo koadroan ageri da eskematikoki. Koadro honetan deklinabideko kasu batzu ipini ditugu soilik; hauetan finkaturik, erraz bila daitezke beste guztiak.

KASUA	MUGATUA	MUGAGABEA
Nominatiboa	<i>batak (batzuak)</i>	beste batzu
Ergatiboa	<i>batzuek</i>	beste batzuek
Datiboa	<i>batzuei</i>	beste batzuri
Genitiboa	<i>batzuen</i>	beste batzuren
Inesiboa	<i>batzuetan</i>	beste batzutan
Direktiboa	<i>batzuetara</i>	beste batzutarara
	bestek	batzu
	besteei	batzuk
	besteen	batzuri
	besteetan	batzuren
	besteetara	batzutan
		batzutarara
		bestek
		besteri
		besteren
		bestetan
		bestetara

Eskema honetan ageri den *batak* formari buruz, ohar bat egin behar dut. Txillardegiren eritziz, *batzuak* da horko forma; eta, egia esan, horrela ageri da zenbait lekutan, Txirritaren bertsoak lekuko. Nik, ordea, *batak* delakoari hobeki deritzot, Bizkaian bertan bizirik aurkitu baitut —“Bai *batak* eta bai *besteak* (biak nominatibo pluralez) nekaturik etorri dira” erako esaldietan— eta Euskal Herriko beste muturrean ere, Zuberotan prezeski, horrela agertzen baita Etxahunen kantetan. Honetaz, 1967. urteko EUSKERA aldizkariaren 234. horrialdean, “Ahaide delezius huntan” izeneko kantan, honela dio: “*Batak* indarrrik gabe, *bestiak* zentzū gabe” (biak nominatibo plural mugatuan). Dena den, batasunerako aukeran geratzen den arazoa da hau. Oraingoan, *batak* eta *batzuak*, biak ongi.

ERABILERAREN ADIBIDEAK

Eskema ikusi ondoren, praktikara pasatuko gara, zeren eta hitzek baliorik badute, esaldi baten barnean erabiltzean baitute, eta ez da eskematan. Esaldien barnean hitzak bizirik daude, bixiguak itsasoan bezala; hiztegietan eta gramatiketan, ordea, kontserban.

Jarriko ditudan adibide hauk, ez dira berriak, eta lehen ere ANAITASUNAREN 318. zenbakian argitaratu genituen. Asmatzaile ez nintzen ni izan, arazo hauetan nire irakaslea izan den Imanol Berriatua baizik. Nori berea.

Besterik gabe, ondoko lerroetan, hitz mugatua eta mugagabea zentzuz eta idatziz nola desberdintzen diren ikus dezakezue:

“Ordu *batzuren* buruan, Frantzia eta Alemaniako medikurik onenak etorriko dira Bilbora, hemengoekin biltzarre bat egitera.

Oso jakintsuak omen dira. Bai *batak* eta bai *besteak* euskaraz mintzatuko ei dira.

Frantses medikuak alemanak baino hobeak direla esaten dute kazetari *batzuk*. *Beste batzuk*, ordea, alemanak hobeak. “El Correo Español”eko kazetariak eta “La Gaceta del Norte”koak ez dira ados: *batzuek* eta *besteek* ez dute segurtasunik puntu honetaz.

Hasi da jendea etortzen. Neure adiskide *batzu* ikusi ditut. *Beste batzu* ez dira oraino etorri.

Hasi da biltzarrea. Lehen hizlaria, alemana, gaur egun oso modatan dauden gai *batzutaz* mintzatu da. *Batzuren* eritziz, ederki hitz egin du. Ni hitzaldi *batzutan* aspertu egiten naiz; gaurkoan, aldiz, adi adi egon naiz. Bigarren hizlariak, frantsesa bera, gai oso zail batez berba egin zuen. Entzule *batzuri* ez zaie atsegingarri izan; *beste batzuri* bai. Holako batzarreetan, gustu eta eritzi askotako entzulerik izaten da.

Niri neuri hizlari biak gustatu zaizkit, *batak* zein *besteak* guztiz argi azaldu baitu bere pentsamendua. Bitan etorri naiz holako batzarreetara, eta bietan ikasi ditut lehen ez nekizkien gauza *batzu*.

Gero beste mediku *batzu* mintzatu ziren. Batzarreak hiru ordu iraun zuen. Ai holako jakintsu *batzuk* sarriago hitz eginen baligute! *Batzuek* eta *besteek* —medikuek eta entzuleek— denek irabaziko lukete. Holako bilkurek *batzuei* eta *besteei* mesede handia eginen liekete”.

Idazle askok erregularitu egin dute jadanik erabilera hau eta hori pozgarri da. Batasun bide neketsuan aurrerapausoa izanen delako ustea dut, arautze horrekin zehaztasunean irabazten baitugu.


J. R. Etxebarria

SOL GORBEA, HESTUTASUN ETA SAMURTASUNAREN ARTEAN.

Maisulana, bai, Otsailaren 3an Galeria Artetan Sol Gorbea bilbotar-bilbotarrak aurkeztu zigun pintur azalketa.

Sol Gorbearen pintzelak ametsezko babespea zabaldu eta alegien liburua ertireki egiten du.

Bere itxura mehartuek; ez oihuka, ez zarataka agerteraztean; izatearen betiereko isuraldian murgiltzen gaituzte. Bai! Nigar egiteko era pitxia, sendimenduzko bihotz baten pean, duten emakume bakartien unibertsu baten izantzan. Sol Gorbearen pinturgintzak mamuz beteriko eta miresgarriki eginikako mundu batera garamatza, emakume (erdi-andrakila, erdi-gizeme) hauen eskutik, Goizekoaren kopetan baino Gauekoaren gilborrean zaldizka hobekiago ibiltzen direnen eskutik. Bakartasunaren, giza komunikapenaren arazoaren aurrean aurkitzen gara, eskierki.



Artegileak bere azken azalketan, hestutasun eta samurtasunaren tartean, unhadura eta bizitzaren aldeko burrukaren bitartean dagoen pinturgintza eskaini izan digu. Pinturgintza, zapizko jostailu eta zain beltzen, sehaska kanta eta ganibeten usainez betea. Sol Gorbea, nolabait esateko, madarikapenez eta anarkhismoz nahasiriko pintatzailea da, latzikara itzalez eta itzalak latzikaraz, sorginak ilunpez eta ilunpeak sorginez janzten dituen.

Elkarraurkezpen hauek beldurtzen dute. Gero eta gero, honek ez du axolarik, ezen artearen eginkizuna, apika, hori baitateke: iradokitzea.

Emakume pathetikoki bakartiok, kezkarri eta asaldatzaile egiazki, barnebake samur antzeko bat erideiten bide dute, artegilearen pintzeleker. Eta hor baratzen dira... argi-ilun ezetikara horren gerizpean, Hilbetearen gauetako Gaztela dena. Alta bada, hortxe ditugu, kezkarrikiro nare, ixil eta bai urrun ere.


Lewis Carroll-ek, segur aski, ba luke zer esana emakume galaktikooi, zeren eta herrialde miresgarri edo paradisu galdu hain eder, hotz eta urrutikoetako bizilagun baitira.

Bene-benetan xarmangarri eta harrigarri dira emakumeok, Goya-ren alaba eta surrealismoaren loba; beren bandera, oihala, bizitzaren aldeko burruka eta beren geriza bakartasuna bide dute eta.

Leizeetatiko malenkoniaz egindako itxura hauek, ezere beharrik ere ez dute, ez eta gizonen ere (porakiloe alahenek). Idi bakarra bezala... uz-tarri bakarrean ongixko lamikatuz (barka nazazue).



BOGART



Has zaitetz gutaz bestela pentsatzen.

Gurekin harremanetan ari diren guztiei gauzak ikusteko beste era bat eskaini nahi diegu, tratuetarako modu berri bat, eta zerbitzu osoagoa ere bai. Geroak jadanik orain egiten dizkigun eskabideetara egokitu nahi dugu geure jarrera. Horrexegatik geure buruari aurreranzko proiektio bat jarri diogu helburutzat, orain arteko aurrerabidean izan garen baino hobeak izan gaitezen. Guk guztiontzat hobe izango den etorkizuna moldatzen segitu nahi dugu, eta hori gaurdanik egiten hasi beharra dagoela ongiegi dakigu. Geroa hementxe dago eta.



**CAJA DE AHORROS
VIZCAINA**

geroa hementxe dago.

SPAGHETTIAK

6 lagunentzat beharko dituzu: Spaghetti kilo bat. 500 gr. haragi xehatu. 150 gr. gurin edo margarina. Latatxo bat tomate kontzentratu. Tipula handi bat. 300 gr. gazta birrin. Gatza, biperhauts zuria, ereinotza (1) eta azukrea.


Lehenik pasta egosten da. Bitartean saltsa prestatzen da.

NOLA EGOSTEN DIRA?

Lapiko handi batetan ipin ur asko irakiten. Bota iezaiozu gatz asko. Ukabilekoa gutti gorabehera. Ura irakiten hasten denean spaghettiak sartuko dituzu uretan baina ez edozein modutara. Hona hemen nola sartu beharko dituzun. Har ezazu spaghetti mordoxka bat. Eutsi mordoa punta batetik eta sartu azpiko punta uretan lapikoko azpiaren kontra joz. Tolestu pixkanaka spaghetti mordoxka. Mordo guztia lapiko barruan osorik sartu behar da, beraz ez duzu spaghettiarik zatitu behar. Tolestu osorik sar daitezke. Spaghettiak 13 minutuz egosi behar dira. Pasta batzu biguinagoak izaten dira. Egosirik dauden ala ez jakiteko modu erraz bat duzu. Spaghetti egosia zuria da. Egosirik ez badago kolore horixka edukiko du.

Spaghettiak egosi eta gero, iragaztontzi (2) baten bidez ur guztia kenduko diezu eta gainetik ur epela edo beroa ugari botako diezu, dauzkaten kola modukoa eta gatza kentzeko. Urik gainetik bota-

SUKALDERAKO SALTSAK



tzen ez badiezu bata bestearekin trinkatuko dira eta gainera barrutik egosten segituko dute biguin biguinik geratuz.

NOLA EGITEN DA SALTSA.

Tipula zati ezazu eta olio pixka batez zartagin handi batetan zatiak doratu dituzu. Bota ezazu ere berean haragi xehatua. Dena doratu denean bota tomate kontzentratua eta lata berberaren bi baso ur, goilarekada bat azukre eta gatza pixkat.

Utz egosten su ttikitari 10 minutuz gutti gorabehera. Atera sutatik. Ipin spaghettiak azpil batetan. Bota gainetik gurina edo margarina eta biperhautsa ondo nahastu. Saltsa gainetik bota daiteke edo eta gaztarekin egiten dena egin dezakezu. Hau da, aparte utzi eta jateko orduan bakoitzak bere gustura bota dezala. Spaghettiak ez dira labean sartzen.

Prestaketa guzti hauk hainbat arinen egin beharko dituzu, spaghettiak hoz ez daitezten. Hozten badira, ipin ura egosten lapiko batetan eta gainetik spaghettiak azpila utzi.

On Egin.

- f
(1) Aukerapekoa - facultati-
vo
(2) Koladorea, colador, Tamis (écumoire)

KAFETEGIA



J. JAUREGI 6 ZORNOTZA. Tf: 673 00 21
Av. EJERCITO 4 DEUSTU. Tf: 447 97 75

Amuriza

ALDAEZINEZKO JABEGOAREN AGENTZIA
AGENCIA DE PROPIEDAD INMOBILIARIA.
Fernandez del Campo, 37. Tfnoak: 432 27 45
BILBO - 10

General Mola, 26 Bolue 3 C Trav. Villamonte
Tf: 449 92 54 Tf: 460 01 62 - 460 01 66
BASAURI ALGORTA

JAKIN

EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

10 urte debekaturik egon ondoren
berriz kaleral

Hiruhilabetez behin
argitaratzen da

Monografiak
Dosierrak
Azterketak
Kritikak
Gaurko gaiak

Laugarren zenbakiaren
gai nagusia:

EUSKAL KANTA BERRIA

Laugarren zenbakiaren lankideak:

A. Otaegi, J.
Altzibar, J.
Artze, J.A.
Azurmendi, J.
Beloki, J.R.
Intxausti, J.
Iriondo, Luis
Knör, G.
Kortaberria, P.
Legarreta, P.M.
Lete, X.
Pagola, Manolo
Zubizarreta, I.

JAKIN

500 pta. urtean. 175 alea

Eskabideak eta harpidetza:

Cuartel, 2 - Tolosa (Gipuzkoa)
Tfno. (943) 65 11 06



PATATA EUSKALDUNAK

Astabelarri eta kritika latzen artean, inoiz bestelakorik ere sortzen zaigu. Gaur hona dakartzagun patata frijitu hauk, kasu, euskaraz behar den modura iragarrita. IKURRIÑA izena daramate, eta berau, besterik gabe, erosle abertzalea erakartzeko atxakia folkloriko eta hutsa zitekeela susmatu arren, paketea ikusiz gero, ez da horrela.

Osorik euskaraz dator paketea, eta euskara ereduaz gainera. Hitz komun eta argiak darabiltza —PATATA FRIJITUAK, kasu, eta ez bestelako garbikeria arrarorik— eta azalpen guztiak, nolabaiteko umoreaz gainera, euskara hutsean... eta okerrik gabe! Hauxek dira, guk dakigularik behintzat, Euskal Herrian ofizialki **patatas fritas** izatetik patata frijituak izatera heldu diren lehenbizikoak, hots, agian Burgos edo Palentzian bilduak izan arren, **de facto** euskaldunak diren lehenbiziko patatak.

Duten kalitateari buruz —jan ondoren— beste marketakoak bezalako gustua daukatela esango genuke, eta prezioan antzean dabilta. Beraz, erosle euskalduntzat onhartzen gaituztenez gero, guk geuk ere beraik ere besteak baino lehenago onhartu eta erosiko ditugu, ea, besteak baino gehiago salduz, beste fabrikatzaileak ere horrela euskalduntzen ditugun.



Donostian otsailak 25ian
1978 urtean.

Zuzendari Jauna: Lengo il-
beltzako Sean idatzi nizun esku-
titz "Arpidedun bat" izenarekin
izenpetuaz.

Gutxi gora-beera ontzat
eman dezula dirudi nere iritzia,
bañan ni ez naiz konforme gera-
tu, zergatik zure erantzunian dio-
zu "Gure esku geratzen dira gra-
matik araei (morfologia, orto-
grafia etab.)" eta nik erantzuten
dizut EZ dala ori Demokratikoa
eta BAI autoritarismoa zergatik
zuk eskutik ogeita amaika kanta-
tzeko eskubidea artzen dezulako
eta zuri iruditzen zaizuna bakar-
ra argitaratzea gutxi ez dala argita-
ratzen dezun guztia haches josi-
ta ta gañera "gramatica" aitz-
kiarekin aurrekoa atzetik eta
atzekoa aurretik argitaratuko de-
zun ezkeroz iñork ez ulertzeko
moduan azalduko diralako.

Ez det uzte eskutitz au ar-
gitaratuko dezunik bañan des-
kuido batez bestela izango balitz,
aurretik milla esker.

Arpidedun bat

Alfabetatze-Euskalduntze Mugi-
menduaren Alternatiba Udal
Hauteskundeen Aurrean.

1978ko Otsailaren 26an,
Euskal Herriko Alfabetatze-Eus-
kalduntze mugimendua Batzar
Nagusian Altsasun bildurik, bere
alternatiba propio bat formulatu
eta berronetsi du Udal Hautes-
kundeen aurrean. Alternatiba ho-
nen bidez bada, mugimenduak
bere arlo zehatzean dituen behar-
rrikanak zehar asumituz, hainbat
puntutan beste hainbeste esijen-
tzi planteatzen ditu gerora eratu-
ko diren Udaletxeen eginbeharra
markatuz arlo honekiko. Bidena-
bar, bere jarrera agerturik, euska-
raren egoera diglosikoaren arabe-

ra, Euskal Herria Berreuskaldun-
tze ahaleaginean ihardungo
duela aitortzen du.

A) Euskararekiko A.E.M.-
ren jarrera:

1- Euskal Herriko hizkuntza
nazional bakarra euskara da.

2- Euskal Herriko A.E.M.-
ren helburua, jendea alfabetatzea
eta euskalduntzea da.

3- Euskararen egoera diglo-
sikoaren kontra arituko gara ha-
rik eta berari dagokion lekua,
hots, gure herri arlo orotan be-
rreuskaldundu arte.

B) Eginbeharrak:

1- Alfabetatze-Euskalduntze
Mugimendua, nahiz eta bere bai-
tan 30.000 ikasle baino gehiago-
ren jabe izan, ofizialki instituzio-
nalizatu gabea eta legezki ohartu
gabea da. Hau da kontua: ez dau-
ka euskara non irakatsirik bere
zentro eta lokalik gabe aurkitzen
denez. Egoera honetan, hautes-
kunde ondotik eratuko diren
udaleei eskabide hauxe eginaz ze-
ra esijitzen diegu: euskara ikasi
edo hizkuntza honetan alfabet-
tu nahi duen orori klaseak emate-
teko, herrian herriko Udalak be-
har diren EUSKALTEGIAK erai-
ki ditzala berauen inbertsio eta
funtzionamendu kostuak bere
bizkar harturik. EUSKALTEGI-
KO barne antolamendua eta ar-
dura pedagogiaren sailari dago-
kionez, arduradun, irakasle eta
ikasleei dagokie soilik.

2- Irakasle, arduradun eta
koordinatzaileen eta material
didaktikoaren diru-inbertsioa, lo-
kalena bezalaxe, Udaleko kultur
presupostuen barne sar dedila es-
katzen diegu udal buruzagiei.

3- Gure eskabideak egia bi-
hurtzeko, herrian herriko A.E.
batzordeko arduradunen presen-
tzia beharrezkotzat jotzen da ge-
roko Udalen kultur komisioren
barruan. Era honetan, A.E.M.ren
gestiogintza, beharrian materia-
lei dagokienez, batzorde misto
batek burut lezake. Hots: Udale-
ko kultur komisioko ordezkari
eta A.E. batzordeko arduradun
osaturiko batzorde misto batez
hain zuzen,

4- Ikastetxe eta eskola na-
zionalei beren ateak irikita eduki
ditzatela eskatzen diegu A.E.M.-
ren beharrianetarako. Eta he-
men sor litezkeen kostuak Udala-
ren bizkar egonik.

5- Beren hitzaldi eta ager-
pen publiko orotan euskara beti
erabilia izan dedin esijitzen diegu
alderdi politikoei. Guttienik, er-
dera adinbat. Eta euskara nagusi
den tokitan, euskaraz bakarrik.
Orobat, hautaturik irtengo den
alkatea ere, euskalduna izan be-
har du.

6- Hauteskundetan hautatu-
ko diren ordezkari berrien ondo-
tik, Udal orok:

a) Zerbitzu publiko irikitan
(leihatila eta antzeko lekutan)
euskaraz dakien administraria
eduki dezan eskatzen dugu.

b) Lanorduen barruan eus-
kaldundu eta alfabetatu beharko
dira administrari guztiak. Horre-
tarako 4 urteko epea ematen du-
gu.

c) Udaleko horri, informe,
agiri, akta eta antzeko paperetan
ere euskara erabil dezan eskatzen
diogu.


d) Erderatik euskararako
itzulpen lanetan iharduteko, bes-
te udal zerbitzu bat gehiago
bezala, behar dituen itzultzaileen
jabe izan dedin eskatzen diegu
Udaletxeari.

7- A.E.M.ren eskabideok,
bereziki mugimendu honek ditu-
en behar gorri haiek (bere zentru
eta lokalik eza dela, irakaslegoa
prestatzeko eta honi ordaintzeko
mediorik eza dela, eta abar), eus-
kararen alde zertxobait egin nahi
lukeen alderdi politiko orori, aho
batez onar ditzan eskatzen diegu.
Onar, eta plaza publikoan onartu
ere, A.E.M.ren alternatiba hau
erabat asumituz eta defendatuz.
Eta hala egiten ez den heinean,
hots, euskarak maila honetan di-
tuen errebindikatzioak asumitzen
ez dituen alderdi politiko, alian-
tza edo koalizio elektoral hura,
gure aldetik behintzat publikoki
salaturik geratuko da.

Altsasu, 1979ko Otsailaren 26
ALFABETATZE-EUSKALDUN-
TZE KOORDINAKUNDEA

GURUTZEGRAMA

7.



Egilea: Larry Trask

6.



7. ZENBAKIA

Euskal probintzietatik bati dagozkion hitz asko ditu gurutzegrama honek.

LUZETARA

2. Probintzia honetako poeta (1933 - 1975).
6. Footballerak arrakasta (erdaraz).
7. Etorri.
10. Probintzia honetako herri bat.
12. Izubera, izukorra.
15. Atzizki superlatiboa.
17. Sabin ----, "lehengo abertzalea"; probintzia honetako zen.
20. Ingelesazko artikulua.
22. Probintzia honetako haran handi bat.
25. Lehen euskaltzainburua; probintzia honetako zen.
26. Gabetu, larrutu (infinitiboa).
28. Probintzia honen herrialde bat edo jaka bat.
30. Jaurti.
31. Euskal kantari bat ("Txoria Txori") (izen osoa) (2 hitz).
34. Punta (hitz edo atzizki).
35. Done (erdaraz).
36. Emakumeak *neba du*; gizonak, ----.
37. Probintzia honen eta Euskal Herriaren symboloa (2 hitz).
40. Iparraldeko madarikazio gogor bat (2 hitz).
41. Alkitran, vi.
42. Estatu Batuak (erdal laburpena).
43. "Orain ohera ----, bihar arte aio".
44. Probintzia honen aldizkaria.
48. Ispiluko irudi.
49. Zakur.
50. "Guk euskaraz, ---- zergatik ez?"
52. Probintzia hazi.
54. Elementu irradiaztibo bat.
55. Ameriketako Estatuaren Erakundea (erdal laburpena).

GOITIK BEHERA

1. Probintzia honen football taldea (2 hitz).
3. Ura nahi duena.
4. Begirakune.
5. Zu ta ni.
7. Bai (alemanieraz).
8. Pertsona mythologiko.
9. Kasta, arraza.
10. Etxeko jaun, probintzia honetan.
11. Gehitua (artikulu gabe).
13. Iran-eko erregea.
14. Itsasoa zerezkoa den.
16. "---- Bizi Naizen Lurrean".
18. Aitzineko Sovietar leader (inizialak).
19. "---- gizona, jeiki mutil".
21. Jausia.
23. Gizonezko.
24. "Peru ----", probintzia honen literatur perietatik bat.
26. Ezet esan.
27. Testamentu Berria euskaratzailea (laburpena).
28. Aztek-en soinu maiteena.
29. Jatekoa (Axularren hitza).
31. Berrizki hil zen Txina-ko leader.
32. Buruz (latinez) (2 hitz).
33. My ----, Vietnam-eko herri bat; masakre bat han gertatu zen.
35. Polisario-ren herria.
38. Prestakuntzeko lankide.
39. Eskuturarentzako edergailu.
45. "---- Nahi Dudana".
46. Artseniko (symbolo khimiko).
47. "---- bezala itsasoan".
51. Ez ardo ez ----.
53. ---- egin (atzera joan, untzia).

Egilea: Larry Trask



KALEKO



Sabino
Echevarria
Güenechea / Promociones

Carmen Kalea 11 - 6 esk.
Tlph. 673 06 19 - 748 - 729
Zornotza/Bizkaia

Zornotzako merkatal lokale eta 90 etxabizitzaren eragintza eta salmenta.

ERLOJUTEGIA ETA BITXITEGIA

ORIENT - SEIKO QUARTZ

Comercial SANCHEZ

Erregalugaiak (Hemengoak-Atzerrikoak) eta enkantea.

Erloju moeta guzien konpontze segurtatuak.
Bapateko bitxigintz grabatuak

DENDA NAGUSIA
Ramón y Cajal 30
Telf. 4357595
DEUSTUA - BILBO 14

ORDEZKO DENDAK
Particular de Diez 2
Telf. 4331743
SANTUTXU
BILBO

Rondoko 4
Telf. 4470338
SAN IGNACIO
BILBO 14

BAZAR SANCHEZ
Virgen de Begoña 16
BASAURI

EUSKARAZ ZER? HONA GURE HITZA: EGUNORO ERABILTZA.



Egin dezagun egunkari elebidun bat, gure kale, eskola eta lantegietan euskara egunoro erabil-araz dezan.

Geure hizkuntza baitugu gure herri bizitzaren erakusle bakarra.

Iritsi baita euskara geure etxe-zulotik ateratzeko garaia. Guztiok hartu behar dugu esku, Egin geurea, elebiduna, geuk nahi dugun hori izan dedin.

Elkargoan eginez. Guztiok finantziatuz.

Egin dezagun geure egunkari berri eta egi-zalea.

Harpide zaitetz eta partzuer-kontu bat eskura, kupoi hau bete eta ORAIN, S.A.-ri bidaliz: ORAIN, S.A.

Apartado 1567. Bilbao.

Apartado 444. Pamplona.

Apartado 1397. San Sebastián.

Apartado 420. Vitoria.

EGIN egunkariaren finantziaketan esku hartu nahi dut:

Urteko harpidetzaren bidez.

(2.000 a 100.000.) _____ pezetako partzuer-kontuaren bidez.

Ordaintzeko era

Giro n.º _____ Cuenta corriente n.º _____

Bankoa _____

Deitura _____

Helbidea _____ Telefonoa _____

Hiria _____ Probintzia _____

egin

HAGAMOS EGIN. EGIN DEZAGUN EGIN.

Goazen MUNDUKO FUTBOL TXAPELKETARA (Argentina-Brasil bisitatuz) CAJA LABORALAREKIN



CAJA LABORAL POPULAR
LANKIDE AURREKIA

100 LAGUNENTZAT ZOZKETA
Informa zaite gure etxeordeetan

